



**ANTZERKIA**  
**LE THÉÂTRE**


12

Aizpea Goenaga – Pedro Barea

**BASQUE.**



**ETXEPARE**  
**EUSKAL**  
**INSTITUTUA**



**ANTZERKIA**  
LE THÉÂTRE

Aizpea Goenaga - Pedro Barea

---

01  
Euskara  
La langue basque

---

02  
Literatura  
La littérature

---

03  
Musika klasikoa  
La musique classique

---

04  
Euskal kantagintza: pop, rock, folk  
La chanson basque : pop, rock, folk

---

05  
Artea  
L'art

---

06  
Zinema  
Le cinéma

---

07  
Arkitektura eta diseinua  
L'architecture et le design

---

08  
Euskal dantza  
La danse basque

---

09  
Bertsolaritza  
Le bertsolarisme

---

10  
Tradizioak  
Les traditions

---

11  
Sukaldaritza  
La cuisine

---

**12**  
**Antzerkia**  
**Le théâtre**

---

Etxepare Euskal Institutuak sortutako bilduma honek hamabi kultura-adierazpide bildu ditu. Guztiak kate bakarraren katebegiak dira, hizkuntza berak, lurralde komunak eta denbora-mugarri berberak zeharkatzen dituztelako. Kulturaren eskutik, euskararen lurraldean tradizioa eta abangoardia nola uztartu diren jasoko duzu. Kulturaren leihotik, bertakoaren eta kanpokoaren topalekua erakutsiko dizugu. Kulturaren taupadatik, nondik gatozen, non gauden eta nora goazen jakiteko aukera izango duzu. Liburu sorta hau abiapuntu bat da, zugar jakin-mina eragin eta euskal kultura sakonago ezagutzeko gogoia piztea du helburu.

Cette collection créée par l'Institut basque Etxepare réunit douze disciplines culturelles. Elles sont toutes les maillons d'une même chaîne, car elles partagent la même langue, le même territoire, et la même histoire. À travers notre culture, nous vous invitons à être témoin de la fusion entre tradition et innovation, du mélange du local et de l'étranger dans le territoire de la langue basque. Nous vous invitons à découvrir d'où nous venons, où nous en sommes, et vers où nous allons. Cette collection est un point de départ destiné à éveiller votre curiosité et à susciter le désir de mieux connaître la culture basque.

## **ANTZERKIA** **LE THÉÂTRE**

Aizpea Goenaga – Pedro Barea

08	Sarrera	Introduction
14	Euskal antzerkiaren historia laburra	Brève histoire du théâtre basque
72	Euskal antzerkiaren gaiak: memoria	Les thèmes du théâtre basque : la mémoire
90	Bultzada femeninoa euskal antzerkian	L'impulsion féminine dans le théâtre basque
94	Euskal artisten diaspora	La diaspora des artistes basques
98	Euskal antzerkiaren azpiegiturak	Les infrastructures du théâtre basque
110	Euskaraz sortutako dramaturgia	La dramaturgie en langue basque
114	Euskal antzerkiaren etorkizuna	Le devenir du théâtre basque
116	Amaiera-oharrak	Notes de fin
118	Bibliografia	Bibliographie



Nola lortu du Mendebaleko Europako berezko hizkuntzen artean indoeuroparra ez den bakarrak bere lekua hartzea XXI. mendean? Zertan datza euskal kultura gaur egun eta zertan bereizten da besteengandik? Zer presentzia merezi du nazioartean?

Liburu hauen bidez, Etxepare Euskal Institutuak erantzun batzuk proposatu nahi ditu, beste kultura eta identitate batzuei eskua luzatzeko asmoz. Elkar ezagutzea baita elkar estimatzeko eta ulertzeko modu bakarra. Ongi etorri.

Comment la seule langue indigène d'Europe occidentale qui ne soit pas d'origine indo-européenne a-t-elle réussi à prendre sa place au XXI<sup>e</sup> siècle ? Qu'est-ce que la culture basque aujourd'hui, et qu'est-ce qui la distingue des autres cultures ? Quelle présence internationale mérite-t-elle ?

À travers les livres de cette collection, l'Institut basque Etxepare souhaite proposer des réponses, afin de tendre la main à d'autres cultures et identités. Car se connaître mutuellement est le seul moyen de nous apprécier et de nous comprendre. Ongi etorri.

# Euskal antzerkiaren historia soziala

Aizpea Goenaga

# Historie social du théâtre basque

Aizpea Goenaga

## Sarrera

### Euskal sorkuntzaren inguruko begirada zabala eta lokala: erraldoiarena eta txindurriarena

Gure kultura oso aberatsa da, baita bere adierazpen artistikoa ere. Arte plastikoan, dantzan, literaturan, zinean edota musikan sorkuntza bizi-bizirik dago, zer esanik ez antzerkian. Izen handiko euskal artistak ditugu, gure kulturari eta herriari ospea eman diotenak; antzerki-eremuan ere bai, non aktoreek, zuzendariak, ekoizleak eta idazleak ikusleen txaloak jaso dituzten taula gainean erakutsitako ekoizpenetan. Azken urteetan, mugimendu garaikideek proposamen eta ikuspuntu berriak landu dituzte eszenan, eta ezinbesteko eragina izan dute oro har gure sorkuntzan. Aldi berean, antzerkiaren eta eszena-adierazpenen inguruko hainbat tradizio herrikoiek bizirik iraun dute. Batzuetan, gaur egungo antzerkia eta antzerki tradizionala, elkar topo egin gabe, nor bere bidetik aritu dira eta, beste askotan, berrikuntzak tradizioetatik edan du, are gehiago, tradizioa berrikuntzaren inspirazioa izan da.

Arte plastikoak, dantza bezala, hitzik gabeko diziplinak dira. Musikak, hitzik gabe edo hitzari lotuta joanda ere, badu bere euskarri unibertsala. Literatura itzulpengintzan oinarritzen da eta, zubi horri esker, mundura zabaltzeko arazorik ez du. Zinean, bikoizketa edo azpitoluak tarteko, beste hainbeste gertatzen da. Aitzitik, antzerkian, adierazpen fisikoak garrantzi handia izanda ere, hizkuntza bidezko komunikazioa berehalakoa eta beharrezkoa da, hitzik gabeko antzerkia ez bada betiere. Euskal Herrian, testua eta hitza oinarri dituen antzerkiaren garapenak errealitate berezi bat sortu du. Hain zuzen, gurea bezain geografia mugatuan hitz egiten diren bi edo hiru hizkuntzetan antzeppenak egitea. Lerro hauetan, batik bat, euskaraz egindako antzerkiari eta haren berezitasunei erreparatuko diegu, aintzat hartuta betiere Euskal Autonomia Erkidegoan, Iparraldean eta Nafarroan euskarazko antzerkiak egoera ezberdinak bizi dituela.

Ezinezkoa zaigu euskal antzerkiaren ibilbide osoa orri hauetan laburtzea. Talde askok, muntaia azpimarragarriak, egile gogoangarriak eta memento esanguratsuek eraiki dute gure oholtza gaineko historia. Horregatik, ezertan hasi aurretik, esan behar dugu zoritxarrez ezingo ditugula talde guztiak, antzezlan guztiak, sortzaile guztiak eta euskal antzerkigintzaren xehetasun guztiak jaso, baina egingo dugun hurbilketa honek gure sorkuntzaren oinarrietako bat den antzerkiari zor zaion lekua eskuratzen laguntzeko bultzada bat izatea espero dugu.

Euskal Autonomia Erkidegoan antzezlan gehienak euskaraz eta gaztelaniaz egiten dira, eta konpainiek antzezlan beraren bertsio bikoitzak prestatzen dituzte, hau da, muntaia bera bi hizkuntzetan egiten dute. Nafarroan gutxiago lantzen dira bertsio elebidunak. Iparraldean euskara hutsean egindako antzerkia nahiko hedatuta dago talde amateuretan; talde profesionaletako asko, berriz, euskaraz eta frantsesez aritzen dira.

Euskal antzerkiak hizkuntzaren gaia oso funtsezkoa du, bai garapean, bai ekoizpenean, bai eta zabalkundearen ere. Haurrei zuzendutako

## Introduction

### Panorama général et local de la création basque : le géant et la fourmi

Notre culture est très riche, ainsi que toutes ses expressions artistiques. Dans les arts plastiques, la danse, la littérature, le cinéma ou la musique la création est très vivante, ainsi que dans le théâtre, évidemment. Nous avons des artistes basques réputés, qui ont contribué à la reconnaissance de notre culture et de notre pays ; il en va de même dans le domaine du théâtre où les acteurs, les metteurs en scène, les producteurs et les auteurs ont été applaudis par les spectateurs pour leurs productions présentées sur les planches. Ces dernières années divers mouvements contemporains ont développé de nouvelles propositions et de nouvelles approches scéniques à l'influence incontestable. En même temps, les grandes manifestations de théâtre traditionnel et populaire sont plus vivantes que jamais. Parfois, le théâtre contemporain et le théâtre traditionnel ont parcouru des chemins différents qui ne leur permettaient pas de se rencontrer, mais de nombreuses autres fois, la tradition a servi de tremplin et même d'inspiration pour les défis scéniques les plus innovants.

Les arts plastiques, tout comme la danse, sont des disciplines non-verbales. La musique, avec ou sans paroles, possède un support universel. La littérature repose sur la traduction, et cette passerelle lui permet d'atteindre le monde entier. Il en va de même pour le cinéma, via le doublage et le sous-titrage. Néanmoins, si dans le théâtre l'expression corporelle a une importance capitale, la communication verbale est immédiate et indispensable, à l'exception, bien sûr, du théâtre muet. Au Pays basque le développement du théâtre reposant sur le texte et les mots a généré une réalité *singulière*, due à l'existence, dans une géographie aussi limitée que la nôtre, de représentations théâtrales en trois langues. Nous allons, dans cet ouvrage, porter une attention particulière au théâtre en langue basque et à ses caractéristiques, sans oublier que la situation linguistique est différente dans la Communauté autonome basque, au Pays basque du Nord et en Navarre.

Il est impossible de résumer en quelques pages toute l'histoire du théâtre basque, qui est composée de nombreuses compagnies, de productions remarquables, d'auteurs mémorables et de moments très significatifs. C'est pourquoi, nous n'allons pas pouvoir évoquer l'histoire scénique basque en détail, mais nous espérons que cette brève approche du théâtre, qui est l'un des piliers de notre culture artistique, lui donnera la place qui lui revient.

Dans la Communauté autonome basque la plupart des pièces de théâtre se font en basque et en espagnol, et les compagnies produisent deux versions de la même pièce. En Navarre les versions bilingues sont moins fréquentes, tandis qu'au Pays basque du Nord le théâtre en langue basque est assez répandu au sein des groupes amateurs, et de nombreuses compagnies professionnelles travaillent aussi bien en basque qu'en français.

antzezlanak euskara hutsean gehien egiten direnak dira. Konpainia profesional oso gutxi dira, ordea, helduei zuzendutako antzezlanak euskaraz bakarrik ekoizten dituztenak.

Euskaraz egindako antzerkiaren bigarren ezaugarri edo baldintza nagusia mugikortasuna da. Gehienetan, taldeak bere antzezlanaren emanaldi bakarra egiten du herri edo antzoki bakoitzean. Bi bertsio badituzte, euskarazkoa eta erdarazkoa, antzoki berean bi saio egin ohi dituzte, baina ez da ohikoa egun bat edo bi baino gehiago leku berean antzezten aritzea; izan ere, euskal antzerkiaren aurkezpen-eredua emanaldi edo *bolo* solteena da. Baldintza horrek, halaber, formatuei eragiten die, zeren, antzezlanaren mugikortasuna ahalbidetzeko, beharrezkoa izaten baita muntaiari dagokionez ikuskizun *erraza* izatea, hots, tamainaz txikia, aktore gutxikoa eta eszenografia gutxienekoa izatea.

Hirugarren ezaugarria euskal antzerkiaren ekoizpen publikoaren gabezia da. Azken urteetan, egia da, Hegoaldeko hiru hiriburuetakoko antzoki publikoek elkarrekin ekoizpen-ildoak abian jarri dituzte. Alabaina, ekoizpen publikoaren gabeziak euskal hizkuntza dramatikoaren garapena mugatu du eta, oro har, ez dira arrisku bereziko ekoizpenak bultzatu, ezta formatu handiko ikuskizunak ekoiztu ere. Antzerki-konpainiak, bizirik irauteko, merkatu-lehiakortasunaren agindupean daude eta, antzezlanaren mailak, tamainak edota aktore kopuruak muntaia garestitu dezake eta zabalkuntza zaildu. Hala, euskal antzerkiaren baldintza murriztaileek alor guztiei eragiten diete.

Antzerkigileen ahalegina beti behar bezala babestu ez bada ere, euskal antzerkiaren sorkuntza-maila oso altua da. Garai berrietara egokitutako estilo eta hizkuntza dramatiko berriak sortu ditu, oso aktiboa da, zailtasun-egoerei aurre egin die eta, etengabean arrisku handiak hartuz, aurrera egin du. Antzerki mota eta estilo desberdinak jorratu dituzten konpainiak lanean aritu dira biziki, eta, egoskortasun horri esker, eskarmentu handiko zuzendari-, aktore-, tekniko-, idazle-, programatzaile- eta banatzaile-sare trinkoa erein da. Nola ez, euskal publiko fidela ezinbestekoa izan da beti.

La question de la langue est fondamentale pour le théâtre basque, tant dans son développement que dans la production et la diffusion. Les pièces de théâtre destinées aux enfants sont les plus nombreuses à être proposées en basque. Par contre, il existe très peu de compagnies professionnelles proposant des pièces de théâtre pour adultes exclusivement en basque.

La deuxième caractéristique du théâtre en langue basque est liée à la mobilité. La plupart du temps, les compagnies ne donnent qu'une seule représentation dans chaque village ou salle de théâtre. Il peut aussi arriver qu'elles en proposent deux, une en basque et l'autre en espagnol ou en français, mais il est rare qu'elles restent au même endroit plus d'un jour ou deux. En effet, dans le théâtre basque, le modèle est celui des représentations uniques, ce qui a un impact sur le format utilisé, car pour assurer le transport de la pièce de théâtre d'un endroit à l'autre, il est indispensable que la mise en scène soit simple, c'est-à-dire de petit format, avec peu d'acteurs et une scénographie minimaliste.

La troisième caractéristique est le manque de production publique de théâtre basque. Il est vrai que ces dernières années les théâtres publics des trois capitales de la Communauté autonome basque ont lancé des directions communes de production. Ainsi, l'absence de production publique a limité le développement du langage dramatique basque et la promotion des projets les plus risqués ou de spectacles de grand format. Les compagnies de théâtre sont à la merci de la concurrence et leur survie dépend du marché, elles ne peuvent donc pas produire d'œuvre d'envergure ni disposer d'un effectif important d'acteurs. Ainsi, le niveau de précarité du théâtre basque touche tous les domaines.

Bien qu'il n'ait pas toujours reçu l'appui qui lui aurait été nécessaire, le domaine dramaturgique du Pays basque jouit d'un très haut niveau créatif. Le théâtre basque a créé de nouveaux styles et langages dramatiques pour s'adapter aux temps nouveaux et aller de l'avant, en faisant face activement aux situations difficiles et en prenant des risques importants. Les compagnies basques ont travaillé dur et ont traité des genres et des styles dramatiques très divers, et grâce à cette persévérance, elles ont pu créer un réseau solide de metteurs en scène, d'acteurs, de techniciens, d'auteurs, de programmeurs et de distributeurs très expérimentés. Et, évidemment, grâce à la fidélité du public bascophone.





1

## Euskal antzerkiaren historia laburra

### TRADIZIOETAN ERROTUTAKO EUSKAL ANTZERKIA

Euskal Herrian antzinako garaietatik datoz dantza, festa eta bestelako adierazpen erritualak. Euskal leizeetan agertu diren irudiek gurean ere iraganeko gizarteek erritu-dantzak egiten zituztela erakusten dute.

Zorionez, gure herrian, Iparraldean batez ere, gizarteak aurrera egin ahala antzerki-adierazpen tradizionalak bizirik iraun dute. Pastoralak eta maskaradak horren adibide dira. Halaber, Euskal Herri osoan ahozkotasan oinarritutako adierazpide herrikoiek bizirik iraun dute, batez ere, gure artean hainbeste indar eta garrantzi duen bertsoaritzak oso bizirik dirau.

Mimo edo aktore baskoi baten lehen aipamena VII. mendekoa da. Patri Urkizu irakasle eta ikertzaileak bere *Teatro vasco. Historia reseñas y entrevistas, antología bilingüe, catálogo e ilustraciones* (UNED, 2009) liburuan aipatzen du Julio Caro Barojak bildutako San Amandoren kontakizuna. Jokin Lanz Beteluk jaso duenez<sup>1</sup>, *Vita Amandi* liburuaren bertso batean honakoa kontatzen da: Amando, Maastrichteko prelatua, Vasconiara erbesteratu zuten Dagoberto I.a erregearen bizitza amoralaren salaketaren buru izateagatik. Han, dirudienez, 634an, mendietako baskoien artean predikatzen hasi zen, baina ez zuen arrakastarik izan. Behinola, *mimilogus* moduko batek barregarri utzi zuen jendaurrean. Orduantxe, Amando prelatuak, haserre, mirakulua egin eta hantxe hil zuen mendekuz *mimilogusa*. Mimoa mundu klasikoan oso ohikoa zen. Gehienetan, bakarka aritzen ziren kalean xeblekeriak antzezten, gizonezkoak nahiz emakumezkoak izaten ziren.

Nolanahi ere, halako erreferentzia solte batzuk salbu, informazio gutxi iritsi zaigu, nahiz eta horrek ez duen esan nahi gertatzen ez zirenik. Esate baterako, jakin badakigu, 1494ean, Iruñean egin ziren Catalina I eta Juan III.aren koroazioaren ospakizunetako jai handietan, euskaraz egindako antzerkia egin zela. Horrelako ospakizun handietan entretenimenduak bere lekua behar zuen eta, nola ez, euskaraz egindako antzerkiak ere bai.

1. *Roland* pastoralak Garindeinen (Zuberoa), 1936 inguruan.

2. Urdiñarbeko maskarada Maulen, 1949 inguruan.

## Brève histoire du théâtre basque

### LE THÉÂTRE BASQUE ENRACINÉ DANS LA TRADITION

Au Pays basque, les danses, fêtes et autres expressions rituelles proviennent d'époques ancestrales. Les peintures rupestres des grottes du Pays basque montrent que les sociétés du passé pratiquaient des danses rituelles.

Heureusement, dans notre pays, notamment au Pays basque du Nord, les progrès de la société n'ont pas empêché les expressions théâtrales traditionnelles. La pastorale et la mascarade en sont une bonne illustration. De même, d'autres expressions populaires orales ont perduré au Pays basque, surtout le bertsoarisme qui est encore bien vivant et présent parmi nous.

La première référence à un mime ou à un acteur vascon remonte au VII<sup>e</sup> siècle. Le professeur et chercheur Patri Urkizu dans son ouvrage *Teatro vasco. Historia reseñas y entrevistas, antología bilingüe, catálogo e ilustraciones* (« Théâtre basque. Histoire, critiques et entretiens, anthologie bilingue, catalogue et illustrations », UNED, 2009) évoque le récit de San Amando recueilli par Julio Caro Baroja. Selon Jokin Lanz Betelu<sup>1</sup> l'une des versions de la *Vita Amandi* raconte ce qui suit : Amando, prélat de Maastricht avait été exilé en Vasconie pour avoir dénoncé la vie amoral que menait le roi Dagobert I<sup>er</sup>. Il semblerait qu'en 634 il prêcha parmi les Vascons des

1. La pastorale *Roland* à Garindein (Soule), vers 1936.

2. Mascarade d'Ordiarp à Maule (Soule), vers 1949.



2

XVI eta XVII. mendeetan antzerki liturgikoa egiten zela jasotzen duen dokumentazioa badugu: antzezteko baimen-eskaeraren bat edo antzezlana egin izanaren aipamena edo ordainketa-agiri bat kasu. Baina datu horiez gain, ez dago bestelako informaziorik.

Azpimarratzekoak dira Ipar Euskal Herrian, bereziki Zuberoan, oraindik ere bizirik dirauten antzerki-adierazpen herrikoiak, batez ere, Pastoralak izeneko herri-antzerki tradizionalak. Patri Urkizuk bere lanetan Iparraldeko antzerkiak sakon aztertu ditu, baita Euskal Herri osoko antzerkia ere. Urkizuren lanari esker, antzerki herrikoia hainbat dramaturgia-adierazpen, testu eta azalpen jaso dira. 1634. urtekoa da erregistratu zen lehenengo pastoralak, Atharratzen aurkeztutakoa. Pastoralak herriko jende ugari hartzen duen ospakizun handia zen, herriko plaza edo espazio zabalean antzeztzen zena. Oraindik ere halaxe egiten da. Antzeztanak, gaurko egunean bezala, bertsoan kantatzen ziren eta musikak zein dantzak garrantzia handia zuten.

Pastoraletan bi mundu ageri dira lehian: onak (kristauak) eta gaitzoak (turkoak). Beti ongiak irabaziko du. Antzeztokian hiru ate daude: ezkerreko ate urdinetik onak aterako dira; eskuineko ate gorritik turkoak aterako dira, eta goiko aldetik deabrua agertuko da, erdian, ate zuri txiki bat ageriko da. Musikariak ere agertokian egoten dira.

Garai batean, pastoraletan gizonek bakarrik parte hartzen zuten, XX. mende erditik aurrera, ordea, emakumezkoek ere antzezten dute. Gaitegi nagusia erlijiosoa zen, adibidez santuen bizitzak; baina, gai klasikoak eta pertsonaia ospetsuen inguruko gai epikoak ere jorratzen ziren. Orain, berriz, pastoraletan gehienetan unean uneko errealitateari erreparatzen diote; politikari edota gizarteari lotutako gaiak lantzen dituzte.

Nafarroan, Nafarroa Beherean eta Zuberoan beste errepresentazio edo antzerki mota batzuk ere badira<sup>2</sup>: Xaribariak, serenata modukoak diren Galarrotsak edo Zintzarrotsak eta egunez antzeztzen diren kaleko Desfileak edo Trufa-jokoak, hala nola asto-lasterrak eta toberak, besteak beste. Maskaradak inauterietako tradizioei lotutako errepresentazio teatralak dira. Guztiek dute antzerkia, dantza, musika eta bertsoekiko lotura, esan daiteke, beraz, arte eszeniko guztiak biltzen dituzten adierazpenak direla.

Gipuzkoa eta Araba aldean, berriz, Lasarte, Oiartzun, Bergara eta Zaldudon, besteren artean, Erdi Aroko tradizioetatik datorren Tobera edo herri-antzerki satirikoa antzeztu eta berreskuratu izan da azken urteetan.

3. Irisarriko Toberak (Baxe Nafarroa), 1937.



3. Toberak d'Irissarri (Basse Navarre), 1937.

montagnes, mais sans succès. Et un *mimilogus* l'aurait ridiculisé en public, au point que le prélat Amando, en colère, a voulu se venger en le tuant. Les mimes étaient des personnages courants du monde classique. Les mimes pouvaient être des hommes ou des femmes, et jouaient seuls dans les rues.

Outre ces rares références, nous n'avons que peu d'informations sur le passé de notre théâtre, mais cela ne signifie pas qu'il n'existait pas. Nous savons, par exemple, qu'en 1494, lors des grandes célébrations pour le couronnement de Catherine de Navarre et de Jean III de Navarre à Pampelune, il y a eu une représentation théâtrale en langue basque. Lors de ce type de grandes célébrations le divertissement occupait une place importante, et, bien sûr, le théâtre en langue basque également.

Nous avons des documents montrant qu'aux XVI<sup>e</sup> et XVII<sup>e</sup> siècles on jouait des pièces de théâtre liturgiques : par exemple, on a retrouvé une demande d'autorisation de jouer ou l'évocation d'une représentation théâtrale. Mais à part ces quelques données, il n'y a guère plus d'informations.

Au Pays basque du Nord, et en Soule en particulier, il existe plusieurs événements de théâtre populaire qui sont toujours en vie, comme la pastorale. Patri Urkizu a mené des recherches approfondies sur les formes théâtrales du Pays basque du Nord, ainsi que de tout le Pays basque. On lui doit la connaissance de plusieurs de ces manifestations et textes fondamentaux. La première pastorale dont on a la trace remonte à 1634, et avait été jouée à Atharratze (Soule). La pastorale est une célébration importante, à laquelle, encore aujourd'hui, tout le village participe, et qui se joue sur la place du village ou dans un autre espace extérieur. Il s'agit d'une œuvre écrite en vers et que l'on récite en chantant, et la musique et la danse y ont une place importante.

Deux mondes s'affrontent à la pastorale : les bons, qui sont les chrétiens, et les mauvais, les Turcs. Et c'est évidemment toujours le bien qui l'emporte. Sur scène se trouvent trois portes : une porte bleue qui se trouve sur la gauche, par laquelle les bons entrent sur scène, une porte rouge sur la droite, surmontée d'un diable et qui sert d'entrée aux Turcs, et au milieu, une porte blanche. Les musiciens se trouvent sur scène.

Auparavant, seuls les hommes jouaient la pastorale, mais depuis le milieu du XX<sup>e</sup> siècle, les femmes aussi y participent. Les sujets traités étaient principalement religieux, par exemple, on évoquait la vie des saints ; mais les sujets classiques et les sujets épiques autour de grands personnages étaient également abordés. Aujourd'hui, les pastorales traitent principalement des problèmes politiques et sociaux actuels.

Il existe également d'autres formes de représentations et de théâtre populaire en Navarre, Basse Navarre et Soule<sup>2</sup> : le charivari, les *galarrotsak* et *zintzarrotsak* qui sont des sortes de sérénades et de défilés de rue et des farces comme les *asto-lasterrak* et les *toberak*. La mascarade est une représentation théâtrale étroitement liée à la tradition carnavalesque. Toutes ces formes de spectacles regroupent tous les types d'art scénique tels que le théâtre, la danse, la musique et le *bertsolarisme*.

Ces dernières années, dans certaines villes du Guipuscoa, par exemple à Lasarte, Oiartzun et Bergara, et dans des villes d'Alava, comme à Zaldudon, on rejoue les *toberas*, sorte de farce satirique dont l'origine remonte au Moyen Âge.

## XVIII. ETA XIX. MENDEETAKO EUSKAL ANTZERKIA

Jasota dagoen lehen antzerki-testua XVIII. mendekoa da. Pedro Ignacio Barrutiaren *Acto para la Nochebuena* edo *Gabonetako Ikuskizuna*<sup>3</sup>. Barrutia Arrasateko eskribaua izan zen. Bere antzezlan labur hau XIX. mendean aurkitu zuten, eta Resurrección María Azkuek *Euskalzale* aldizkarian argitaratu zuen lehenengo aldiz. Antzezlanak hizkera bizia eta herrikoia du. Herriko jendea eta eguneroko gorabeherak trama erlijiosoan txertatzen ditu. Garai hartan ziurrenik antzeko antzerki gehiago egingo zen, baina tamalez hau da gurera iritsi den testu bakarra.


XVIII. mendean, ilustrazioaren eraginez, zenbait euskal kultura zaleek antzerkia bultzatu zuten. Frantzisko Xabier María Munibe Idiakenez, Peñaflo-ridako Kondea, bereziki nabarmendu zen. Politikaria izateaz gain, idazlea, musikagilea eta antzerki-zuzendaria ere izan zen. Azkoitiko Insausti jauregian antolatzen zituzten solasaldietan gurean hain garrantzitsua izan zen Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen sorrera bultzatu zuen.

Peñaflo-ridako Kondeak zenbait antzezlan idatzi, itzuli eta antzeztu zituen. Esate baterako, 1762. urtean, Azkoitian Carlo Goldoni-ren *El Criado de dos amos* taularatu zuten. Urte berean, *Gabon Sariak* idatzi zuen, antzezteko sortutako gabon-kanta sorta. 1774ean, *El Borracho Burlado* estreinatu zuten Bergaran, zeina Muniberen antzezlanik ezagunena den. Amaieran moralkeria duen antzezlan komikoa da, eta hizkuntza errazean euskarazko testuak gatzelaniazkoarekin tartekatzen dituena.

Haatik, Patri Urkizuk bere *Euskal Teatroaren Historia* (Kriselu, 1975) liburuan dioen bezala, garaiko «antzerkia ez zen Zuberoan egiten zen antzerki herrikoia edo Azkoitiko Zaldunek egiten zituztenak bakarrik». Dirudienez, antzerkia uste baino askoz hedatuagoa zegoen. Euskal Herrian barrena, XVIII. eta XIX. mendeetan, baziren antzerkia bultzatzen zuten enpresariak. Bilbon, beste ekitaldi askoren artean, opera-saioak izaten ziren. 1881ean, Luis Iza eta Agirre bilbotarrak Calderón de la Barcaren *Zalamea'ko Alkatia* itzuli zuen. Iruñeko Coliseo antzokiak antzerki-eskaintza zabala izaten zuen urtean zehar, eta beste hainbat herritan ere egiten ziren antzerki-saioak. Alabaina, taularatutako antzerkiak nahiz idatzitako antzezlanak gurera iritsi ez direnez, ez dute arrasto handiegirik utzi.

Euskal antzerkiaren erreferente nagusia Marcelino Soroa da. Gaztetan Donostiako Andia kaleko zirkuan aritzen zen lagun-talde batekin ikuskizunak eskaintzen. Ziburun erbesteratu behar izan zuen eta han beste deserriratu batzuekin batera antzerkia eta bestelako ikuskizunak egiten hasi zen; talde hartan oraindik ume koskorra zen Toribio Alzaga ere ibili zen. Soroak, 1876ean, *Iriyarena* lana estreinatu zuen Ziburun; bi urte beranduago, Donostian. Sekulako arrakasta izan zuen. Antzezlan asko idatzi zituen,

4. *El borracho burlado* (1764). Frantzisko Xabier María Munibe Idiakenez, Peñaflo-ridako Kondea.



4. *El borracho burlado* (1764). (« L'ivrogne moqué », 1764). Frantzisko Xabier María Munibe Idiakenez, le comte de Peñaflo-rida.

LE THÉÂTRE BASQUE DES XVIII<sup>E</sup> ET XIX<sup>E</sup> SIÈCLES

Le premier texte théâtral remonte au XVIII<sup>e</sup> siècle. Il s'agit de l'œuvre *Acto para la Nochebuena* ou *Gabonetako Ikuskizuna*<sup>3</sup> (« Le Spectacle de Noël ») de Pedro Ignacio Barrutia, qui était le scribe d'Arrasate (Guipuscoa). Cette courte pièce de théâtre a été retrouvée au XIX<sup>e</sup> siècle et Resurrección María Azkue l'a publiée pour la première fois dans la revue *Euskalzale*. L'œuvre, dans un style vivant et populaire, tisse une trame dans laquelle s'entrecroisent les histoires quotidiennes des gens du peuple et divers thèmes religieux. Ce type de pièces devait être courant à l'époque, mais c'est le seul qui est arrivé jusqu'à nous.

Au XVIII<sup>e</sup> siècle, influencé par les Lumières, quelques acteurs de la culture basque ont impulsé le théâtre de manière significative, dont Frantzisko Xabier María Munibe Idiakenez, comte de Peñaflo-rida. En plus d'être un homme politique, il était également écrivain, compositeur et metteur en scène. Lors des conférences organisées au palais Insausti d'Azkoitia (Guipuscoa), la Société Royale Basque des Amis du Pays a été créée, société au rôle très important au Pays basque.

Le comte de Peñaflo-rida a écrit, traduit et joué plusieurs pièces de théâtre. Ainsi, en 1762, il a mis en scène *Arlekino, bi nagusiren serbitzari* (« Arlequin serviteur de deux maîtres ») de Carlo Goldoni à Azkoitia. La même année, il a écrit *Gabon Sariak*, un recueil de chants de Noël adaptés pour le théâtre. En 1774 il a créé à Bergara (Guipuscoa) *El Borracho Burlado* (« L'ivrogne moqué »), son œuvre la plus célèbre. C'est une pièce comique à morale, qui entremêle texte en basque et texte en espagnol dans un langage simple.

Cependant, comme le dit Patri Urkizu dans son ouvrage *Euskal Teatroaren Historia* (« Histoire du théâtre basque », Kriselu, 1975), « le théâtre de cette époque ne se réduit pas au théâtre populaire de Soule ou aux œuvres créées par les petits chevaliers d'Azkoitia ». Il semblerait que le théâtre était bien plus répandu que ce que l'on croit. Aux XVIII<sup>e</sup> et XIX<sup>e</sup> siècles, il y avait au Pays basque des entrepreneurs qui faisaient la promotion du théâtre. *Zalamea'ko Alkatia* (« Le maire de Zalamea ») de Calderón de la Barca. Le théâtre Coliseo de Pampelune avait une offre théâtrale riche tout au long de l'année, tout comme de nombreuses autres localités. Mais rien de tout cela n'a laissé de traces, nous ne disposons d'aucune de ces œuvres créées ou mises en scène à cette époque.

La principale référence du théâtre basque est Marcelino Soroa. Dans sa jeunesse, il a participé à l'organisation de spectacles au cirque de la rue Andia de Saint-Sébastien avec un groupe d'amis. Après avoir dû s'exiler à Ziburu (Labourd/Lapurd), il a continué son travail théâtral au sein d'un groupe où participaient d'autres exilés, comme Toribio Alzaga, qui n'était encore qu'un gamin. En 1876, Soroa a créé la pièce *Iriyarena* Il a écrit ou adapté de nombreuses pièces de théâtre, entre autres *Gabon* (1880), *Antton Kaiku* (1882), *Au ostatuba* (« Quelle auberge ! ») (1884), *Alkate berriya* (« Le nouveau maire », 1884), *Urrutiko intxaurrak* (« Beaucoup de bruit pour rien », 1886) et *Abec Istillubac !* (« Quelle pagaille ! », 1889), grâce auxquelles il a remporté plusieurs prix.

Mais le travail de dramaturge de Soroa a alimenté un débat vieux de quelques années, qui remettait en question le théâtre local qui ne serait que



besteak beste, *Gabon* (1880), egokitutako *Antton Kaiku* (1882), *Au ostatuba* (1884), *Alkate berriya* (1884), *Urrutiko intxaurrak* (1886) eta *Abec Istillubac!* (1889). Lan horiekin garaiko Donostiako antzerki-lehiaketa ugari irabazi zituen.

Baina, Soroaren euskal antzerkiarekin batera, urte askoan bizirik iraun duen eztabaida azaleratu zen, hau da, dibertimendu hutseko tokiko antzerkiaren eta unibertsalaren, hots, sakonagoa den antzerkiaren artekoa. Azpimarratzekoa da, edozein modutan, euskararekiko zaletasuna aldarrikatzen zen garai hartan, antzerkia egitearen arrazoi garrantzitsuenetako bat euskara sustatzea zela. Herritar gehienak alfabetatu gabeak ziren, baina antzerkiari esker guztiak beren hizkuntza propioan gozatzeko eta ondo pasatzeko aukera zuten. Hori dela eta, euskaraz prestatutako umorezko ikuskizunak biziki bultzatu zituzten herrietan.

Soroarena talde eraginkorra izan zen. Taldekide zen Victoriano Iraolak hainbat antzezlan idatzi zituen, umoretsuak gehienak. Garai hartan, Pepe Artola aktorea bakarrizketa xelebreak eginez ospetsu egin zen. Serafin Baroja, Pío Barojaren aitak, opera laburrak idatzi zituen euskaraz, hala nola *Pudente* (1879), *Hirni ama alabac* (1882) eta *Amairu Damatxo* (1904). Urte haietan Donostian antzerkiak izandako ikaragarritzko gorakadan Euskal Fedea antzerki-taldeak eta inguruan sortutako mugimenduak zeresan handia izan zuten.

Iparraldean antzerkiak bere bidea jarraitu zuen eta, tradizioei eutsiz, herrietan egiten zuten. 1884an, Joanes Etxeberri *Arraultze Ohoina* eskoletako neskatxoek antzezteko idatzitako pieza laburra<sup>4</sup>. Joanes Etxeberri Iparraldeko lehen antzerki-idazlea dela esan daiteke.

## XX. MENDEKO ANTZERKIA


### LEHENENGO MENDE ERDIA

Toribio Alzaga (Donostia, 1861-1941) izan zen euskal antzerkiaren sustatzaile garrantzitsuenetakoa. Marcelino Soroaren lekukoa hartu, eta bere taldearekin antzezlan ugari taularatu zituen Donostian zein Gipuzkoako herrietan, eta euskal antzerkiarekiko zaletasuna indartzen lagundu zuen. Aldi berean, antzerki-testuak argitaratu ziren, hainbestearaino ezen *Euskalerrriaren alde* kultura-aldizkariak, 1912. urtean, sail berri bat sortu zuen, non Alzaga, bere adiskide Abelino Barriola, Bitor Garitaonaindia, José Elizondo, Katalina Eleizegi, José Olaizola eta beste zenbait sortzaileren antzerki laburrak irakurri ahal izan ziren.

Donostiako Udaleko zinegotzi zen Barriolaren babesari esker, Tabakalerako egoitzan, Donostiako Euskal Iztundea edo Euskal Deklamazio Eskola abian jarri, eta bertako buru Alzaga izendatu zuten. Eskola horren helburuak bi ziren: batetik, euskara ikastea; bestetik, euskal antzerkiaren maila sendotzea, aktoreengandik eta egileengandik hasita, antzerki-lanen maila igo eta publiko kritikoagoa zein *jantziagoa* elikatu arte, antzerki euskaltzalea eta dibertigarria egiteaz gain, goi-mailako antzezlanak modu duinean ekoitzi nahi zituzten.

Alzagak Pierre Lotiren *Ramuntxo* drama egokitu zuen, tartean William Shakespeareren *Macbeth* itzuli eta egokitu zuen. Alzagaren asmoa euskal antzerkia munduari begira jartzea zen, kezka unibertsalei begira, eta ez soilik ohikoak edo tipikoak ziren denbora-pasa moduko antzerkiarekin konformatzea.

5. Marcelino Soroaren *Anton Kaiku* obraren alea, 1882.



5. Édition d'*Anton Caicu* de Marcelino Soroa, 1882.

## LE THÉÂTRE DU XX<sup>E</sup> SIÈCLE

### LA PREMIÈRE MOITIÉ DU XX<sup>E</sup> SIÈCLE

Toribio Alzaga a été l'un des principaux instigateurs du théâtre basque. Après avoir pris le relais de Marcelino Soroa, il a mis en scène avec sa compagnie de nombreuses pièces de théâtre et a ainsi contribué à renforcer le goût du théâtre à Saint-Sébastien et dans le reste du Guipuscoa. Parallèlement, il y a eu tant de pièces de théâtres que la revue culturelle *Euskalerrriaren alde* a créé une nouvelle section en 1912, dans laquelle on pouvait lire de courtes pièces de théâtre d'Alzaga et de ses amis Abelino Barriola, Bitor Garitaonaindia, José Elizondo, Katalina Eleizegi, José Olaizola et d'autres auteurs.

Grâce au soutien de Barriola, conseiller municipal de Saint-Sébastien, l'École de théâtre basque de Saint-Sébastien a vu le jour dans le bâtiment de l'actuel Tabakalera, et dont Alzaga était directeur. Cette école avait deux objectifs principaux : d'une part, enseigner le basque, et d'autre part, de consolider le niveau du théâtre basque, en commençant par le niveau des

divertissement par rapport au théâtre plus profond et plus cosmopolite. Quoiqu'il en soit, il faut rappeler qu'à cette époque une des raisons les plus importantes de faire du théâtre était de promouvoir la langue basque. La majorité de la population était analphabète et le théâtre permettait à tous de s'amuser dans leur propre langue. C'est pourquoi on a organisé beaucoup de spectacles humoristiques en basque dans tous les villages du pays.

Soroa avait un groupe d'amis très actifs. Un des membres, Victoriano Iraola, a écrit plusieurs pièces, principalement humoristiques. Serafin Baroja, le père de Pío Baroja, a écrit de courts opéras en basque, comme *Pudente* (1879), *Hirni, ama alabac* (« Hirni, mère et fille », 1882) et *Amairu Damatxo* (« Treize demoiselles », 1904). La compagnie de théâtre Euskal Fedea et le mouvement qui a vu le jour autour d'elle ont eu beaucoup à voir avec le spectaculaire essor que le théâtre a connu durant ces années-là à Saint-Sébastien.

Au Pays basque du Nord le théâtre était toujours en lien avec les traditions locales. En 1884, Joanes Etxeberri a écrit *Arraultze Ohoina* (« Le voleur d'œufs »), une courte pièce pour être jouée par les écolières<sup>4</sup>. Joanes Etxeberri peut être considéré comme le premier auteur de théâtre du Pays basque du Nord.

Altzaga eta bere kideek, lanean hasi eta berehala, antzezlan-errepertorio zabal prestatu zuten eta Euskal Herrian barrena antzeztu zituzten, beren lanik arrakastatsuen Katalina Eleizegiren *Garbiñe*<sup>6</sup> izan zen, euskal historiarekin eta euskal senarekin erabat konprometitutako lana. Dokumentazio oso zehatza zuten maila handiko drama historikoak idatzi zituen Eleizegik, bera izan zen gainera antzerkia euskaraz idatzi zuen lehen emakumea. Bere lan gehienetan Euskal Herriko historia eta maitasuna nahasten dira, *Garbiñe* (1917), *Loreti* (1918), *Gaine* (1929), *Yatsu* (1934), *Erausoko Kateriñe* (1962) eta amaitu gabe utzi zuen *Roldan* (1963) dira argitaratu edo estreinatu ziren bere lan batzuk.

Hegoaldeko euskal antzerkia Bigarren Errepublikara garaian berrindartu egin zen. Talde-lana eta kolektibitate-izaera baliotsua zituen. Ondo pasatzeko eta ondo pasarazteko jarduera zen. Belaunaldi ezberdinak bateratzen zituen eta balioak zabaltzen zituen. Oro har, euskara eta euskaltzaletasuna indartzeko tresna biziki indartsua bihurtu zen. Hirietan hauspotutako antzerki-zaletasuna herri askotara zabaltu zen, eta publiko leiala izan zuen.

1932an *Antzerti* aldizkariak, Antonio María Labayen zuzendari zela, antzerki-testuen lehiaketa jarri zuen abian. Ondoren, 1934an Eusko Antzerti Eguna ospatzen hasi ziren. Lehen urte hartan, talde gehienak gipuzkoarrak ziren, baina Lekeitioko talde batek ere parte hartu zuen. Ekimenak sekulako arrakasta izan zuen. Sari-banaketa, San Telmo Museoa ospatzen zen, eta ondoren Victoria Eugenia eta Kursaal antzokietan antzerki-emanaldiak hasten ziren eta asteetan ikusgai egoten ziren. Hiru jaialdi ospatu ziren 36ko gerra hasi aurretik; besteak beste, parte hartu zuten Ordizia, Ondarrea, Irura, Tolosa, Oiartzun, Urnieta, Soralueze, Pasaia, Andoain, Azkoitia, Irun, Zumaia eta Hernaniko taldeek. Jende ugari geratzen zen antzokiaren atarian sartu ezinik. *Antzerti* aldizkariak, bost urtetan, berrogeita hamar antzezlan baino gehiago argitaratu zituen.

Bizkaian, berriz, Resurrección María Azkuek antzerkia sustatzeko ahaleginak egin zituen. Manu Sotak antzerkia euskaltasunaren propaganda egiteko tresna gisa erabili zuen. Esteban Urkiaga *Lauaxeta*, Zeferino Jemein eta beste eragile gehiago ere aritu ziren antzerkia egiten. Eli Gallastegiren eta José María Uzelairen lanak antzeztu zituzten, baita Sabino Aranaren *Libe* (1902) eta Arturo Campionen *Pedro Mari* (1918) ere. *Euzkadi* aldizkarian *Asarre-aldija* (1931) eta *Epaya* (1932) Lauaxetaren antzezlanak<sup>6</sup> argitaratu ziren. Ahalegin horiei esker, antzerki-zaletasuna Bizkai osora zabaltu zen:

6. Toribio Altzaga Eibarren aktore-taldearekin, *Ramuntxo* antzezlanaren aurkezpena izan zela eta. 1923.

7. Katalina Eleizegiren *Garbiñe* (1916) obrako aktorea.

8. *Antzerti* aldizkariaren lehenengo alearen azala, 1932ko urtarrikolekoa, Jon Zabalo Txikiaren ilustrazioarekin.



6

6. Toribio Altzaga avec la troupe d'acteurs à Eibar, à l'occasion de la représentation de *Ramuntxo*. 1923.

7. Actrice de la pièce *Garbiñe* (1916) de Katalina Eleizegi.

8. Couverture du premier numéro de la revue *Antzerti*, janvier 1932 ; illustrations de Jon Zabalo Txiki.



7

acteurs, des auteurs et des pièces elles-mêmes, dont la qualité maximale exigeait des productions plus dignes, afin d'atteindre un public critique et cultivé et un théâtre bascophile et divertissant.

Altzaga a traduit et adapté plusieurs pièces, comme *Ramuntxo* de Pierre Loti, et *Macbeth* de William Shakespeare. Il voulait que le théâtre basque élargisse son regard et s'ouvre sur le monde plutôt que de se cantonner au théâtre de divertissement courant à cette époque. Altzaga et ses camarades ont composé un répertoire de pièces de théâtre assez large pour pouvoir donner des représentations dans tout le Pays basque. La pièce ayant connu le plus grand succès a été *Garbiñe*<sup>6</sup> de Katalina Eleizegi, une pièce engagée sur l'histoire du Pays basque et l'âme basque. Eleizegi a écrit de grands drames historiques très documentés, et a été la première femme à écrire des pièces de théâtre en basque. Dans la plupart de ses œuvres, elle entremêle l'histoire du Pays basque et l'amour ; *Garbiñe* (1917), *Loreti* (1918), *Gaine* (1929), *Yatsu* (1934), *Erausoko Kateriñe* (« Catalina de Erauso » 1962) et la pièce inachevée *Roldan* (1963) sont quelques une des ses pièces publiées ou jouées.

Au Pays basque Sud le théâtre a repris de la vigueur durant la Seconde République espagnole, à une époque où les valeurs collectives et le travail d'équipe se sont consolidés. Le théâtre de l'époque permettait à différentes générations de se divertir et de passer un bon moment, mais c'était aussi un outil très puissant pour renforcer la langue basque et l'attachement à la langue. Le goût pour le théâtre dans les villes s'est répandu dans de nombreux villages, et bientôt s'est constitué un public qui est resté fidèle.

La revue *Antzerti*, dirigée par Antonio Labayen, a lancé en 1932 un concours de textes théâtraux. Deux ans plus tard, en 1934, on a célébré pour la première fois la Journée du théâtre basque. Pour la première édition, la plupart des troupes étaient du Guipuscoa, mais un groupe de Lekeitio



8

Getxo, Durango, Mungia, Lekeitio, Bermeo eta beste herri askotan antzerkiak garrantzi handia hartu zuen. Baziren musikatuak –opera txikiak eta zarzuelak– edota antzezlan dramatikoak edo umoretsuak; batzuk gaztelaniaz, beste batzuk bi hizkuntzak modu xeblean nahasten zituzten eta euskarari zor zitzaion lekua berreskuratzeko ahalegina egiten zutenak ere baziren.

Iparraldean, berriz, antzerki-adierazpen tradizionalaz gain, Lehen Mundu Gerraren ondoren, herrietan antzerki talde txoak sortzen hasi ziren Elizaren babesean. Antzezlan gehienak komedia arinak ziren. 1921ean, kazetari gazte batzuek eta apaiz abertzaleen talde batek Baionan sortu zuten *Eskualduna* aldizkarian argitaratu zituen garai hartako idatzi eta antzeztu ziren hainbat antzezlan. 1939an, 36ko gerraren ondorioz, aldizkariak argitaratzeari utzi zion, 1950etik 1976ra berriro kaleratu zuten; bigarren garai hartan, beste askoren artean, Piarres Lartzabal eta Telesforo Monzón izan ziren sustatzaileak.



9. Esteban Urkiaga  
*Lauaxeta* (1905-1937).

#### DIKTADURA-GARAIA: HERRI-ANTZERKIA

Diktaturaren lehen hamarkadaren ondoren, poliki-poliki, antzerkia berpiztu egin zen. Donostian, Toribio Altzagak Euskal Iztundean utzitako hutsunea bere ikasle eta taldekide izandako Maria Dolores Agirrek bete zuen, euskal antzerkiaren dama zenak. 1953an, Santo Tomas egunean, *Ramuntxo* antzez-lana estreinatu zuten Donostiako Kursaal aretoan. Ordutik aurrera, ia urtero, antzezlan bat taularatzen zuten, gehienetan Donostiako Antzoki Zaharrean. Azken emanaldia 1970ean izan zen.

Donostiako mugimendu hark antzerkia berpiztu zuen Gipuzkoako hainbat herritan, gehienetan elizaren babesean, talde ugari aritu zen antzezlanak prestatzen, ohikoena beren herrietan urtean hiruzpalau emanaldi egitea zen. Nemesio Etxaniz eta nola ez Antonio Labayen izan ziren garaiko antzerki-sustatzaile eta antzerkigile nabarmenenak. Labayenena da «txikia baina gurea» euskal antzerki herrikoia balioesteko esaera. Askotan, Labayenek antzerki-taldeen eskaerei erantzunez idazten zituen antzezlanak, hala nola *Mateo txistu* (1932), *Irunxeme* (1935), *Jostuna* (1956), *Jokua ez da errenta* (1960) eta *Domejon de Andia Gipuzkoa'ko erregia* (1965).

Emakumezkoek eragin handia izan zuten herrietan sortu ziren antzerki-taldeetan eta haien antolaketan. Urnietan, esate baterako, Maria Arizmendik Egi-Bila taldea sortu zuen. Urteetan aritu ziren lanean, gehienetan Labayenek haien idatzitako testuak taularatu. Miren Arrizabalagak, bere aldetik, Ondarroan itzal handia izan zuen. Elizaren babespean antolatzen ziren antzerki-talde haien helburu nagusietakoak euskara eta gizarte abertzalearen espirtua bizirik mantentzea ziren. Beste hainbat herritan ere sortu ziren antzerki herrikoia egiten zuten taldeak, esate baterako, Hernanin eta Tolosan. Intxixu taldea nabarmendu zen Oiartzunen.

Bizkaian, 1951n, Txinpartak kultura-taldea sortu zen. Iñaki Garmendia Fanoren zuzendaritzapean, taldeak zenbait antzerki herriko taularatu zituen Bizkaian eta Gipuzkoan barrena. Dantza, korua eta antzerkia erabiltzen zituzten euskara eta euskal kultura zabaltzeko. Augustin Zubikaraik Ondarroako Kresala taldeak taularatu zituen antzezlanetako asko idatzi zituen:

9. Esteban Urkiaga  
*Lauaxeta* (1905-1937).

(Biscaye) aussi y a participé. L'événement a connu un très grand succès. Après la cérémonie de remise des prix au Musée San Telmo, les représentations ont eu lieu au théâtre Victoria Eugenia et au Kursaal durant plusieurs semaines. Trois autres éditions du festival ont eu lieu avant la guerre d'Espagne dans lesquels ont participé, entre autres, des groupes d'Ondarroa (Biscaye) et des groupes de nombreuses localités du Guipuscoa : Ordizia, Irura, Tolosa, Oiartzun, Urnieta, Soralueze, Pasaia, Andoain, Azkoitia, Irun, Zumaia et Hernani. La salle de théâtre affichait complet, et de nombreux spectateurs n'ont pu y entrer. La revue *Antzerti* a publié plus de cinquante pièces de théâtre en cinq ans.

En Biscaye, Resurrección María Azkue a principalement travaillé pour promouvoir le théâtre; Manu Sota s'en est servi comme outil de propagande en faveur de l'identité basque; Esteban Urkiaga *Lauaxeta*, Zeferino Jemein et quelques autres, ont interprété plusieurs pièces d'Eli Gallastegi et José María Uzelai, ainsi que *Libe* (1902) de Sabino Arana et *Pedro Mari* (1918) d'Arturo Campion. La revue *Euzkadi* a publié deux œuvres de Lauaxeta<sup>9</sup> *Asarre-aldija* (« L'emportement », 1931) et *Epaya* (« La sentence »). Ainsi, le goût pour le théâtre s'est répandu dans toute la Biscaye. Le théâtre est devenu très important à Getxo, Durango, Mungia, Lekeitio ou Bermeo. On jouait des pièces lyriques (des opérettes et des zarzuelas) ou des pièces dramatiques ou humoristiques; certaines étaient en espagnol, d'autres dans les deux langues, dans un mélange comique, et il y avait aussi des œuvres dans lesquelles la langue basque occupait la place la plus importante.

Au Pays basque du Nord, après la Première Guerre Mondiale, outre le théâtre traditionnel, des petites troupes de théâtre ont vu le jour sous l'égide de l'Église. Généralement les pièces de théâtre étaient des comédies légères. En 1921, de jeunes journalistes et quelques curés nationalistes ont créé le journal *Eskualduna* à Bayonne, qui a publié de nombreuses pièces de théâtres de l'époque. En 1939, suite à la guerre civile espagnole, le journal a cessé d'être publié, puis il est revenu dans les kiosques entre 1950 à 1976. Lors de cette deuxième époque, Piarres Lartzabal et Telesforo Monzón ont collaboré au journal.

#### LA DICTATURE ET LE THÉÂTRE POPULAIRE

Après une décennie sous la dictature, le théâtre a, peu à peu, revu le jour. En 1953, le jour de la San Tomas, on a joué la première de la pièce *Ramuntxo* au Kursaal de Saint-Sébastien, et depuis, chaque année une pièce de théâtre a été mise en scène, généralement au Théâtre Antzoki Zaharra de Saint-Sébastien. La dernière représentation a eu lieu en 1970.

Ce mouvement de Saint-Sébastien a ravivé le théâtre dans de nombreuses localités du Guipuscoa, où trois ou quatre pièces étaient jouées chaque année, habituellement sous l'égide de l'Église. Nemesio Etxaniz et Antonio Labayen ont été les promoteurs de théâtre et les auteurs les plus remarquables de l'époque. La formule « txikia baina gurea » (modeste mais nôtre) qui caractérise le théâtre basque est de Labayen. Souvent, ce dernier écrivait des pièces de théâtre sur commande des troupes de théâtre elles-mêmes, ainsi, *Mateo txistu* (1932), *Irunxeme* (1935), *Jostuna* La Couturière (1956), *Jokua ez da errenta* (« Le Jeu n'en vaut pas la chandelle » 1960) et *Domejon de Andia Gipuzkoa'ko erregia* (« Domejon de Andia le roi de Guipuscoa » 1965).

Les femmes ont eu une influence majeure dans les troupes de théâtre des différents villages et sur leur organisation. Ainsi, à Urnieta (Guipuscoa),



*Seaska inguruan* (1957), *Jaunaren bidetan* (1959), *Errekonduan* (1969) eta *Lurrunean* (1970), besteak beste.

Iparraldean, bi gerrateen ondoren, antzerkia indartzen hasi zen. Piarres Lartzabal, Sokoako apaiza, izan zen antzerki-idazlerik oparoena. 1951n *Etxahun* antzezlan idatzi zuen, eta baita ehundik gora testu gehiago ere, haien artean, *Xirristi Mirristi* (1952) –Daniel Landartek urte batzuk beranduago antzezlan hura egokituta taularatu zuen Xirristi-Mirristi taldearekin, eta muntaia hark Iparraldeko euskal antzerkian eragin handia izan zuen–, *Bordaxuri*, (1952), *Senperen gertatua*, (1964), *Orreaga. Pastoral gisarako ikusgarria* (1964), *Ibañeta* (1968) eta *Matalas* (1968). Lartzabal Parisen ibilia zen eta bertan ikusitako antzerki-berrikuntzak, bere modura, euskal antzerkira ekarri zituen. Antzerkigile sutsua, 1950eko hamarkadatik aurrera Iparraldeko euskal antzerkiaren sustapenaren eragile nagusia izan zen.

Donostian, Euskal Iztundek euskal kultura eragiten jarraitu zuen; Maria Dolores Agirre zuzendaria 1979an erretiratu zen eta Jose Mari Etxebeste bere taldeko aktore nagusiak hartu zuen lekukoa. Azken urte haietan hirurogei aktoretik gora aritu ziren eskolan.



10. Txinpartak antzerki-talde bizkaitarra *Jai aurrekoa* antzezlan jokatzen. Caracas, 1954.

11. Rabindranath Tagoreren *Amal* antzezlan. Joxe Mari Etxebeste eta Rosa Arruabarrena aktoreak daude taula gainean. Euskal Iztundea. Donostiako Antzoki Zaharra, 1962.



Maria Arizmendi a créé le groupe Egi-Bila, qui, pendant de nombreuses années, a représenté des pièces écrites par Labayen expressément pour le groupe. Pour sa part, Miren Arrizabalaga a eu une grande influence à Ondarroa (Biscaye). Le principal objectif de toutes ces troupes de théâtre organisées sous l'égide de l'Église était de maintenir vivants la langue basque ainsi que le caractère de la société nationaliste. Des troupes qui faisaient du théâtre populaire ont vu le jour dans de nombreuses localités, comme à Hernani, Tolosa ou la troupe Intxixu à Oiartzun (Guipuscoa).

En 1951, le groupe culturel Txinpartak a vu le jour en Biscaye, qui sous la direction d'Iñaki Garmendia Fano, a représenté plusieurs pièces populaires à travers la Biscaye et le Guipuscoa. C'est par le biais de la danse, du chant et du théâtre qu'ils diffusaient la langue et la culture basques. Augustin Zubikarai a écrit de nombreuses pièces jouées par la troupe Kresala d'Ondarroa (Biscaye) : entre autres, *Seaska inguruan* (« Autour du berceau », 1957), *Jaunaren bidetan* (« Sur les voies du Seigneur », 1959), *Errekonduan* (« Au bord de la rivière », 1969) et *Lurrunean* (« Sous les vapeurs », 1970).

Au Pays basque du Nord, le théâtre a gagné de l'importance après les deux guerres mondiales, grâce, entre autres, à Piarres Lartzabal, curé de Sokoia (Labourd) et écrivain prolifique de pièces de théâtre. En 1951 il a écrit la pièce *Etxahun*, ainsi que plus d'une centaine de textes, dont *Xirristi Mirristi* (1952) – pièce adaptée quelques années plus tard par Daniel Landart et jouée par la troupe Xirristi-Mirristi qui a eu un grand impact sur le théâtre du Pays basque du Nord –, *Bordaxuri*, (1952), *Senperen gertatua*, (« C'est arrivé à Saint-Pée », 1964), *Orreaga, Pastoral gisarako ikusgarria* (« Orreaga, Spectacle à la façon de la pastorale », 1964), *Ibañeta* (1968) et *Matalas* (1968). Lartzabal connaissait bien Paris, et, à sa manière, il a voulu introduire dans le théâtre basque les nouveautés théâtrales qu'il y avait découvert. Le fervent auteur de pièces de théâtre fut le principal promoteur du théâtre basque au Pays basque du Nord à partir des années 1950.

À Saint-Sébastien, l'École de théâtre a continué à exercer son autorité sur la culture basque lorsque, en 1979, sa directrice Maria Dolores Agirre a pris sa retraite et a passé le flambeau à Jose Mari Etxebeste, l'acteur principal de l'école. Durant les dernières années d'activité de l'école, plus de soixante acteurs y ont été accueillis.

## LE THÉÂTRE NOVATEUR : LES ANNÉES 1960 ET 1970

Vers le milieu des années 1960, un mouvement révolutionnaire s'est diffusé dans toute l'Europe et a eu en effet immédiat dans les domaines de l'art et de la création, y compris dans celui du théâtre, dont le langage et l'esthétique se sont, dans ce contexte, radicalement renouvelés.

Ces courants novateurs sont arrivés jusqu'au Pays basque, et face au théâtre traditionnel et populaire basé sur les valeurs chrétiennes et nationalistes des siècles précédents, de nombreux groupes de jeunes se sont mis à faire un théâtre plus moderne. La troupe Jarrai de Saint-Sébastien a été le fer de lance de ce mouvement novateur.

Voici ce que dit Idoia Gereñu dans sa thèse sur la troupe Jarrai : « Elle a brisé tous les canons, et a fait parler les auteurs les plus avant-gardistes en basque, langue qui était alors relégué à l'intimité de la maison ».

Au début, la troupe Jarrai a mis en scène les œuvres de Piarres Lartzabal, Nemesio Etxaniz et Xabier Lizardi, sous la direction d'Iñaki Beobide.

ANTZERKI BERRITZAILEA: 1960 ETA 1970EKO HAMARKADAK

Antzerkiak, oro har, 1960ko hamarkada aldera sekulako aldaketa bizi izan zuen. Europa osoan mugimendu iraultzailea eta berritzailea zabaldu zen, eta aldaketa haiek sorkuntzan eta artean berehalako eragina izan zuten. Testuinguru hartan antzerki-hizkuntzak eta -estetikak aldaketa sakona bizi izan zuten.

Haize berritzaile haiek Euskal Herrira ere iritsi ziren, eta aurreko mendeetatik jasotako antzerki tradizional, herrikoi eta balio kristauegan zein abertzaleetan oinarritutakoaren aurrean, hainbat gazte-talde antzerki modernoa eta berritzailea egiten hasi ziren. Donostian sortutako Jarrai taldea berrikuntza haien aitzindaria izan zen.

Idoia Gereñuk Jarrai taldeari buruz egindako tesian honakoa dio: «*Molde guztiak hautsi eta euskara, ordura arteko sutondoan gordetako hizkuntza xumea, punta-puntako autore abangoardisten hitzetan jarri zuen*».

Hasieran, Jarrai taldeak Piarres Lartzabal, Nemesio Etxaniz eta Xabier Lizardiren antzezlanak taularatu zituen, Iñaki Beobideren gidaritzapean. Taldekide izan ziren: Ramon Saizarbitoria idazlea, Karmele Esnal andereñoa eta Arantxa Gurmendi aktorea, besteren artean. Ordura arte egiten zen euskal antzerkia zaharkituta zegoela kritikatu, munduko antzerki berritzaileak ekarri zituzten, esate baterako, Tennessee Williams, Eugène Ionesco eta Alfonso Sastre egileenak. Bide batez, euskal antzerkigile berriei ere ahotsa eman zieten, hala nola Xalbador Garmendiaren *Historia triste bat* edo Gabriel Arestiren *Beste mundukoak eta zoro bat* taularatu zituzten. Arestik antzezlan hori Jarrai taldearentzat idatzi zuen, eta pertsonaia bakoitzari aktorearen beraren izena jarri zion. Herrietara ere zabaldu zen antzerki berritzailearen

**12.** *Matalas* antzezlaneko partaideak. Aurrean Piarres Lartzabal obraren egilea eta Telesforo Monzón. 1968.



**12.** Distribution de la pièce *Matalas*. Au premier rang l'auteur de la pièce Piarres Lartzabal et Telesforo Monzón. 1968.

Entre autres membres de la troupe, il y avait l'écrivain Ramon Saizarbitoria, l'enseignante Karmele Esnal et l'actrice Arantxa Gurmendi. Ils considéraient le théâtre basque qui se faisait jusqu'alors comme dépassé, et ils se sont mis à mettre en scène des œuvres d'auteurs modernes, tels que Tennessee Williams, Eugène Ionesco et Alfonso Sastre, sans oublier de donner la parole aux auteurs de théâtre basque, en mettant en scène la pièce *Historia triste bat* (« Une histoire triste ») de Xalbador Garmendia et *Beste mundukoak eta zoro bat* (« Ceux d'un autre monde et un fou ») de Gabriel Aresti. Ce dernier avait écrit cette pièce pour la troupe Jarrai, et a donné à chaque personnage le prénom de son acteur. Ce mouvement de renouveau s'est également étendu aux villages basques, où de nombreux groupes de théâtre ont été créés. Entre autres, Lourdes Iriondo du mouvement Ez dok Amairu a créé avec d'autres jeunes d'Urnieta (Guipuscoa) la troupe Buruntza, et à Oiartzun (Guipuscoa) la troupe Intxixu a débuté son parcours dans le domaine du théâtre physique et de l'expression corporelle.

Toute cette transformation de l'esthétique et même de l'essence du théâtre basque s'est heurtée au classicisme et aux mœurs anciennes, et a engendré une lutte entre le monde populaire et traditionnel d'une part, et le monde urbain et moderne d'autre part. Jusqu'alors la langue basque était inextricablement liée à la culture traditionnelle et religieuse, mais une rupture a eu alors lieu, car pour les traditionalistes le théâtre moderne était étranger au monde basque. Quoiqu'il en soit, cette rupture a eu un très grand impact sur la culture du pays.

Au Pays basque du Nord c'est Daniel Landart, disciple de Piarres Lartzabal, qui a été un des promoteurs du renouvellement du théâtre. Landart est l'auteur d'œuvres de grande importance, et a également créé le groupe Xirristi-Mirristi, qui, comme nous l'avons évoqué plus haut, a révolutionné la scène théâtrale du Pays basque du Nord. En 1968, le groupe a créé la pièce *Matalas* de Lartzabal, qui a remporté un grand succès.

Au Pays basque Sud, c'est Gabriel Aresti, écrivain de Bilbao qui a initié le mouvement pour moderniser le théâtre basque. En effet, il a tracé le chemin pour transformer conceptuellement le théâtre basque : il s'est inspiré des traditions pour créer un théâtre véritablement universel.

Plus tard, le début de la pièce de théâtre *Harrizko Aresti Hau* (« Cet Aresti de pierre ») mise en scène par la troupe Maskarada, reprenait un extrait de l'enregistrement d'une conférence que l'écrivain lui-même avait donnée à Hernani (Guipuscoa) :

*« La première chose à faire est de s'entendre sur la contemporanéité du théâtre. Il m'est souvent arrivé de penser que je ne suis pas contemporain des gens autour de moi. Il semblerait que si je vis au jour présent, beaucoup de mes contemporains vivent dans le passé, ou s'ils vivent au jour présent, je vis dans le futur.*

*Dans ces conférences, nous devons parler du théâtre actuel, de la manière d'enraciner sa contemporanéité chez les Basques. Ce qu'il y a, c'est que le théâtre basque actuel n'est pas contemporain, mais appartient au siècle passé. C'est pourquoi nous nous sommes réunis ici, afin de sortir une fois pour toutes de notre torpeur. Notre théâtre est moraliste, on pourrait croire que nous assistons à un sermon, même lorsqu'on est devant une comédie.*

*C'est notre première erreur. La seconde a été évoquée à maintes reprises : notre théâtre est petit, mais c'est le nôtre. Pourquoi rester dans une vile petitesse, alors que nous sommes capables de faire quelque*



mugimendua eta talde gazteak sortu ziren. Besteren artean, Ez Dok Amairu mugimenduko kide Lourdes Iriondok Urnietako hainbat gazterekin batera Buruntza taldea sortu zuen eta Oiartzungo Intxixu taldeak gorputz-adierazpenaren lanketari ekin zion.

Euskal antzerkiaren estetika- eta muin-aldaketak, ordura arte egiten zen antzerki klasikoarekin eta kostunbristarekin talka egin zuen. Bi euskal munduen arteko borroka sortu zen: euskal mundu herritar tradizionala alde batetik eta euskal mundu kaletar zein berritzailea bestetik. Ordura arte euskara kultura tradizionalari eta erlijiosoari lotuta bazegoen, lehen aldiz haustura gertatu zen. Haustura horrek sekulako eragina izan zuen euskal munduan, tradiziozaleentzat antzerki moderno hura ez baitzen euskalduna.

Iparraldean, Piarres Lartzabalen ikasle zen Daniel Lardart izan zen berrikuntzaren bultzatzaileetako bat. Landarten lanak garrantzi handia izan du euskal antzerkian. Xirristi-Mirristi taldearen sortzailea izan zen, eta talde horrek, arestian aipatu bezala, Iparraldeko antzerkia irauli zuen. 1968an, Baionan, Lartzabalen *Matalas* obra estreinatu zuten eta sekulako arrakasta izan zuten.

Hegoaldean, euskal antzerkia modernitatera eramateko urrats tinkoenak Gabriel Aresti idazle bilbotarrak eman zituen. Arestik euskal antzerkia kontzeptualki aldatzeko bideak urratu zituen: tradizioetatik xurgatu zuen benetako antzerki unibertsa sortzeko.

Gerora, Maskarada taldeak taularatutako *Harrizko Aresti Hau* antzezlanaren hasieran Arestik berak, 1962an, Hernanin egindako hitzaldi baten grabazioaren zati bat entzuten zen non idazleak honakoa zioen:

*«Lehenbizi egin behar dugun gauza, hau da: Batera, iritzi batera etorri behar dugu guztiok ea zer den teatroaren gaurkotasuna. Niri askotan pasatu zait ez naizela nire ingurukoen egun berean bizi. Badi-rudi ni gaurko egunean bizi banaiz nire inguruko asko atzoko egunean bizi direla, edo nire ingurukoak gaurko egunean bizi badira ni biharko egunean bizi naizela.*

*Hitzaldi hauetan gaurko teatroaz mintzatu behar da, nola erein teatroaren gaurkotasuna euskaldunen artean. Eta gertatzen da gaurko euskal teatroa ez dela gaurkoa, joan den mendekoa baizik. Horretarako bildu gara hemen, zahartasun zipriztin hori gure artetik behin eta betiko aldarazitzeko. Gure teatroa moralista da, badirudi sermoi edo prediku bat entzuten dugula, euskal komedia bat ikusten dugunean.*

*Hori da gure lehen akatsa. Bigarrena hau da. Askotan esan da: Teatro txikia, baina gurea. Zergatik sartuko gara txikitasun zeken batean, gauza haundiak egiteko kapaz garenean? Teatroa egin dezakegu, eztago horretan inolako inposibilitaterik, eztago horretan ezintasunik, zineman eta telebisioan dagoen bezala. Berdin kostatuko zaigu ona egitea edo txarra egitea, teatro haundia egitea edo teatro txikia egitea.*

*Beraz munduko teatroa estudiantu behar dugu, bertan zer ongi dagoen ikasi, eta bide horretatik abia. Jakin behar dugu nor den Ugo Betti, nor den Pirandello, nor den Williams, Miller, Brecht, Beckett eta Ionesco. Eta maisu hoetatik lezioak hartu.*

*Metodoak eta teatro egiteko bideak eta moduak asko aldatu dira azken urte hauetan. Moda berri hoek ikasi behar ditugu, eta gure teatroan aplikatu.*

*Komedietan eta trajedietan ikusten ditugun gauzak oso haltura gutxikoak dira. Horretan ere makal gabiltza. Gaurko problemak atera behar ditugu, jentekak, euskaldun jentekak pentsa dezan, gelditasun*

*chose de grand ? Nous pouvons faire du théâtre, rien ne nous en empêche, comme c'est le cas pour le cinéma ou la télévision. Faire un bon théâtre nous coûtera autant qu'en faire un mauvais, faire un grand théâtre autant qu'en faire un petit.*

*Nous devons donc étudier le théâtre qui se fait dans le monde, prendre note de ce qui s'y fait de bien et partir de là. Nous devons connaître Ugo Betti, Pirandello, Williams, Miller, Brecht, Beckett et Ionesco. Et apprendre d'eux.*

*Les méthodes et les procédés théâtraux ont beaucoup changé ces dernières années. Nous devons apprendre de tout cela, et l'appliquer à notre théâtre.*

*Les comédies et les drames que nous voyons ne sont pas de très bonne qualité. Dans cela non plus nous ne sommes pas en avance. Il faut parler des problèmes actuels, pour que le peuple basque puisse réfléchir, et ne soit pas la proie de l'immobilisme. Le théâtre peut combler de nombreuses lacunes de notre culture. Diffusons la culture basque par le biais du divertissement. Diffusons la culture basque avec les nouvelles cultures du monde, les nouveaux modes de vie, les nouvelles façons de penser, les nouveaux comportements. Nous devons renouveler la culture basque, et le théâtre est la manière la plus appropriée, la plus simple et la plus belle pour le faire ».*

Aresti a construit un langage dramatique absolument nouveau en ce qui concerne le regard, l'esthétique et les thèmes abordés. Ce n'est pas un hasard que Bilbao ait été l'épicentre de ce renouveau, car c'était la grande ville industrielle du Pays basque. Face au monde bucolique auquel tout basque s'identifiait, Bilbao revendiquait une identité basque associée au paysage industriel et aux luttes sociales. Aresti attachait une grande importance au théâtre, il était très lié au groupe Jarrai et a tenté de former un groupe similaire à Bilbao, mais celui-ci n'a pas duré bien longtemps. Il est l'auteur de pièces de théâtre comme *Mugaldeko herrian eginikako tobera* (« Le charivari du village frontalier »), qui a reçu le prix Toribio Altzaga de 1961 ; *Etxe aberatseko seme galdua eta Maria Madalenaren seme santua* (« Le fils perdu de la famille riche, et le saint fils de Marie Madeleine »), sortie en 1962 ; *...eta gure heriotzeko orduan* (« ...et à l'heure de notre mort »), mise en scène par le groupe Jarrai en 1963 ; *Justizia txistulari*, créée à Oiartzun (Guipuscoa) en 1965, dans laquelle a joué le poète et chanteur Xabier Lete ; *Oilarganeko etxola batean* (« Dans une cabane d'Oilargan »), en 1967 et *Beste mundukoak eta zoro bat* (« Ceux de l'autre monde et un fou »), en 1969.

Dans ce mouvement novateur qui a eu lieu à Bilbao et qui a impulsé la création du théâtre d'avant-garde basque, de nombreux autres écrivains, comédiens et acteurs culturels ont participé aux côtés d'Aresti. Entre autres, Atxaga qui a écrit pendant ces années-là plusieurs pièces de théâtre, la plupart à destination de la jeunesse : *Borobila eta Puntua* (« Le cercle et le point »), *Tripontzi jauna* (« Monsieur Glouton »), *Jimmy Potxolo eta Zapataria* (« Jimmy Poet le cordonnier ») et *Logalea zeukan Trapezistaren kasua* (« Le cas du trapéziste qui avait sommeil »), parmi d'autres. Ce mouvement avant-gardiste s'est développé au cours des dernières années du régime franquiste, années très difficiles où la lutte pour la langue, la situation sociale et politique, la censure, la répression et la soif de liberté ont déterminé la culture de toute une génération, et, évidemment, cela a également eu une influence sur le théâtre. Durant ces années tumultueuses, au Pays basque, plusieurs compagnies de théâtre indépendantes et engagées ont commencé

*estatiko batean ezta din para. Teatroarekin bete ditzakegu euskal kulturaren dauden hutsune asko. Euskal kultura parti dezakegu euskaldunen artean libersioarekin batera. Euskal kultura eta munduko kultura berriak, bizitza molde berriak, pentsaera eta portaera berriak. Euskal kultura berriztatu behar dugu, eta biderik egokiena, erraxena eta politena teatroa da».*

Aresti idazle bilbotarrak begiradari, estetikari eta gaiei dagokienez antzerki-lengoaia berri bat eraiki zuen. Ez da kasualitatea, gainera, Bilbo berrikuntza horren epizentroa izatea. Izan ere, Bilbo euskal hiri industrialaren zena. Hain zuzen, euskal mundu bukolikoaren parean, industria eta borroka soziala ere euskaldun zirela aldarrikatzen zuen hiria zen. Arestik antzerkiari benetako garrantzia ematen zion, Jarrai taldearekin harreman estua zuen eta Bilbon antzeko antzerki-talde bat osatzen saiatu zen, baina ez zuen luzaroan iraun. Honakoak dira idatzi zituen antzezlanak: *Mugaldeko herrian eginikako tobera* (1961eko Toribio Alzaga Saria); *Etxe aberatseko seme galdua eta Maria Madalenaren seme santua, ...eta gure heriotzeko orduan* (antzezlan hau Jarrai taldeak taularatu zuen 1963an); *Justizia txistulari* (Oiartzunen estreinatua zen 1965ean, bertan Xabier Lete poeta eta kantaria aktore-lanetan aritu zen); *Oilarganeko etxola batean* (1967); *Beste mundukoak eta zoro bat* (1969).

Bilboko mugimendu berritzaile hartan Arestirekin batera beste hainbat idazle, antzezle eta kulturagile aritu ziren antzerkiaren abangoardiako mugimendua bultzatzen, tartean Bernardo Atxaga. Atxagak urte haietan hainbat antzezlan idatzi zituen, taularatu ziren gehienak haurrei zuzendutakoak izan ziren: *Borobila eta Puntua*, *Tripontzi jauna*, *Jimmy Potxolo eta Zapataria* eta *Logalea zeukan Trapezistaren kasua*, besteak beste. Abangoardiaren aldeko mugimendu hura frankismoaren azken urte zailetan gertatzen ari zen, non hizkuntzaren aldeko ahaleginak, egoera sozialak eta borroka politikoak, zentsurak, errepresioak eta askatasun-egarriak belaunaldi oso baten kulturari eta, bereziki, antzerkiari eragin zioten. Urte nahasi haietan, Bilbon antzerki-konpainia independente eta konprometitu asko indartsu ari ziren lanean: Akelarre, Cómicos de la Legua, Geroa, Gaur, Cobaya, Kukubiltxo; Donostian, Orain taldea eta Teatro Estudio; Iruñean, El Lebril Blanco eta Gasteizen, Denok. Guztiek euskal antzerkiari bultzada tinkoa eman zioten, eta antzerkia profesionalizatzearen aldeko ahalegin berezia egin zuten. Tamalez, talde gehienetan euskararen presentziak ez zuen lehentasunik izan. Euskaraz egiten zituzten horietatik, gehienak haurrei zuzendutakoak ziren; helduei zuzendutako muntaiak, aldiz, ia beti gaztelaniaz. Aitzitik, euskaraz aritzen ziren taldeak amateur izaten jarraitu zuten eta herrietako bizitzan oso txertatuta zeuden taldeak izan ziren. Bi errealitate horiek gaur egungo euskal antzerkiaren oinarriak ezarri zituzten. Batetik, antzerki konprometitua, soziala, modernoa zein hiritarra eta, bestetik, euskaraz egindako antzerki amateurra, modernitateari begiratzen ziona.

**13.** Alex Angulo aktorea *Vivir por Bilbao*, Cómicos de la Legua taldearen obra jokatzeko, Sestaoko La Naval lantegian. Antzezlan langileen protesta-itxialdi baten testuinguruan aurkeztu zuten lantegian bertan. 1977.

**13.** L'acteur Alex Angulo dans la pièce *Vivir por Bilbao* (« Vivre par Bilbao ») de la compagnie Cómicos de la Legua. La pièce a été jouée à l'intérieur d'un entrepôt industriel de l'entreprise La Naval de Sestao (Biscaye), lors d'un mouvement d'occupation par les ouvriers. Sestao, 1977.

leur chemin : à Bilbao, les groupes Akelarre, Cómicos de la Legua, Geroa, Gaur, Cobaya et Kukubiltxo ; à Saint-Sébastien, les compagnies Orain et Teatro Estudio ; à Pampelune, El Lebril Blanco et à Vitoria-Gasteiz, la troupe Denok. Toutes ces compagnies ont donné une grande impulsion au théâtre basque, et ont permis d'avancer dans la professionnalisation du théâtre. Malheureusement, dans la plupart des groupes, la présence du basque était plutôt rare, et dans le cas de ceux qui travaillaient en basque, les œuvres qu'ils mettaient en scène étaient principalement destinées aux enfants, tandis que celles destinées aux adultes l'étaient presque toujours en espagnol. Mais les groupes qui créaient et jouaient en basque pour la plupart des amateurs, et étaient profondément enracinés dans la vie de leurs villages respectifs. Ces deux réalités ont posé les fondations du théâtre basque contemporain. D'une part la réalité du théâtre engagé, social, moderne et urbain, et d'autre part celle du théâtre amateur d'expression basque, tourné vers la modernité.



## 1980KO HAMARKADA: ANTZERKIAREN GARRANTZIA EGOERA POLITIKO BERRIAREN AURREAN

1980an Carlos Garaikoetxearen lehendakaritzapean Eusko Jaurlaritzaren lehen gobernuak martxan jarri zen. Dena egiteko zegoen, batez ere, euskararen inguruan egin beharreko guztia, horregatik ordura arte ezinezkoak izan ziren euskararen normalizaziorako politikak sustatu ziren. Gerra aurretik EAJren gobernuak hain hedatua zegoen ahozkoasuna sustatzeko antzerkia bultzatu zuen bezala, gobernu berriak euskal antzerkia ez zuen ahaztu. Hain zuzen, Antzerti Goi Mailako Arte Dramatiko Gunea jarri zuen martxan. Antzerki-eskola, Antzerti aldizkaria eta antzerki-testuak katalogatu eta argitaratzea izan ziren bere lehen eginkizunak. Horrez gain, ekoizpen publikoak gauzatu hasi ziren. Izan ere, Antzertik Euskal Zentro Dramatiko Nazionalaren hazia izateko xedea zuen. Madriletik, Kataluniatik eta atzeretik irakasle adituak gonbidatu zituzten, baina Euskal Herrian barrena lanean ari ziren antzerki-taldeekin ia ez zen harremanik egon, eta horrek tirabirak sortu zituen antzerki-konpainia independenteen eta lerro ofizialaren artean.

Antzertik, eskolako azken mailako ikasleekin hainbat muntaia egin zituen, besteak beste, Ferruccio Solerik zuzendutako Carlo Goldoniren *Arlekino, bi nagusiren serbitzari* (1983), Akelarre taldeko zuzendari izandako Luis Iturrik Euripidesen *Troiarrak* (1984) zuzendu zuen eta Luis Solak August Strindberg-en *Herio dantza* (1985). Dekoratu ikusgarriak, jantzi zainduak eta euskal antzerkian erabat berriak ziren alderdi teknikoak, artistikoak eta hizkuntzaren ingurukoak landu zituzten. Muntaia handiak ziren, euskal antzerkiak ordura arte egin gabeko ekoizpenak. Antzezlan haiek, bestalde, euskarara itzuli behar ziren, eta horretarako izen handiko idazle-enganara jo zuten. Haiek izan ziren hizkuntza dramatiko garaikidearen lehen urratsak. Baina, erabaki zehatz batek hizkuntzaren erabilerean eredia ezarri zuen. Ekoizpen haiek bi hizkuntzetan egitea erabaki zen: euskarazko bertsoa eta gaztelaniazkoa. Estreinaldiak euskarazko bertsoan egingo baziren ere, gaztelaniaren itzala handia zen. Hori izan zen gerora, batik bat Euskal Autonomia Erkidegoan ekoizpenetan zabalduz joan zen eredu linguistikoa: muntaia bera euskaraz eta gaztelaniaz egitea.

Demokraziaren lehen urte haietan, gizarte kultura aske baten egarri zen, eta Euskal Herrian, beste kultura-mugimenduekin batera, antzerki-sorkuntza indartsu garatu zen. Antzerki profesionalek sormen-garapena eta maila artistikoa sendotu zuten, batez ere gaztelaniaz, baita euskaraz ere haurrei zuzendutako ikuskinetan gehienbat. Garai hartan antzerkiaren ahots errebindikatzaileak sekulako garrantzia izan zuen askatasun-egarria zuen gizartean,

14. Antzerti aldizkariaren azala non Carlo Goldoniren *Arlekino, bi nagusiren serbitzari* obra euskaraz iragartzen den, Antzerti eskolako ikasleek 1983an taularatutakoa.



14

## LES ANNÉES 1980 : L'IMPORTANCE DU THÉÂTRE FACE À LA NOUVELLE DONNE POLITIQUE

En 1980, sous la présidence de Carlos Garaikoetxea, le premier Gouvernement basque a été mis en place. Tout était à faire, notamment concernant la langue basque, c'est pourquoi on a adopté les premières mesures de normalisation linguistique qui jusqu'alors étaient impossibles. À l'instar du gouvernement du PNV d'avant la guerre d'Espagne qui, par le biais du théâtre, avait encouragé et protégé la langue, le nouveau gouvernement de Garaikoetxea n'a pas non plus négligé le théâtre basque, et a fondé le Centre supérieur d'art dramatique Antzerti, dont les premières missions ont été la création d'une école de théâtre et de la revue *Antzerti*, ainsi que le catalogage et la publication de pièces de théâtre. Ils se sont également mis à réaliser des productions publiques. En effet, Antzerti avait l'intention d'être le germe du futur Centre dramatique national du Pays basque. Des professeurs de Madrid, de Catalogne et d'autres régions du monde ont été invités à participer au Centre, mais il n'y a eu pratiquement pas d'échanges avec les troupes de théâtre du Pays basque, ce qui a entraîné des querelles entre les compagnies de théâtre indépendantes et celles qui défendaient la ligne officielle.

Antzerti a monté plusieurs œuvres avec les étudiants de dernière année, comme, en 1983, *Arlequin valet de deux maîtres* de Carlo Goldoni mise en scène par Ferruccio Soleri ; en 1984, *Les Troyennes* d'Euripide mise en scène par Luis Iturri, qui avait auparavant dirigé le groupe Akelarre, et en 1985, Luis Sola a mis en scène *La Danse de mort* d'August Strindberg. Dans toutes ces productions les décors spectaculaires, les costumes élaborés, les éléments techniques, artistiques et linguistiques se sont démarqués par leur nouveauté sur la scène théâtrale basque. Les mises en scène étaient imposantes, les productions encore jamais vues. D'autre part, toutes ces œuvres devaient être traduites en basque, et pour ce faire, on s'adressait à des écrivains reconnus, qui ont posé les jalons du langage dramatique contemporain. Ainsi, toutes les œuvres ont été créées en basque et en espagnol, mais ce sont les versions espagnoles qui ont eu le plus grand impact. Et c'est précisément le modèle linguistique qui s'est imposé dans les productions théâtrales de la Communauté autonome basque, c'est-à-dire la réalisation bilingue de chacune des œuvres.

Lors de ces premières années de démocratie, la société aspirait à une culture libre, et au Pays basque, parallèlement à d'autres manifestations culturelles, la création théâtrale s'est développée de manière extraordinaire. Les professionnels du secteur ont atteint un niveau créatif et artistique notable, notamment celui d'expression espagnole, et également d'expression basque, en particulier dans le domaine des spectacles pour la jeunesse. L'esprit revendicatif du théâtre a été d'une grande importance à cette époque de luttes sociales pour la liberté, et le public a répondu très favorablement aux propositions scéniques, et a afflué en masse au théâtre malgré le peu d'infrastructures qu'il y avait alors.

Entre 1981 et 1982, les groupes Cobaya, Bekereke, Orain, Teatro Estudio, Geroa, Eterno Paraíso, Karraka, Tarima, Denok, Kukubiltxo, Trapu Zaharra, Titiriteros de Sebastopol, Hordago et Tanttaka se sont réunis en coordination sous le nom de Coordinadora de Grupos de Teatro Profesionales (en français, Coordination des troupes de théâtre professionnelles).

14. Couverture de la revue *Antzerti* annonçant la pièce *Arlequin serviteur de deux maîtres* de Carlo Goldoni, traduite en basque et interprétée par les élèves de l'école Antzerti en 1983.



ikusleek gogotsu erantzuten zieten taularatzen ziren proposamenei, eta jende ugari joaten zen emanaldietara, oraindik azpiegiturak oso eskasak izanda ere.

1981-1982an, honako garaiko talde profesional garrantzitsuenak Coordinadora de Grupos de Teatro Profesionales izenpean bildu ziren: Cobaya, Bekereke, Orain, Teatro Estudio, Geroa, Eterno Paraíso, Karraka, Tarima, Cooperativa Denok, Kukubiltxo, Trapu Zaharra, Titiriteros de Sebastopol, Hordago eta Tanttaka. Talde horiek Eusko Jaurlaritzarekin negoziatu nahi zuten, besteak beste, egitismo eta arrisku handiagoko antzerkia egiteko baldintzak lortzeko, eta beren lanak erakusteko zirkuitu duinak sortzeko. Arestian aipatu bezala, antzerki-politikaren kontrako ahots haiek oso gogor egin zieten gobernuaren erabakiei eta bereziki Antzertiren ereduaren aurka, zeren han ez baitzen talde haien iritzia eta ibilbidea kontuan hartzen. Talde profesional haiek aurrera egiteko zailtasun ekonomikoen aldean, Antzertiren ekoizpenetan xahutzen zenarekin alderatuz, kaltetuak sentitzen ziren. Antzerkiaren munduak talka egin zuen biziki erakundearen aurka.

Bestalde, Euskal Herrian antzerkia euskaraz egiten zuten taldeek ere beren elkarteak sortu zuten, EATB (Euskal Antzerki Taldeen Biltzarra), euskaraz egiten zen antzerkiak lehentasuna eta bere lekua izan zezan. Biltzarrean konpainia amateur garrantzitsuenak zeuden, gehienak Iparraldeko eta Gipuzkoako taldeak: Bordaxuri (Hazparne), Intxixu (Oiartzun), Irurak Bat (Garazi), Txotxongilo (Donostia), Aldudeko Taldea (Aldude), Goaz (Deba), Iturri (Irisarri), Taupada (Elgoibar), Intxurre (Alegia), TXO Taldea (Ondarroa), Ozti-barreko taldea (Baxe Nafarroa) eta Xirrixti-Mirrixti (Baiona). Antzerki-talde profesionalak ere bildu ziren EATBra: Bilboko Maskarada eta Kukubiltxo taldeak eta Iparraldean Koldo Amestoik sortutako Kimalaxo. Talde horiek

15. Kukubiltxo taldea  
*La exacta superficie del roble* (2009) jokatzeko.



15

Ces groupes avaient comme objectif de négocier avec le Gouvernement basque les conditions pour la création d'un théâtre qui prendrait plus de risques, et pour la mise en place d'un circuit de salles de théâtre qui leur permettrait de jouer leurs œuvres de manière plus digne. Comme évoqué plus haut, ces groupes critiquaient durement le Gouvernement qui ne tenait compte ni de leur avis ni de leur trajectoire. Ces troupes professionnelles se sentaient lésées par rapport à Antzerti pour qui, selon elles, le Gouvernement gaspillait de l'argent, et cela a provoqué une confrontation avec les institutions.

D'autre part, les groupes qui faisaient du théâtre en basque ont également créé une association, la EATB (en français, l'Association des compagnies de théâtre basque), afin que le théâtre qui se faisait en basque soit prioritaire et occupe la place qui lui revenait. Les principales compagnies d'amateurs faisaient partie de cette association, en majorité celles du Pays basque du Nord et du Guipuscoa : Bordaxuri, d'Hazparne (Labourd) ; Intxixu, d'Oartzun (Guipuscoa) ; Irurak Bat, de Saint Jean Pied-de-Port (Basse Navarre) ; Txotxongilo, de Saint-Sébastien. Quelques troupes professionnelles également composaient l'association EATB : Maskarada et Kukubiltxo de Bilbao ainsi que Kimalaxo du Pays basque du Nord, créé par Koldo Ameztoi. Tous voulaient devenir professionnels et compétitifs, et dénonçaient les problèmes auxquels ils devaient faire face pour pouvoir aller de l'avant : le manque de préparation des acteurs et l'absence de circuits professionnels, entre autres. Quoiqu'il en soit, comme les réalités, les situations et les besoins des membres du collectif étaient extrêmement différents, il leur a été très difficile de faire front commun.

Les troupes de théâtre bascophones n'étaient pas non plus d'accord avec les politiques culturelles du Gouvernement, notamment avec les mesures prises pour le secteur théâtral, et ont été très critiques envers lui. Le théâtre du Pays basque en langue basque a toujours connu beaucoup de difficultés pour atteindre un niveau professionnel, et ses membres se plaignaient du fait de survivre grâce au travail des professionnels et non pas grâce à l'aide des institutions<sup>7</sup>.

Le goût pour le théâtre et le besoin de professionnalisation ont fait bouger le secteur, et outre les troupes mentionnées plus haut, de nouvelles ont vu le jour. Ainsi, en 1983, le groupe Bederen 1 de Saint-Sébastien, composé de plusieurs élèves de l'école Antzerti, a débuté avec la pièce *Notre petite ville* de Thornton Wilder, plus tard, il a mis en scène *Erreleboa* (« La relève ») de Gabriel Celaya, et en 1989, *Gillermo Tellek triste ditu begiak* (« Guillaume Telle a les yeux tristes ») d'Alfonso Sastre, pièce jouée lors des rencontres d'Azpeitia (Guipuscoa). Le groupe a mis en scène de nombreuses pièces de théâtre, et était composé, entre autres, de Xabier Agirre, Ane Gabarain, Jose Ramon Soroiz, Enrique Salaberria, Maribi Arrieta, Eneko Olasagasti, Ana Miranda, Ramon Agirre, Inaxio Tolosa et Patxi Santamaria.

Dans les années 1980, le secteur du spectacle n'avait toujours pas d'infrastructures au Pays basque. Les théâtres des capitales programmaient principalement des pièces commerciales, et ne laissaient que peu de place au théâtre indépendant qui se faisait en langue basque ou en bilingue. Ainsi, le théâtre basque était contraint de jouer dans la rue, dans les salles polyvalentes ou dans les frontons. Ce n'étaient pas les endroits les plus propices pour faire du théâtre : il fallait s'adapter à l'espace, les sièges étaient inconfortables, il faisait froid, l'acoustique était mauvaise, et il était très difficile d'organiser ainsi un spectacle. Au fil du temps, la situation s'est améliorée à mesure qu'on ouvrait des espaces scéniques dans de nombreuses localités.

15. Grupo Kukubiltxo  
jouant la pièce *La exacta superficie del roble* (« La surface exacte du chêne », 2009).

guztiek lehiakorak izan nahi zuten eta aurrera egin ahal izateko gainditu beharreko arazoak salatu zituzten: aktoreen prestakuntza gabezia eta zirkuiturik eza, besteren artean. Dena dela, elkarteko kideen errealitateak, egoerak eta beharrak gehienetan oso desberdinak zirenez, borroka bateratu bat egitea oso zaila egin zitzairen.

Euskaraz ari ziren taldeak ere ez zetozen bat gobernuaren kultura-politikekin eta bereziki antzerki-politikarekin, horregatik talde haiek ere kritika zorrotzak egin zituzten. Euskaraz egiten zen euskal antzerkiak profesionaltasun-mailara iristeko zailtasun handiak zituen eta kexu ziren euskal antzerkia egileen ahaleginari esker irauten zuelako eta erakundeen babes falta zuelako<sup>7</sup>.

Zaletasunak eta profesionalizatzeko beharrak mugimenduak ekarri zituen eta, arestian aipatutako taldeez gain, talde berriak sortu ziren. Esate baterako, 1983an Bederen 1 taldea abian jarri zen, Antzerti eskolako ikasle-talde handi bat bildu eta Thornton Wilder-en *Gure herria* muntatu zuten, ondoren Gabriel Celayaren *Erreleboa* eta 1989an Alfonso Sastreren *Gillermo Tellek triste ditu begiak* estreinatu zuten Azpeitiko Topaketetan. Antzezlan mordoa taularatu zituzten. Taldekideak ziren: Xabier Agirre, Ane Gabarain, Jose Ramon Soroiz, Enrique Salaberria, Maribi Arrieta, Eneko Olasagasti, Ana Miranda, Ramon Agirre, Inaxio Tolosa eta Patxi Santamaria, besteak beste.

1980ko hamarkadan, Euskal Herrian emanaldietarako azpiegiturarik ez zegoen oraindik eraikita. Hiriburuetako antzoki nagusiek antzerki komertziala programatzen zuten batik bat, eta antzerki independentearantz –euskaraz edo ele bietan– ez zegoen ia lekurik. Hala, euskal antzerkiak bere lana erakusteko kalera, kiroldegietara edo frontoietara jo behar zuten. Ez ziren ez antzerkia egiteko ezta ikusteko lekurik aproposenak; arazo ohikoenak espazioa egokitu beharra, aulki deserosoak, hotza, muntaia egiteko zailtasunak eta akustika txarra ziren. Denboraren joanean egoera hura aldatuz joan zen eta herri askotan espazio eszeniko berriak zabaldu ziren. Hala ere, euskaraz egiten zen antzerkiak ez zuen lekurik hiriburuetan eta zirkuitu propioa sortu behar izan zuten herri txikiagoetan barrena. Aitzitik, talde haien asmoak ez zetozen bat talde profesionalen beharrekin. Bi errealitate paralelo ziren.

Sekulako lana egin zen hizkuntzaren normalizazioan, euskara *teknikoegiaren* kontra eta hizkuntza bizia sortzeko. Ikusle-engan gerturatzeko, taldeek eta bereziki aktoreek lan hura beren kabuz eta bakar-ka egin behar izan zuten. 1982an, Eusko Jaurilaritzak Euskal Irrati Telebista (EITB) martxan jarri zuen. Lehen urte haietan ez zen fikziorik egin, poliki-poliki haurrentzat zuzendutako saioetan esketxak sartzen hasi ziren. HABEk –helduen euskara eskolak biltzen dituen erakundea– euskara irakasteko tresnak sortu zituen eta haien artean *Bai horixe!* euskara irakasteko fikziozko bideoak

16. Patxi Larrainzarrek idatzitako *Navarra sola o con leche* (1977) obraren kartela. El Lebril Blanco talde nafarrak taularatu zuen, Valentín Redínen zuzendaritzapean.



16. Affiche de la pièce *Navarra sola o con leche* (« La Navarre avec ou sans lait », 1977) écrite par Patxi Larrainzar et représentée par El Lebril Blanco, une troupe navarraise dirigée par Valentín Redín.

Cependant, dans les capitales, le théâtre d'expression basque n'avait toujours pas sa place, et les troupes ont dû créer leur propre circuit dans les villes plus petites. Les intérêts de ces groupes ne s'accordaient pas avec les besoins des troupes professionnelles, ils étaient dans deux réalités parallèles.

Un travail acharné a été mené en faveur de la normalisation linguistique, afin de créer une langue vivante face à un basque trop technique. Les troupes, et surtout les acteurs, ont dû mener seuls ce travail, jusqu'à ce que, en 1982, le Gouvernement basque crée la radio-télévision publique basque (EITB). Durant les premières années, EITB ne produisait pas de fictions, mais peu à peu, ils ont diffusé des saynètes à destination du jeune public. Parmi les outils d'apprentissage de la langue basque créés par HABE (Institut d'alphabétisation et de réapprentissage de la langue basque aux adultes), il faut citer *Bai horixe!*, de courtes scènes de fiction sous format vidéo, sous la direction de Juan Miguel Gutiérrez, entre 1985 et 1988.

C'est à cette même époque que le cinéma basque faisait ses premiers pas avec les films *La Fuga de Segovia* (« La Fuite de Ségovie ») en 1981 et *La Muerte de Mikel* (« La Mort de Mikel ») en 1984, les deux réalisés par Imanol Uribe. Toujours en 1984, Anjel Lertxundi a réalisé le film *Kareletik* (« Par-dessus bord »), en langue basque ; en 1985, Javier Elorriaga, *Zergatik Panpox* (« Pourquoi, Panpox ? ») et Alfonso Ungría, *Ehun metro* (« Cent mètres »). Pour tous ces films, l'expérience engendrée au théâtre a beaucoup servi, notamment l'expérience des acteurs. Ainsi, de nombreux créateurs de diverses disciplines ont formé un solide réseau autour du cinéma, du théâtre et de la télévision.

En 1985 le Gouvernement basque a mis fin à Antzerti en raison des tensions qu'il y avait autour de ses politiques culturelles. Le travail de catalogue et la publication de la revue *Antzerti* se sont arrêtés, et l'école a fermé après que les étudiants de la première promotion ont terminé leur cursus. Dès lors, le Gouvernement a augmenté les subventions par le biais d'appels à projet pour la réalisation de productions en espagnol et en basque. Parallèlement, le Département de la culture du Gouvernement a encouragé l'attribution de subventions pour la création de circuits de spectacles et l'organisation de festivals de théâtre. Même si toutes ces mesures ont réussi à calmer les esprits, le théâtre basque s'est finalement retrouvé sans Centre dramatique national, tandis qu'en Catalogne, en Galice, en Andalousie et dans d'autres communautés autonomes, des Centres dramatiques ont vu le jour, qui sont à ce jour toujours en activité.

Dans l'univers du théâtre, le secteur le plus important et le plus actif est celui des acteurs. Le théâtre basque compte de nombreux acteurs et de haut niveau, qui, en 1989, ont créé l'Union des acteurs basques. Cette association a œuvré pour garantir des conditions fondamentales de travail, pour l'accompagnement dans la promotion, pour assurer la présence du secteur dans les institutions, pour revendiquer une dignité au travail d'acteur, et a également répondu à de nombreux autres besoins.

En Navarre, la troupe El Lebril Blanco a vu le jour en 1971, dans le but de faire du théâtre pour enfants ; deux ans plus tard elle s'est tournée vers le théâtre pour adultes. Dans les années 1980, la troupe et son directeur Valentín Redín, qui ont reçu de nombreux prix, sont devenus des références en Navarre, au Pays basque, et à l'étranger. El Lebril Blanco a mis en scène des œuvres de Federico García Lorca, Oscar Wilde et d'autres auteurs de renommée internationale, mais a également joué des œuvres de Redín lui-même, et la pièce la plus jouée en Navarre est sans aucun doute *Navarra sola o con leche* (« La Navarre avec ou sans lait », 1977) de Patxi Larrainzar, qui



produzitu zituzten, 1985etik 1988ra bitartean, Juan Miguel Gutiérrezen zuzendaritzapean.

Garai hartan bertan euskal zinema abian jarri zen. *La fuga de Segovia* 1981ean filmatu zen eta *La Muerte de Mikel* 1984an; biak Imanol Uribe zuzenduak. 1984an bertan, *Kareletik* filma ondu zuen Anjel Lertxundik, euskaraz. 1985ean, *Zergatik Panpox* zuzendu zuen Javier Elorriagak eta Alfonso Ungriak, *Ehun metro*. Film haietan antzerkian sortutako ofizioaz baliatu ziren, bereziki aktoreen ofizioaz. Oro har, diziplina anitzeko sortzaile ugari elkartu ziren antzerkiaren, zinemaren eta telebistaren inguruan sare sendoa eraikiz.

1985. urtean, Eusko Jaurlaritzaren politikaren aurka sortutako tentsioek eta kultura-politikan egin ziren aldaketek, Antzertiren egitasmoa bertan behera geratzea bultzatu zuten. Katalogazio-lana eta *Antzerti* aldizkariaren argitaratzea eten egin ziren eta eskolako lehenengo promozioak ikasketak amaitu ondoren, ikastetxea itxi egin zen. Orduetik, jaurlaritzak deialdi publikoen bidezko dirulaguntzak indartuz bideratu zituen gaztelaniaz zein euskaraz egin ziren ekoizpenak. Aldi berean, Kultura Sailak zirkuituak sortzeko eta jaialdiak antolatzeko dirulaguntza deialdiak sustatu zituen. Neurri handi batean erabaki haiek guztiek gatazkaren iturri bat estali bazuten ere, euskal antzerkia etorkizuneko Zentro Dramatikorik gabe geratu zen. Haatik, garai hartan bertan Katalunian, Galizian, Andaluzian eta beste autonomia-erkidego batzuetan oraindik ere lanean ari diren Zentro Dramatikoak sortu ziren.

Antzerki-munduan sektorerik ugariena eta biziena aktoreena da. Euskal antzerkiak aktore asko eta maila handikoak zituen eta ditu, baina sektorearentzat oinarritzekoak diren lan-baldintzak bermatzeko, sustapena egiten laguntzeko, sektore bezala erakundeetan presentzia izateko, aktore-lanari zor zaion duintasuna aldarrikatzeko eta beste hainbat beharri erantzuteko, 1989an, euskal aktoreek garrantzi handiko elkarte bat sortu zuten: Euskal Aktoreen Batasuna (EAB).

Nafarroan, bestalde, 1971. urtean haur-antzerkia egiteko sortu zuten El Lebril Blanco taldea, zeina bi urte beranduago helduentzat antzezlanak aurkezten hasi zen. 1980ko hamarkadan, Valentín Redín taldeko zuzendaria eta El Lebril Blanco taldea bera erreferenteak izan ziren Nafarroan, Euskal Herrian eta kanpoan. Sari ugari jaso zituzten beren muntaiekin. Federico García Lorca, Oscar Wilde eta nazioarteko beste egile askoren antzezlanak taularatzeaz gain, Redín beraren testuak ere antzestu zituzten. Hala ere, inoiz Nafarroan emanaldi gehien egin zituen muntaia Patxi Larrainzak idatzitako *Navarra sola o con leche* (1977) izan zen, Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroaren arteko harremanari buruzkoa.

Bien bitartean, erkidegoan talde independenteak formula berriak bilatzen ari ziren. Karraka, Orain, Teatro Estudio Cobaya eta Kukubiltxo taldeek beren indarrak batu zituzten, eta Oskorri musika taldearekin elkarlanean, Camilo José Celaren *Oficio de Tinieblas* (1984) muntatu zuten.

Urte haietan antzerki tradizionalarekiko kateak erabat hautsi ziren eta taldeak lengoia eszeniko berriekin esperimentatzen hasi ziren. Ordura arte ezkutuan gorde behar izan ziren ideiak eta ideologiak antzerkiaren bitartez ere plazaratzen hasi ziren, bai bisualki, bai forma aldetik. Eta, nola ez, kanpoan –Madril, Paris, Katalunia eta beste– egiten ari zen antzerkiari begiratu arren, euskal antzerkiak ordurako bazuen bere pisua eta ospea. Hamarkada hartan, dena dela, ez zen dena antzerki politikoa edo dramatikoia izan, komediak ere espazio handia izan zuen. Adibidez, 1984an sekulako arrakasta izan zuten bi

17. Eibarko Antzerki Jardunaldiak.

17. Journées du théâtre d'Eibar (Guipuscoa).



traite des relations entre la Communauté forale de Navarre et la Communauté autonome basque.

À la même époque, les compagnies indépendantes recherchaient de nouvelles formules théâtrales. Les groupes Karraka, Orain, Teatro Estudio Cobaya et Kukubiltxo se sont associés, et en collaboration avec le groupe de musique Oskorri, ont mis en scène en 1984 l'œuvre *Oficio de Tinieblas* (« Office des ténèbres ») de Camilo José Cela.

Durant ces années-là, les liens avec le théâtre traditionnel ont définitivement été rompus, et les compagnies se sont mises à expérimenter de nouveaux langages scéniques. Elles se sont mises alors à exposer au grand jour les idées et idéologies qui avaient dû rester secrètes jusqu'alors, tant visuellement que formellement. Et, bien que les compagnies observaient le théâtre qui se faisait à l'étranger (à Madrid, à Paris, en Catalogne...), le théâtre basque avait déjà un poids et une renommée considérables. Mais tout n'était pas du théâtre politique ou dramatique durant cette décennie-là, la comédie aussi avait une place importante. Ainsi, en 1984, deux comédies à succès avaient été mises en scène : *Il avait deux pistolets aux yeux noirs et blancs* de Dario Fo, mise en scène par la compagnie Maskarada, et *Bilbao Bilbao* de Ramón Barea, par la compagnie Karraka.

Pour pouvoir voir les pièces de théâtre étrangères, et pour répondre au besoin qu'avaient les compagnies d'avoir un lieu de rencontre, des festivals très importants ont été organisés. L'un des plus remarquables a été le Festival international de théâtre de Vitoria-Gasteiz, organisé par la coopérative Denok. Grâce à ce festival, on pouvait voir au Pays basque de très grandes œuvres d'auteurs internationaux représentés par les plus grandes compagnies ; cinquante ans après, le festival est encore aujourd'hui une magnifique vitrine du panorama théâtral.

En Guipuscoa, les Journées théâtrales d'Eibar (Guipuscoa) ont débuté en 1977, organisées par Juan Ortega. La programmation bilingue en basque et en espagnol a permis au festival de devenir, aujourd'hui, un rendez-vous incontournable.

Pour les groupes de théâtre amateurs et professionnels qui se produisent en basque, un autre festival très important se tient à Azpeitia (Guipuscoa), dont la première édition eut lieu en 1983. Outre la possibilité pour le public d'y voir des pièces en langue basque, le festival est aussi devenu pour de nombreuses compagnies basques une opportunité pour y jouer leurs pièces. De plus, c'est, encore aujourd'hui, un rendez-vous pour les créateurs, et un endroit où on rend hommage à des personnes qui se sont démarquées dans le monde du théâtre.

komedia estreinatu zituzten: Maskaradak Dario Fo-ren *Pistolaren begi zuri beltzak* eta Karrakak Ramón Barearen *Bilbao Bilbao*.

Euskal Herritik kanpo egiten zen antzerkia ikusteko, taldeen topaguneen beharrei erantzunez, jaialdi oso garrantzitsuak antolatu ziren. Nabarmenen artean dago Denok Kooperatibak Gasteizen sortu zuen Nazioarteko Antzerki Jaialdia. Ordura arte gurera iristen ez ziren nazioarteko goi-mailako antzezlan eta konpainiak ikusteko parada eskaini zuen jaialdiak; berrogeita hamar urteren ondoren, jaialdia antzerkiaren leiho garrantzitsua da gaur egun.

Gipuzkoan, 1977an, Eibarko Antzerki Jardunaldiak ospatzen hasi ziren Juan Ortega antolatzailea zelarik. Gaztelaniaz eta euskaraz programatzen duen jaialdi honek ospe handia du gaur egun eta topagune garrantzitsua da. Antzerkia euskaraz egiten zuten taldeentzat, 1983an, Azpeitian, Antzerki Topaketak izeneko jaialdia antolatu zuten, eta euskal talde amateurentzat eta profesionalentzat ezinbesteko topalekua bilakatu zen. Izan ere, euskaraz sortutako antzerkia ikusteko aukera eskaintzeaz gain, hainbat euskal konpainiek beren antzezlanen estreinaldiak taularatzeko erreferentziazko jaialdia bilakatu zen. Han, gainera, sortzaileen arteko topaketak antolatzen dira gaurko egunean ere eta antzerki-munduko pertsona nabarmenduei omenaldiak eskaintzen zaizkie.

Bestetik, Lekeition, 1979an, euskal antzerkiarentzat oso garrantzitsuak izan ziren Topaketak antolatu ziren. Tailerrak, solasaldiak eta sortzaileen arteko harremanak sendotu ziren. Hamar urte beranduago, Topaketa haien antolatzaileek Lekeitioko Kale Antzerki Jaialdia martxan jarri zuten eta urteen poderioz sendotzen joan da, gaur egun osasuntsu dirauen Kaleka jaialdia bilakatu da.

1988an, Donostian dFeria antzerki-jaialdia sortu zuten. Hasieran, 1988tik 1991ra, antzerkia eta kale-antzerkia erakusten zen. Sei urteko etenaren ostean, berriz ere martxan jarri zuten, 1998an. Nolanahi ere, 2007an, erakusle-izateaz gain, azoka gisa indartzen hasi zen. Orduetik, programatzaileek nazioarteko antzerki eta dantza ikusteaz gain, euskal ikuskizunak ikusteko erreferentziazko topagune bilakatu da.

Nafarroako Erriberrin, 1981. urtean, Oliteko Jaialdian antzerki-topaketa ezitutetsuak antolatu zituen Valentín Redínek, El Lebrél Blanco taldeko zuzendariak. Hainbat urtetan ospatu bazen ere, aldaketa askoren ondoren, bertan behera geratu zen jaialdia eta 2000. urtetik aurrera, Antzerki Klasiakoaren Jaialdia ospatzen dute udalerrri bereko gazteluan.

1982an, Tolosan, Titirijaia izeneko nazioarteko txotxongilo-jaialdia antolatu zuen bertako zaletu-elkarte batek, haien artean Txotxongilo Taldea zegoen, zeina, Enkarni Genuak eta Manolo Gómezek gidatuta, 1971tik haurrei zuzendutako txotxongilo-ikuskizunak antzezten zituen taldea zen. Hogeita bitik gora ikuskizun estreinatu zituzten, haien artean *Erreka Mari* (1990) izan zen seguruenik taldeak gehien antzeztu zuena. Txotxongiloekiko zaletasuna sustatzeko antolatutako Tolosako jaialdiak urtero nazioarteko txotxongilo-taldeak biltzen ditu eta Topic, Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroak antolatzen du. Bilbok, bestetik, ia berrogei urtez antolatu du Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia, azken urteetan biziberritu dena.

D'autre part, à Lekeitio (Biscaye), on organisa en 1979 des rencontres d'une grande importance pour le théâtre basque et dans lesquelles il y avait des ateliers et des débats qui ont permis aux créateurs de resserrer les liens.

Dix ans plus tard, les organisateurs de ces rencontres ont lancé le Festival international de théâtre de rue de Lekeitio, qui est aujourd'hui devenu le festival Kaleka, festival très important.

En 1988 a vu le jour le festival dFeria à Saint-Sébastien. Entre la première édition et 1991, on y jouait du théâtre et du théâtre de rue. Après six ans d'interruption, le festival a recommencé en 1998, mais c'est en 2007 qu'il est devenu ce qu'il est aujourd'hui : un salon des arts du spectacle. Lors de ce rendez-vous de référence, les programmateurs internationaux peuvent y voir de la danse et du théâtre, ainsi que des spectacles en langue basque.

À Erriberrin (Navarre), Valentín Redín, directeur de la compagnie El Lebrél Blanco, a organisé en 1981 un festival de grande notoriété, qui, après de nombreuses années et nombreuses transformations a mis fin à ses activités en 2000. Aujourd'hui le Festival du théâtre classique l'a remplacé et se tient au château du village.

En 1982, un groupe de passionnés dirigé par Enkarni Genua et Manolo Gómez, qui en 1971 s'était déjà mis à jouer des spectacles de marionnettes pour enfants, a organisé le Festival international de marionnettes Titirijai à Tolosa (Guipuscoa). Ils ont joué plus de vingt-deux spectacles, parmi lesquelles *Erreka Mari* (1990), sans doute la pièce la plus jouée par la troupe. Le festival de Tolosa, référence incontestable pour tous les amateurs de marionnettes, réunit chaque année des compagnies internationales de marionnettes. À Bilbao aussi a lieu depuis quarante ans le Festival international de marionnettes.

MASKARADA: LEHEN EUSKAL TALDE PROFESIONALA

Bilboko Cómicos de la Legua-Kilikilariak, Ramón Barea zuzendu zuen kolektiboa, euskal antzerkiaren historian antzerki-talde independente oinarrizkoenetakoa bat izan zen. 1969an sortu eta 1980an desegin bazen ere, hartatik bi talde berri sortu ziren: Karraka eta Maskarada.

Karraka taldea 1981etik 1995era bitartean aritu zen lanean eta erreferente izan zen euskal antzerkian. Taldeko zuzendari zen Ramón Bareaekin batera, Itziar Lazkano, Alex Angulo, Loli Astoreka, César Sarachu, Esther Velasco eta Felipe Loza aktoreek osatu zuten, besteak beste, Karraka talde berria. Gaztelaniaz edota ele bitan antzeztzen zituzten beren lanak.

Maskarada taldeak, bere aldetik, antzerkia euskara hutsean egitearen aldeko apustua egin zuen. Haur- eta kale-antzerkiarekin hasi ziren, baina helduentzako antzerkia egiteko helburua ez zuten baztertu. Carlos Panera zuzendariarentzat eta taldekideentzat antzezlanen hautaketak garrantzi handia zuen. Dario Fo idazle konprometitu italiarraren lanak eta komedia soziala aukeratu izana taldearen filosofiarekin bat zetorren hautua izan zen bete-betean. Hala, 1984ko otsailaren 4an, Bilboko Campos Eliseos antzokian Dario Foren *Pistolaren begi zuri beltzak* estreinatu zuten. Panera zuzendari eta aktore izan zen. Beste aktoreak Patxo Telleria, Marta Carlos, Aizpea Goenaga, Imanol Agirre, Mikel Martinez, Peio Gutiérrez eta Aitor Mazo izan ziren. Helduentzako kalitatezko antzerkia euskara hutsean egin zuen konpainia profesional baten lehen antzezlan izan zen. Balio sinbolikoaz gain, ametsa errealitate bihurtu, eta egin zitekeela egiaztatu zuten; ordura arte euskal antzerkiaren historian esploratu gabeko bide berri bat urratzeko gai izan ziren. Euskaraz entseatutako eta landutako muntaia

18. Maskaradak Dario Foren *Pistolaren begi zuri beltzak* estreinatu zuten 1984an.



18

MASKARADA : LA PREMIÈRE COMPAGNIE PROFESSIONNELLE DE THÉÂTRE BASCOPHONE

En 1969, à Bilbao, a été créé, sous la direction de Ramón Barea, le collectif Cómicos de la Legua-Kilikilariak, qui a été une des compagnies indépendantes de théâtre essentielles de l'histoire du théâtre basque. Le groupe s'est dissolu en 1980, mais deux nouvelles compagnies en sont nées : Karraka et Maskarada.

La compagnie Karraka a œuvré de 1981 à 1995, et a été une référence au sein du théâtre basque. Avec Ramón Barea, directeur de la compagnie, les acteurs Itziar Lazkano, Alex Angulo, Loli Astoreka, César Sarachu, Esther Velasco et Felipe Loza formaient la nouvelle compagnie Karraka. Ils ont mis en scène des pièces de théâtre en espagnol ou en bilingue.

La compagnie Maskarada, quant à elle, a fait le pari de faire du théâtre exclusivement en langue basque. Au début, la compagnie jouait des pièces pour la jeunesse et du théâtre de rue, mais avait l'objectif de faire aussi du théâtre pour adultes. Pour le directeur de la compagnie Carlos Panera ainsi que pour tous les membres, l'élaboration du répertoire était fondamentale. Pour ce faire, ils ont choisi les œuvres et la comédie sociale de Dario Fo, auteur italien engagé, qui définissent parfaitement la philosophie de la compagnie. Ainsi, le 4 octobre 1984, au théâtre Campos Eliseos de Bilbao, la compagnie a joué *Il avait deux pistolets aux yeux noirs et blancs* de Dario Fo. Carlos Panera a mis en scène la pièce et y a joué avec Patxo Telleria, Marta Carlos, Aizpea Goenaga, Imanol Agirre, Mikel Martinez, Peio Gutiérrez, Peio Gutiérrez et Aitor Mazo. Cette pièce a été la première œuvre théâtrale de qualité destinée aux adultes et exclusivement en langue basque qu'une compagnie professionnelle mettait en scène. Au-delà de sa valeur symbolique, cette production a été importante car elle a permis au rêve de devenir réalité en montrant que c'était possible. Maskarada a ainsi pu ouvrir une nouvelle voie encore jamais explorée dans l'histoire du théâtre basque. Cette mise en scène montée et élaborée en basque a permis de développer un langage dramatique en basque sans avoir à recourir à l'espagnol, et, en même temps, a montré qu'il y avait les moyens techniques et artistiques nécessaires pour le faire. De plus, à cette époque où la langue basque était en plein processus de normalisation, l'une des erreurs les plus fréquentes était de faire du théâtre dans une langue basque trop technique, qui ne faisait qu'éloigner le public des salles de théâtre. Mais, la critique de l'époque a mis en évidence la fraîcheur de la traduction de Jon Aurre.

L'engagement de Maskarada en faveur du théâtre indépendant basque était très risqué, mais a servi de modèle notamment aux compagnies d'amateurs qui se mettaient à explorer de nouvelles formes de théâtre. De plus, Maskarada a pu avoir un rapport d'égal à égal avec les autres compagnies professionnelles. Cependant, la compagnie est toujours restée hors des circuits officiels, et elle a dû attendre de nombreuses années avant de pouvoir prétendre à des subventions de la part du Gouvernement basque. La compagnie a pu aller de l'avant, dans une grande mesure, grâce au militantisme et à la volonté de ses membres, ainsi qu'à la fidélité des programmateurs et du public. La conjoncture politique et sociale de l'époque incitait à l'engagement afin d'établir la dignité de la culture basque et de mettre en pratique une culture active, dynamique et de qualité.



hark, hizkuntza dramatikoak euskaraz garatzeko aukera eskaini zuen, eta ez zen gaztelaniaz egindako antzerkiaren menpe jarri; aldi berean, euskaraz halako mailako antzezlan bat egiteko gaitasun teknikoak eta artistikoak egon bazegoela erakutsi zuen. Gainera, euskara estandarizatzen ari zen garai hartan, euskaraz egiten zen antzerkiaren akatsetako bat zen oso euskara teknikoak erabiltzen zela eta ondorioz publikoak antzerkitik urruntzen zela. Jon Aurrek itzulitako muntaia hartan, aldiz, garaiko kritikak aktoreen hizkuntzaren freskotasuna nabarmendu zuen.

Maskaradaren euskal antzerki independentearen aldeko apustua arriskutsua izateaz gain, eredu garria ere izan zen, batik batik antzerki berritzailea egiten saiatzen ari ziren konpainia amateurrentzat. Bide batez, konpainia profesionalekin parez pareko harremana lortu zuten. Hala eta guztiz ere, zirkuitu estandarretatik kanpo mugitzen ziren, eta kostatuta ahala euskaraz sortu arren, urteak pasa ziren Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak jaso zituen arte. Neurri handi batean, konpainiak aurrera egin bazuten taldekideen militantziari eta gogoari esker izan zen, baita programatzaileen eta ikusleen fidelitasunari esker ere. Garai hartako egoera politikoak eta sozialak, euskal kultura duina sortzeko konpromisora bultzatzen zuen. Goi-mailako euskal kultura sortuko bazen, kultura aktibotik sortuko zen.

Taldea egonkortu eta etorkizunerako bokazio argiarekin lanean aritu zen. Ez zen erronka erraza izan eta, beste zailtasun askoren artean, gainditu beharreko arazo larriena antzezlanen banaketa izan zen; batetik, konpainia profesionalen zirkuituan euskara hutsean egiteak emanaldiak mugatzen zituelako eta, bestetik, euskal amateur zirkuitua herri txikiagoetan barrena mugitzen zenez, ez zegoelako antzerkia ikusteagatik ordaintzeko ohiturarik. Dena den, zirkuitua eraikitzea gainerako taldeentzat ere oso garrantzitsua izan zen, baita etorkizunari begira ere.

Maskarada Euskal Antzerki Taldeen Biltzarreko (EATB) euskal konpainia profesional bakarra izan zen; izan ere, ez zuen konpainia profesionalen elkartearekin bat egin. EATBn talde gehientsuenak gipuzkoarrak edo Iparraldekoak ziren, baina Maskarada Bilbon sortu zen, euskaraz presentzia txikiagoa zuen hirian eta, gainera, aktore gehienak eta zuzendaria euskaldun berriak ziren.

Maskaradaren ondorengo lanak, besteren artean, honakoak izan ziren: *Gastibeltzaren karabinak* (1985), Mark Legasse-ren nobelan oinarritua eta Oskorri taldearen musikaz jantzia. *Harrizko Aresti hau* (1986), Gabriel Arestiren bizitza eta lanetan oinarritutako antzezlan. *Gernika 16:30 H.S.O.* (1987), Edorta Jimenezen testuarekin. *Kontrabaxua* (1989), Patrick Süskind-en antzezlan. Maite Arresearen *Akerlarrua* (1990) eta Patxo Telleriaren *Marxkarada* (1991). *Logalea Zeukan Ekilibristaren Kasua* (1992), Bernardo Atxagarena, eta *Monstruo Sakratuak* (1993), Patxo Telleriarena. Maskarada sortu eta hamabost urtera, 1994an Oscar Wilderen *Ernesto izatearen garrantzia* lanarekin euskaraz bakarrik lan egitearen hautua bertan behera utzi zuten.

Gerora, Mikel Martinezek eta Patxo Telleriak, nahiz eta Maskarada taldeari lotuta jarraitu, zenbait proiektu berri jarri dituzte martxan. Maskaradako kide izandako Jokin Oregik Marie de Jongh taldea sortu zuen. Egitasmo horiek guztiak Tartean konpainiaren barruan bildu dituzte.

Après avoir atteint une certaine stabilité, le groupe a travaillé d'arrache-pied pour assurer son avenir. Ça n'a pas été facile de surmonter un tel défi car, parmi beaucoup d'autres difficultés, le plus difficile a été de garantir la distribution des pièces de théâtre. En raison, d'une part, de l'utilisation exclusive de la langue basque dans le circuit professionnel, ce qui limitait le nombre de représentations, et, d'autre part, du fait que le circuit amateur basque jouait dans de petites localités où on n'avait pas l'habitude de payer pour aller voir du théâtre. Mais cette question du choix d'un circuit a été également très importante pour toutes les autres compagnies.

Maskarada, qui a renoncé à faire partie de toute association professionnelle, a été la seule compagnie de théâtre non-amateur à rejoindre l'Association des compagnies de théâtre basque (EATB). La plupart des compagnies de cette association provenaient du Guipuscoa et du Pays basque du Nord, contrairement à Maskarada, créé à Bilbao, donc dans une ville où le basque avait une présence moindre ; en outre, le metteur en scène et la plupart des acteurs de la compagnie avaient appris le basque à l'âge adulte.

Maskarada a ensuite mis en scène de nombreuses pièces : *Les carabines de Gastibeltza* (1985), basée sur le roman de Marc Légasse et sur la musique d'Oskorri ; *Harrizko Aresti hau* (1986), basée sur la vie et l'œuvre de Gabriel Aresti ; *Gernika 16:30 H.S.O.* (1987), à partir du texte d'Edorta Jimenez ; *Kontrabaxua* (« La Contrebasse », 1989), de Patrick Süskind ; *Akerlarrua* (« La peau de bouc », 1990) de Maite Arrese ; *Marxkarada* (1991) de Patxo Telleria ; *Logalea Zeukan Ekilibristaren Kasua* (« Le Cas de l'équilibriste qui avait sommeil », 1992) de Bernardo Atxaga et *Monstruo Sakratuak* (« Les monstres sacrés », 1993) de Patxo Telleria. Quinze ans après sa création, le groupe Maskarada arrête, en 1994, de faire du théâtre exclusivement en basque en adaptant *L'importance d'être Constant* d'Oscar Wilde en bilingue.

Depuis, Mikel Martinez et Patxo Telleria, tout en restant en lien avec la compagnie, Maskarada, ont mis de nouveaux projets en route. Jokin Oregi, membre de Maskarada a créé le groupe Marie de Jongh, et tous ces nouveaux projets forment le collectif Tartean.

1990EKO HAMARKADA: ANTZERKIA EGONKORTZEN

Mendearen azken urte haietan antzerki-taldeek aldaketak bizi izan zituzten. Aurreko hamarkadan antzerki-taldeek kolektibo bezala lan egiten zuten, eta partaide guztiek aktore-lana egiteaz gain, beste zeregin batzuk ere betetzen zituzten: ekoizpena, zuzendaritza, jantziak eta eszenografia, kasu. Aitzitik, profesionalizazio-prozesuak eredu hori baztertu zuen, eta talde gehienak konpainia bilakatu ziren, hau da, konpainiek hiruzpalau kide finko zituzten eta muntaia bakoitzerako behar zuten taldea bilduko zuten. Konpainia asko egonkortu egin ziren eta, batzuk desagertu ahala, talde berriak sortu ziren. Antzezlan gehienetan aurreko hamarkadan ezarritako eredu elebidunarekin lanean jarraitu zuten, baina sarritan hizkuntza bakoitzak bere aktore-talde berezki izaten zuten. Nahiz eta muntaiak bi bertsio izan, aktore batzuk euskarazko bertsioan aritzen ziren eta beste batzuk gaztelaniazkoan. Antzezteko euskara menderatzeari garrantzia ematen hasi zitzaion, ez bakarrik zuzen hitz egiteari, doinuari eta fonetikari baita ere. Eskola espezializaturik ez egoteak lana zaildu zuen arren, aurrera egin zen.

Zirkuitua hedatzen zihoan eta espazio eszenikoak gero eta hornitua go eta prestatuago zeuden bertako taldeentzat. Kultura Sailak, 1980ko hamarkadan sortutako Herriz Herri izeneko zirkuituaren ordeztan, SAREA egitasmoa sortu zuen, 1993an. SAREAn Kultura Saileko ordezkariak, Foru Aldundietakoek eta antzokiak zituzten udalerrietako ordezkariak hartu zuten parte. Hasieran hogeitaziki kidetu ziren, gaur egun hirurogei inguru dira. SAREaren helburua zirkuituak eta kalitatezko antzerkia eskaintzea da, horretarako Euskal Eskaintza Eszenikoaren katalogoa eta Gomendatutako Lanen katalogoa kaleratzen dituzte urtero. Beste eginkizun askoren artean, publiko berria erakartzeko ahaleginean ari dira.

Euskal antzerki profesionalak bere bidea eraikitzen jarraitu zuen. 1990. urtean, Elena Irureta eta Kontxu Odriozola Antzertiko lehen promozioako aktoreek *Ama begira zazu* antzezlana idatzi eta taularatu zuten, Mikel Garmendia eta Jose Ramon Soroizekin batera, zuzendaria Eneko Olasagasti izan zen. Euskaraz pentsatu eta burututako muntaia zen, garaiko pertsonailetan oinarritutako komedia, askorentzat kostunbrista, baina kutsu sozial kritikoa zuena. Sekulako arrakasta izan zuen muntaiak eta antzerkia inoiz iritsi ez zen herrietara ere heldu zen. Ordura arte, euskal antzezlan batek ez zuen inoiz halako jakin-minik piztu. Askoren ustetan, antzezlana bera fenomeno bat izan zen. Halaber, genero-ikuspegitik, bi egileak eta antzezlanaren bultzatzaileak zein ekoizleak bi emakume izateak, euskal antzerkian emakumeek zuten protagonismoa oraindik ere atzean zegoela kontuan izanda, Iruretarena eta Odriozolarena ezinbesteko antzezlana izan zen.

1992. urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzaturik Arteszena, Gipuzkoako antzerki publikoren egitasmoa abian jarri zen Maribel Belastegiren (Orain) eta Fernando Bernuésen (Tanttaka) zuzendaritzapean. Antzertiren ondoren, hori izan zen hain beharrezkoa zen antzerki publikoa martxan jartzeko ahalegin garrantzitsuena. Egitasmoak ekoizpen eredu berri bat martxan jarri zuen, baina zoritxarrez ahalegin horrek ez zuen jarraipenik izan.

1996an, Tanttaka taldeak *El Florido pensil* Andres Sopeñaren liburuan oinarritutako antzezlana arrakastatsua estreinatu zuen bi bertsiotan, euskaraz eta gaztelaniaz. Sei urtez biran ibili ondoren, 2006an berriz ere taularatu zuten. Aktoreen artean: Kike Díaz de Rada, Ramón Ibarra, Zorion Egileor, Patxi González, Paco Obregón, Julio Perugorria, Jose Ramon Soroiz eta

19. Kontxu Odriozolak eta Elena Iruretak sortutako *Ama begira zazu* obraren irudiak, 1990ean estreinatu zuten.

19. Images de la pièce *Ama begira zazu* (« Regarde maman ») de Kontxu Odriozola et Elena Irureta, sortie en 1990.

LES ANNÉES 1990 : LES ANNÉES DE LA STABILITÉ

Dans les dernières années du XX<sup>e</sup> siècle, les troupes de théâtre ont subi de grands changements. Au cours de la décennie précédente, les compagnies de théâtre avaient travaillé en tant que collectif, et tous les membres exécutaient le travail d'acteur, mais se chargeaient également de la production, de la mise en scène, des costumes et de la scénographie. Mais le processus de professionnalisation a écarté ce mode de fonctionnement et la plupart des groupes sont devenus compagnies, avec trois ou quatre membres fixes pour pouvoir s'adapter à chaque nouvelle production. De nombreuses compagnies se sont alors stabilisées, et à mesure que certaines disparaissaient, de nouvelles voyaient le jour. En général, les compagnies ont continué à travailler selon l'ancien modèle bilingue, mais il était courant que chaque groupe se spécialise dans une langue. Bien que la même pièce existait dans deux versions, des acteurs jouaient exclusivement dans la version basque et d'autres dans la version espagnole. C'est alors qu'on s'est mis à accorder de l'importance à la maîtrise de la langue basque ainsi qu'à ses aspects musicaux et phonétiques, et pas seulement au fait de la parler correctement. Malgré l'absence d'école spécialisée, le théâtre a quand même pu aller de l'avant.

Le circuit théâtral s'agrandissait peu à peu, et les salles de spectacles étaient de mieux en mieux aménagées et préparées pour accueillir les groupes locaux. En 1993, le Département de la culture du Gouvernement remplace son programme Herriz Herri créé dans les années 1980 par le réseau Sarean, auquel participaient les délégués du Département de la culture, des Députations forales et des communes ayant une salle de théâtre. Au début, vingt salles de théâtre se sont jointes au réseau, et





20

Alfonso Torregrosa izan ziren. Fernando Bernués eta Mireia Gabilondo izan ziren zuzendariak.

Urte berean, Oscar Castaño *Garbitxuk* Deabru Beltzak kale-antzerki taldea sortu zuen. Muntaia plastiko ikusgarriak taularatzen zituzten eta munduaren luze-zabalean erakutsi zituzten; hamar ikuskizun baino gehiago sortu zituzten eta hogeita hamabost herrialdetan, hiru mila emanalditik gora egin zituzten.

1997. urtean Mina Espazioa sortu zen Bilbon. Gazte-talde batek, Ander Lipus tartean, sortze-gune hori martxan jarri eta handik urte batera Antzerkiola Imaginarioa sortu zuten. Antzerki naturalistari uko eginez, teatro komertzialetik urrun, *8 Olivetti Poetiko* lanarekin lengoia propioa, sinbolismoz betetakoa eta poetikoa eraiki zuten. Belaunaldi berri bat zen, zeinak estetika berritzaile batekin antzerkia euskaraz egiten zuen. Azpimarratzekoak ziren Jon Gerediaga poetak sortutako testuak, poesiaz eta mundu imaginarioz beteak. Garai hartako taldekideek lan oparoa eskaintzen jarraitzen dute: Ander Lipus, Jon Gerediaga, Miren Gaztañaga, Alex Gerediaga, Gabi Ocina, Miriam K. Martxante, Na Gomes, Leire Ucha eta Oihane Enbeita, besteak beste. Ondoren *Yuri Sam* (2003) eta beste hainbat muntaia taularatu zituzten. Antzerkiola Imaginarioaren ibilbidea amaitu ondoren, Ander Lipusek Arterdrama arte eszenikoen plataforma sortu zuen.

Hika taldea hamarkada berean abiatu zen. Dagoeneko hogeita hamar urte bete ditu antzezlan asko euskara hutsean egiten. Agurtzane Intxaurraga taldeko zuzendariak muntaia elebidunak taularatu arren, obrak euskaraz prestatzen ditu, ondoren gaztelaniazko bertsioa egiteko. Beren lanik esanguratsuenak *Chaplin Tropela* (1990), Arantxa Iturberen *Ai, ama!* (2002), Alessandro Baricco-ren *Zeta* (2005), *Aitarekin bidaiari* (2009), Arantxa Iturberen eta Agurtzane Intxaurragaren *Koaderno zuri*

**20.** *El florido pensil-Neskak* 2016an estreinatu zuen Tanttaka taldeak, 1996an egin zuten gizonezkoen bertsiorean estreinaldia.

**21.** *8 Olivetti poetiko* (1999) antzezlan, Antzerkiola Imaginarioa.

**20.** La compagnie Tanttaka a créé la pièce *El florido pensil-Niñas* («Le pensil fleury-Filles») en 2016 ; en 1996 elle avait créé la version pour garçons.

**21.** *8 Olivetti poetiko* (1999), pièce d'Antzerkiola Imaginarioa (Fabrique de théâtre imaginaire).

aujourd'hui il y en a jusqu'à soixante. Sarean, dont une de ses nombreuses fonctions est celle d'attirer un nouveau public, a été créé dans l'objectif de proposer un réseau de théâtre de qualité, et pour cela publie chaque année un catalogue de propositions scéniques et d'œuvres recommandées.

Le théâtre professionnel du Pays basque a continué à tracer sa route. En 1990, Elena Irureta et Kontxu Odriozola, élèves de la première promotion d'Antzerti, ont écrit et joué *Ama begira zazu* (« Maman, regarde »), une pièce mise en scène par Eneko Olasagasti dans laquelle les acteurs Mikel Garmendia et Jose Ramon Soroiz jouaient également. C'était une pièce conçue et réalisée entièrement en langue basque, une comédie avec des personnages contemporains, considérée par beaucoup de comédie traditionnelle, mais avec un ton indéniable de critique sociale. La pièce a connu un très grand succès, et a été jouée dans des villages où on n'avait encore jamais vu de théâtre. C'était la première fois qu'une œuvre basque remportait un tel succès ; ça a été un phénomène. Et puis c'étaient deux femmes qui avaient créé et produit la pièce, fait à souligner, étant donné le peu de protagonisme qu'elles avaient dans le théâtre basque de l'époque. L'œuvre d'Irureta et Odriozola a donc été un événement marquant.

En 1992 la Députation forale du Guipuscoa a soutenu la création d'Arteszena, le projet de théâtre public du Guipuscoa, sous la direction de Maribel Belastegi du groupe Orain et de Fernando Bernués du groupe Tanttaka. Après Antzerti, ça a été le projet le plus important et nécessaire pour relancer le théâtre public. Malgré la mise en place d'un nouveau modèle de production, le projet n'a pas duré.

Le groupe Tanttaka a joué en basque et en espagnol *El Florido pensil* (« Le Jardin luxuriant »), adaptation du livre d'Andres Sopeña. Après six ans de tournée, la pièce est revenue sur scène en 2006. Les acteurs étaient Kike Díaz de Rada, Ramón Ibarra, Zorion Egileor, Patxi Gonzalez, Paco Obregon, Julio Perugorria, Jose Ramon Soroiz et Alfonso Torregrosa, et les metteurs en scène, Fernando Bernués et Mireia Gabilondo.

La même année, Oscar Castaño a créé la troupe de théâtre de rue Deabru Beltzak, qui depuis lors, a produit plus d'une dizaine de spectacles et a donné plus de trois mille représentations dans plus de trente-cinq pays.

En 1997 un groupe de jeune, dont Ander Lipus, a créé l'espace Mina Espazioa à Bilbao, où a vu le jour, un an plus tard, la fabrique de théâtre imaginaire, Antzerkiola Imaginarioa. Avec leur première pièce, *8 Olivetti poetiko*



21



(2016), eta Agurtzane Intxaurrea eta Kepa Errasti taldekideek sortutako *Txarriboda* (2018).

In fraganti antzerki-taldea titulu bereko antzezlan musikatua estreina-tzearekin batera sortu zen, 1992an, Olatz Beobideren, Ane Gabarainen eta Idoia Sagarzazuren eskutik eta Edi Naudo zuzendari zela. Euskarazko lan hori izan zen taldearen lehen lana, nahiz eta handik aurrera bi hizkuntzetan egin zituzten muntaiak. 1993an *Hala bazan ez bazan!*, eta hurrengo urtean *Nire izebaren gauzak*, non hiru aktore hauez gain Isidoro Fernández, Joseba Apaolaza eta Juan Luis Mendiara aritu ziren. 1995ean David Mameten *Oleanna* estreinatu zuten Olatz Beobide eta Juan Luis Mendiaraez.

Gasteizen 1986tik lanean ari zen Teatro Paraíso konpainia, sorreratik antzerkian, hezkuntzan eta antzerkiaren didaktikan lan oparoa egin du; bereziki familiei, haurrei eta gazteei zuzendutako antzerkia sortuz eta partekatuz. Muntaiak egiteaz gain, ikastaroak eta mintegiak egiten dituzte. Gaur egun eskoletarako antzerki programazio egonkorra eskaintzen dute.

Basauriko Antzerki Eskola, Getxoko Antzerki Eskola, Bilboko Artebi, Errenteriako Antzerki Eskola, Porpol antzerki-taldearen arte eszenikoan tailerra, TAE Donostiako arte eszenikoan tailerra, eta 1985. urtetik lanean ari den Nafarroako Antzerki Eskola, besteak beste, aktoreen prestakuntzaz arduratu ziren hurrengo urteetan.

Azpeitiko Antzerki Topaketa, Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdia, Tolosako Txotxongilo Jaialdia, dFeria, Eibarko Antzerki Jardunaldia, Gasteizko Jaialdia eta beste hamaika jaialdietara etorri ziren taldeek inguruko eta nazioarteko antzerkiaren begirada zabala eskaini zuten. Euskaraz lan

22. Deabru Beltzak kale antzerki-taldearen *Simfeuny* ikuskizuna. Bilboko Arriaga antzokiaren kanpoan, 2019.



22. Spectacle *Simfeuny* du groupe de théâtre de rue Deabru Beltzak. Extérieur du théâtre Arriaga à Bilbao (Biscaye), 2019.

(« 8 olivettis poétiques »), le collectif a fui le théâtre commercial de style naturaliste afin de forger son propre langage empreint de symbolisme et de poésie. Il s'agissait d'une nouvelle génération d'acteurs qui proposaient un théâtre en basque d'une esthétique nouvelle. Les textes poétiques et imaginatifs de Jon Gerediaga étaient remarquables. Les membres du groupe d'alors ont continué à travailler : entre autres, Ander Lipus, Jon Gerediaga, Miren Gaztañaga, Alex Gerediaga, Gabi Ocina, Miriam K. Martxante, Na Gomes, Leire Ucha et Oihane Enbeita. En 2003, le groupe a mis en scène *Yuri Sam*, puis de nombreuses autres œuvres. Après avoir quitté le collectif, Ander Lipus a créé la plateforme d'arts scéniques Artedrama.

Le groupe Hika a également été lancé au cours de cette même décennie, et a depuis trente ans mis en scène de nombreuses pièces de théâtre exclusivement en langue basque. La metteuse en scène Agurtzane Intxaurrea monte des pièces en bilingue, mais le travail préparatoire se fait en basque pour ensuite en faire une version espagnole. Parmi leurs œuvres les plus remarquables figurent *Chaplin Tropela* (1990) ; *Ai, ama !* (« Mon Dieu ! ») d'Arantxa Iturbe (2002) ; *Soie*, d'Alessandro Baricco (2005) ; *Aitarekin bidaiari* (« Le voyage de mon père », 2009) ; *Koadernoia zuri* (« Le cahier vierge ») d'Arantxa Iturbe et Agurtzane Intxaurrea (2016), et *Txarriboda* (« Grosses noces », 2018) créé par les membres Agurtzane Intxaurrea et Kepa Errasti.

Le groupe In Fraganti a été créé en 1992, en même temps que la comédie musicale du même nom, par les actrices Olatz Beobide, Ane Gabarain et Idoia Sagarzazu, et mis en scène par Edi Naudo. À l'exception de cette première pièce, réalisée exclusivement en langue basque, les autres œuvres de la troupe ont été jouées en basque et en espagnol. En 1993, In Fraganti a mis en scène *Hala bazan ez bazan!* (« Si tel était le cas ou ne l'était pas ! »), et un an plus tard, en 1994, les trois actrices susnommées Beobide, Gabarain et Sagarzazu, ainsi que les acteurs Isidoro Fernández, Joseba Apaolaza et Juan Luis Mendiara, ont mis en scène *Nire izebaren gauzak* (« Les choses de ma tante »). En 1995, Olatz Beobide et Juan Luis Mendiara ont joué *Oleanna* de David Mamet.

La compagnie Teatro Paraíso, créée à Vitoria-Gasteiz en 1986, n'a cessé de travailler dans le domaine du théâtre, de l'éducation et de la didactique théâtrale, en créant et en partageant ses propositions scéniques, en particulier avec les familles et le jeune public. Outre la mise en scène, la compagnie propose également des stages et des séminaires, et a constitué, au fil du temps, un programme pédagogique très complet à destination des écoles.

D'autres centres et espaces scéniques ont également pris en charge la formation des acteurs, notamment les écoles de théâtre de Basauri et Getxo (Biscaye), ainsi que le centre Artebi de Bilbao, l'Atelier des arts du spectacle de la compagnie Porpol de Vitoria-Gasteiz, l'Atelier des arts du spectacle Saint-Sébastien, ou l'École de théâtre de Navarre, créée en 1985.

Grâce aux compagnies venues aux rencontres théâtrales organisées à Azpeitia et Eibar (Guipuscoa), au Festival international de théâtre de Vitoria-Gasteiz, au Festival international de marionnettes de Tolosa et d'FERIA et à de nombreux autres festivals, nous avons pu apprécier un bel échantillon du théâtre local et international. Quant aux compagnies qui travaillaient en langue basque, outre les rencontres d'Azpeitia, d'autres rendez-vous ont eu lieu, comme le Festival de théâtre d'humour créé en 1994 par la compagnie Porpol de Vitoria-Gasteiz à Araia-Asparrena (Alava), ou le Salon des artistes de rue de Leioa (Biscaye), créé en 1999.



23. *Txarriboda*  
 (« Grosses nocés »,  
2018), Hika Teatroa.

egiten zuten antzerki-taldeek, Azpeitiko Topaketetako hitzorduaz gain, beste batzuk izan zituzten. Tartean, 1994ean, Porpol talde gasteiztarrak Araia-Asparrenako Umore Antzerkiaren Jaialdia jarri zuen martxan, jaialdiak bere programazioa Araban barrena zabaltzen du; 1999an, Leioako Kale Artisten Azokaren lehen edizioa egin zuten: Umore Azoka.

Kultura Sailak 1990eko hamarkadan dirulaguntzak egonkortu zituen. Sektorearen eta erakundeen arteko zubiak eraiki ziren, eta harremana estutu zen. Bestalde, testu dramatiko berriak sortzeko dirulaguntzak abian jarri ziren. Halaber, antzerki-testuen lehiaketek, egileen lanak ezagutarazteaz gain, argitaratuak izateko aukera eskaini zuten. 36ko gerraren aurretik antzezlan ugari argitaratu bazen ere, mende amaieran euskarazko antzezlanak argitaratzea ez zen batere ohikoa. Saritutako egile haietako askok ez zuten loturarik konpainiekin eta lan haietako gehienak ez ziren sekula oholtza gainera iritsi. Konpainiekin lotura zuten antzerki-idazleek beren testuak estreinatzeak aukera errealagoak izan zituzten, batik bat, testu haiek konpainien nahietara eta beharretara egokituta sortzen zirelako.

Euskadiko Ekoizle Eszenikoen Elkarrekin Eskena sortu zuen. Elkarrekin agerian utzi zuen ekoizleek zuten garrantzia. Izan ere, konpainien profesionalizazioak zekartzen arazoei erantzuteko, erakundeen aurrean presioa egiteko eta elkarlana sustatzeko batasuna beharrezkoa zuten. Etorkizuneko antzerkia eraikitzeak eta indartsu gara zedin haien begirada ezinbestekoa zen.

Garai hartan, besteren artean, honako talde profesionalak aritu ziren Euskal Autonomia Erkidegoan lanean: Agerre Taldea, Bederen 1, Bekereke, Cobaya, Eolo, Teatro Paraíso, Gasteiz, Geroa, Gorakada, In fraganti, Karraka, Kukubiltxo, Legaleon Teatro, Markeliñe, Maskarada, Orain, Pikor, Sobradun, Soroco, Tanttaka, Tarima, Taun Taun, Trapu Zaharrak, Txalo Produzioak, Txirene eta Ur Teatroa. Talde gehienak bertsio bikoitzak egiten ari ziren, nahiz eta talde gutxi batzuek muntaiak gaztelaniaz bakarrik egiten jarraitu zuten. Haurrentzat egiten ziren antzezlanak salbu, antzezlanak euskara hutsean ekoizita zaila zen taldeen iraupena bermatzea.

23. *Txarriboda* (2018)  
 antzezlanak, Hika  
 Teatroa.

Le Département de la culture du Gouvernement basque a stabilisé ses subventions dans les années 1990. Des ponts ont été établis et les liens renforcés entre le secteur du théâtre et les institutions. De plus, des subventions ont été mises en place pour la création de textes dramatiques. Les concours de pièces de théâtre ont permis de faire connaître les œuvres de différents auteurs, ainsi que de les publier. Avant la guerre d'Espagne, on publiait de nombreuses œuvres théâtrales, mais à la fin du XX<sup>e</sup> siècle, ce n'était plus une pratique courante au Pays basque. Beaucoup des auteurs ayant été primés n'étaient en lien avec aucune compagnie, donc la plupart de leurs pièces n'ont jamais été mises en scène. Il était beaucoup plus facile pour ceux qui étaient en lien avec des groupes de théâtre de mettre en scène leurs œuvres, notamment parce que ces textes étaient créés selon les besoins et les envies des compagnies.

Le collectif des producteurs scéniques du Pays basque a créé Eskena, qui a mis en évidence la place centrale des producteurs. En effet, afin de répondre aux difficultés inhérentes à la professionnalisation des compagnies, il leur était nécessaire de faire pression auprès des institutions et de favoriser la collaboration et, ainsi, construire le théâtre du futur.

Voici, entre autres, les compagnies professionnelles qui travaillaient dans la Communauté autonome basque à cette époque : Agerre, Bederen 1, Bekereke, Cobaya, Eolo, Teatro Paraíso, Gasteiz, Geroa, Gorakada, In Fraganti, Karraka, Kukubiltxo, Legaleon Teatro, Markeliñe, Maskarada, Orain, Pikor, Sobradun, Soroco, Tanttaka, Tarima, Taun Taun, Trapu Zaharrak, Txalo Produzioak, Txirene et Ur Teatroa, dont la plupart ont continué à proposer deux versions de leurs pièces, une en basque et une en espagnol, et il y avait bien peu de compagnies qui ne jouaient qu'en espagnol. Mis à part le cas du théâtre à destination du jeune public, il était difficile de garantir la subsistance des compagnies qui jouaient exclusivement en langue basque.

Cette dépendance vis-à-vis de la langue espagnole était une charge supplémentaire pour les producteurs et les interprètes car, souvent, ils devaient jouer la même pièce deux fois dans la même journée, une fois en basque et une fois en espagnol, avec toutes les difficultés que cela implique. Souvent, la version basque découlait de la version originale en espagnol, et calquait donc les expressions et la structure de l'espagnol, ce qui ne permettait pas à la langue basque de développer son propre langage dramatique. Cependant, il faut souligner que les compagnies ont continué à prendre ce risque et ont toujours reçu le soutien des programmeurs et du grand public, et que les acteurs, les traducteurs et les adaptateurs ont fait un travail considérable. En effet, si le langage de nombreuses pièces des années 1980 était inaccessible, dix ans plus tard, la standardisation de la langue et les dispositions expressives s'étaient sensiblement améliorées. Sans conteste, les fictions qu'Euskal Telebista s'était mis à produire à cette époque ont contribué à améliorer la situation et, en même temps, le théâtre a servi à nourrir la télévision.

Le secteur des arts scéniques se consolidait grâce aux conditions de travail qui s'amélioraient. La qualité des acteurs ayant été formés dans les compagnies ou dans les écoles était de très haut niveau. De même, les techniciens se sont peu à peu spécialisés et le matériel technique dont ils disposaient dans les salles de théâtre a grandement facilité et enrichi leur travail. Les metteurs en scène également, en allant outre les conditions imposées par les contraintes structurelles, ont cherché un langage dramatique plus développé. Grâce au travail constant et à la création des acteurs culturels, le théâtre basque a atteint un niveau remarquable.



Gaztelaniarekiko mendekotasun horrek, ekoizleen eta, batez ere, aktoreen bizkar gainean jarriko du ekoizpen bikoitza egitearen zama, askotan antzezlan bera egun berean bi hizkuntzetan egin behar izaten baitzuten, horrek dakarren zailtasun guztiekin. Zailtasun haiek saihesteko, sarritan euskarazko bertsioa esamolde, hizkuntza-garapen edota egitura aldetik gaztelaniaren kalko bihurtzen zen, gehienetan gaztelaniaz prestatutako antzezlanak baitziren. Hori dela eta, aurretik esan bezala, euskarazko hizkuntza dramatikoak ez zuen behar bezala garatzeko aukerarik izan. Hala ere, azpimarratzekoak dira konpainiek hartu zuten arriskua, programatzaileen eta ikusleen zaletasunaren hauspoa eta, bereziki, aktoreek, itzultzaileek eta egokitzaileek egindako lana. Izan ere, 1980ko hamarkadako hainbat antzezlan ulergaitzak baziren, hamar urteren buruan aipatutako eragozpenen gorabeheran, hizkuntzaren estandarizazioa eta ahozkotatua ikaragarri hobetu zen antzerkian ere bai. Zalantzarik gabe, Euskal Telebistan egiten hasi berri ziren fikzioek lagundu zuten eta antzerkiak, bide batez, telebista elikatu zuen.

À noter également, toujours au Pays basque du Nord, la trajectoire de la compagnie Ildoka, dont un des membres est le célèbre dramaturge Daniel Landart, ou celle du groupe Iduzkilore, créé en 2010, ainsi que celle des compagnies 13R3P et Itzuli, dirigées par Maryse Urruty et Tokia Théâtre. En puis il existe également d'autres compagnies ainsi que des conteurs qui travaillent principalement en langue basque et qui se déplacent de ville en ville pour jouer leurs créations. À propos de la langue, le dramaturge prolifique Antton Luku disait dans la revue *Argia* : « Associer le français au théâtre professionnel et le basque au théâtre amateur nous amène à reproduire dans le domaine de la culture la mise en concurrence des langues. »<sup>9</sup>.

Nous ne pouvons terminer sans mentionner les groupes amateurs qui se sont formés dans tant de localités. Certains ont pu travailler pendant des années grâce à l'aide des municipalités, et d'autres proposent des cours de théâtre, en nourrissant culturellement les communes. Ainsi, le groupe Karrika de Durango (Biscaye), dirigé pendant vingt ans par Jose Martin Urrutia, dont le travail se poursuit ; ou le groupe Antxieta d'Azpeitia (Guipuscoa), qui après vingt-deux ans d'activité, a disparu en 2003 ; ou encore la troupe Lakrikun, également d'Azpeitia, créé en 1998 et qui a repris le flambeau d'Antxieta, composée par Gurutze Eizmendi, Idoia Uranga et l'autrice et la metteuse en scène Alaitz Olaizola. Cette dernière a également créé un atelier de théâtre pour femmes, qui entre 2004 et 2015, préparait chaque année une nouvelle pièce. Dans de nombreuses autres villes, comme Azpeitia, Zestoa, Zumaia et Erreterian (Guipuscoa), ou Gernika, Getxo et Bilbao (Biscaye), de nombreux enfants et de jeunes participent à des ateliers de théâtre, et toutes ses initiatives sont essentielles pour attirer de nouveaux spectateurs et provoquer le goût du théâtre.

Dans certains endroits des pièces de théâtre ont été créées en se basant sur des faits ou des personnalités historiques, et dans lesquelles la population a grandement participé. Cela a été le cas à Getaria (Guipuscoa), où ils ont mis en scène la pièce *Elkano, herria txioka!* (2009) ; à Gernika (Biscaye), où on a interprété les œuvres *Gernika Sutan I* (« Gernika en feu », 2010) et *Gernika sutan II* (2011), ou encore à Azpeitia (Guipuscoa) avec l'œuvre *Matxinada* (« Le Soulèvement », 2018) d'Imanol Elias.

De nombreux autres groupes ont également travaillé et continuent à travailler dur pour que leurs œuvres parviennent jusqu'aux enfants, aux jeunes et aux adultes. Grâce au formidable travail de création de chaque groupe, le théâtre basque contemporain jouit actuellement de la renommée et de la qualité qu'il mérite.

# **Euskal antzerkiaren gaiak: memoria**

Pedro Barea

# **Les thèmes du théâtre basque : la mémoire**

Pedro Barea

## BESTE BEGIRADA BAT

1966an Bilboko *Hierro* egunkarian argitaratutako artikulu batean, «Kriselu, grupo de teatro vasco» («Kriselu, euskal antzerki-taldea») izenekoan, frankismoan euskarazko antzerkia zertan zen azaldu zuen Gabriel Arestik. Artikuluan, Arestik gogora ekartzen du Euskaltzaindiaren babespean sorturiko Txinpartak folklore-taldeak utzitako herentzia erreformatzea zuela helburu nagusi, euskaraz egiten zen antzerkiari garrantzi handiagoa emateko, eta aitortzen du garai hartan –1966. urtea zen– nekez erabil zitezkeela sasoi hartatsuko testu originalak. Ez erreparorik gabe, azkenean Ugo Bettiren *Delitto All isola delle capre* hautatu zuen, eta honela itzuli, Aresti *otso bakartiak* berak «gipuzkera-kutsuko bizkaiera» esaten zion euskara-moldera: *Auntz-erriko bidegabea*. Goizeko emanaldi bat izan zen, Bilboko Ayala antzokia jada desagertutakoan. Arestiren asmoa modernizatzailea zen inondik ere, baina ez zeuzkan ahazteko XVIII. eta XIX. mendeetako euskal autoreak –Barrutia eta Oihenarte–, ez eta orduko autore hasiberriak ere, hala nola Bernardo Atxaga, zeinari *Borobila eta puntua* argitaratu baitzion. Arestik garaikide zuen Donostiako Jarrai taldea.

Hurrengo sortzaile-belaunaldia 1975ean hasi zen eratzten. Diktadurak hitza galtzea ekarri zuen, eta hori gertatzeaz batera, antzerkiak errelato handia eta txikia, biak ala biak galdu zituen, eta ezer izatekotan, antzerkia memoria da funts-funtsean, hau da, kultura *eraiki* baino gehiago talde-memoria elikatzen duen artea. Are gehiago, antzerkiak zentzua sortzen du –alderdi espresiboa–, eta horrek ingurunearekin dugun harremana osatzen –alderdi ekonomikoa– eta harreman sozialaren konbentzioa josten du –funtzio legitimatzailea–, Armand Mattelart-ek definitzen duenez. 1980ko hamarkadan

30. Gabriel Aresti (eskuinean), agur bazkari batean, Unai Gallastegiren ondoan. Bilbo, 1959.



30. Gabriel Aresti (à droite) lors d'un repas d'adieu, à côté de lui, Unai Gallastegi. Bilbao (Biscaye), 1959.

## UN AUTRE REGARD

Dans son article « Kriselu, grupo de teatro vasco » publié en 1966 dans le journal *Hierro* de Bilbao, Gabriel Aresti explique le théâtre basque sous le régime franquiste. Aresti y rappelle que son intention principale est de réformer l'héritage de Txinpartak, groupe folklorique soutenu par Euskaltzaindia – Académie de la langue basque, dans l'idée de donner une place plus importante au théâtre en langue basque, et il reconnaît qu'il n'était pas facile d'utiliser des textes originaux de l'époque – on était en 1966 –. Il s'est finalement décidé, non sans réserves, pour *Delitto All isola delle capre* d'Ugo Betti, qu'il traduit vers le basque, *Auntz-erriko bidegabea*, un basque que le loup solitaire Aresti qualifie de biscayen au style guipuscoan. La pièce fut jouée en matinée, le 5 juin 1966, au théâtre Ayala de Bilbao, aujourd'hui disparu. Aresti était un modernisateur, mais n'oubliait pas les auteurs basco-phones des XVIII<sup>e</sup> et XIX<sup>e</sup> siècles – Barrutia et Oihenarte – ni les tout jeunes auteurs comme Bernardo Atxaga, dont il publia *Borobila eta puntua*. Le groupe Jarrai de Donostia était contemporain d'Aresti.

La génération suivante de créateurs s'est constituée à partir de 1975. Avec la dictature la parole s'était éteinte et, avec elle, la grande et la petite histoire également, au sein d'un art, le théâtre, qui, au fond, est mémoire, c'est-à-dire que plutôt que de *construire* la culture, il nourrit la mémoire collective. Qui plus est, le théâtre produit du sens – l'aspect expressif –, qui constitue notre rapport à l'environnement – l'aspect économique – et développe la convention des rapports sociaux – la fonction de légitimation – telle que définie par Armand Mattelart. L'intégration du basque véhiculaire dans l'enseignement officiel des années 1980 a conduit la langue basque à être l'expression de nouvelles problématiques, de nouvelles préoccupations. En 1975, il semblait que tout était encore à faire.

Ce qui a produit des formes de mémoire singulières et des comportements non-exclusifs. D'une part, une sorte de souvenir emprunté à *L'otage* de Brendan Behan (1967 et 1970) mis en scène par Luis Iturri et joué par la troupe Akelarre de Bilbao, et d'autre part, *Agur, Eire, agur* de Brian Friel (« Adieu, Eire, adieu », 1988) adapté par la compagnie Tanttaka, ainsi que d'autres œuvres théâtrales que l'on pourrait qualifier de comparables. Comme la pièce *Pasionaria, no pasarán* (1993) d'Ignacio Amestoy et du groupe Gasteiz de Vitoria-Gasteiz ; ainsi qu'une sorte de mémoire créée à partir d'éléments émotionnels et exaltants, pour diviser les gens et ériger des frontières – le patriotisme, le mérite, la douleur partagée, la mission des héros, le récit, l'imaginaire collectif – comme les œuvres *Irrintzi!* (1977), *iGuerra ez!* (« Non à la guerre ! », 1978) et *Hator!* (« Reviens ! », 1980).

Enfin, il y a une autre mémoire nécessaire, due, exigée, qui s'appuie sur le réalisme, la satire, ou la distance qui rend hommage aux faits. Des pièces qui illustrent cette mémoire due sont, entre autres, *Grand Place* (1985) de Mario Onandia, *Los abrazos perdidos* (« Les Embrassades perdues », 1995) de Roberto Herrero, *Askatasuna* (« La Liberté », 1971) d'Alfonso Sastre ou *Soinujolearen semea* (« Le Fils de l'accordéoniste », 2004) de Bernardo Atxaga. Cette mémoire due est la mémoire du futur et, en quelque sorte, la catharsis et l'engagement.

Durant les premières années de la transition le climat était en effervescence contre le centralisme politique et culturel. Aucun des grands problèmes

irakaskuntza-sistema ofizialeko hizkuntza nagusi bihurtzearekin batera, euskara arazo eta kezka berrien adierazpide bilakatu zen. 1975ean, dena egiteko zegoela ematen zuen.

Horrek memoria-forma oso bereziak eta jarrera ez-baztertzailak ekarri zituen: adibidez, *memoria mailegatu* moduko baten gisan, hortxe daude, batetik, Brendan Behan-en *The hostage* («Bahitua», 1967 eta 1970), Luis Iturrik zuzendu eta Akelarre taldeak Bilbon taularatu zuena, eta, bestetik, Brian Friel-en *Agur, Eire, agur* (1988), Donostiako Tanttaka taldeak egokitu zuena, bai eta bi horiekin pareka litezkeen beste antzezlan batzuk ere; edota memoria berregin baten berridazketa modura, hortxe dago, besteak beste, Ignacio Amestoy eta Gasteiz taldearen *Pasionaria, ¡no pasarán!* («Pasionaria, ez dira pasako!», 1993); edota halako *memoria sortu* baten gisan, osagai emozional eta goresgarri nabarmenekin, jendea bata besteagandik bereiziz eta elkarren artean mugak ezarriz –abertzalekeria, merituak, oinaze partekatuak, heraien zeregina, iruditeria kolektiboa–, hortxe daude, esate baterako, *Irrintzi!* (1977), *¡Guerra ez!* (1978) eta *Hator!* (1980) antzezlanak.

Beste memoria bat ere badago, guztiz beharrezkoa, elkarri zor diogulako elkarri eskatzen dioguna eta errealismoa, satira eta gertaeren aurrean errenditzen den distantzia oinarri dituen. *Elkarri zor diogun memoria* horren adibide dira, besteak beste, Mario Onandiaren *Grand Place* (1985), Roberto Herreroen *Los abrazos perdidos* («Besarkada galduak», 1995), Alfonso Sastrearen *Askatasuna* (1971) eta Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea* (2004). *Elkarri zor diogun memoria* hori *etorkizuneko* memoria da eta, alde edo molde, baita katarsi eta engaiamendu ere.

Trantsizioaren lehen urteetan, zentralismo politiko eta kulturalaren kontrako giroa irakiten zegoen. Frankismoak, aurrean genituen arazo larrietariko bakar bat ere konpondu ez, eta denak estali zituen, besterik ez. Gerra geratu zen sinbolo gisara, eta antzerkia izan zen hura suspertu zuena.

*¡Guerra ez!* antzezlanaren eskuorrian, nazio-kontuak aipatzen ziren: «Behar bestetan esan beharra dago Euskal Herrikoa bezalako gizarte gatazkatsu batek antzerki eragingarri baten premia duela. Antzerkiak gogoeta- eta hizkuntza-ariketa izan behar du (...). Antzerki kontziente bat behar dugu, antzerki profesional bat, gogoetarako gaiak emango dizkiguna, jendea artegatzeko balioko duena, gurea bezalako gizatalde berezi baten dinamika historikoa islatuko duena eta –hau funts-funtsezkoa da– haren jarduna beste kultura batzuetako ekarpenek etengabe aberastuko dutena».

## MEMORIA MAILEGATUA

Euskal antzerkia tunel mutu eta agrafo batetik irteten ari zen. Brendan Behanen *The hostage* («Bahitua») eta Brian Frielen *Translations* (euskarazko eta gaztelaniazko bertsioetan: «Agur, Eire, agur»): bi antzezlan horiek ederki asko ematen dute kausa jakin baten aldeko gaiak buruzko antzerki-molde bat eraiki nahiaren berri. *The hostage*-ren bi bertsio egin ziren, 1967an eta 1970ean. Lehenengoa Valladolideko Antzerki Berriaren II. Jaialdira eraman zuten, eta zuzendari eta aktore onenen sariak eman zizkioten.

Merezi du datak berriz aipatzea: 1967 eta 1970. Aurrenekoa ETAko Francisco Javier Txabi Etxebarrieta militantea 1968ko ekainaren 7an hil baino lehenagokoa. Kontrol batean erori zen Etxebarrieta, Ángel Pardines guardia zibil galiziarra tiroka hil zituztenak ehizatzeako operazioan. 1967ko bertsioan,

n'avaient été réglé sous le régime de Franco, ils avaient été muselés. La guerre devint un symbole, et fit sa réapparition au théâtre

Dans le programme de la pièce, on évoquait des affaires nationales: « Il est nécessaire de rappeler qu'une société conflictuelle comme celle du Pays basque a besoin d'un théâtre utile. Il faut revenir au théâtre comme un exercice de réflexion et de parole (...). Un théâtre conscient et professionnel qui apporte matière à réflexion, qui inquiète et reflète la dynamique historique d'une collectivité singulière, et qui s'enrichit chaque jour – et cela est fondamental – de la contribution d'autres cultures ».

## UNE MÉMOIRE EMPRUNTÉE

Le théâtre basque sortait d'un long tunnel muet et sans écrits. Deux œuvres successives, *L'otage* de Brendan Behan et *Translations* de Brian Friel, intitulées dans leur double version en basque et espagnol *Agur, Eire, agur*, témoignent d'une volonté de construire une forme de théâtre à thèmes en faveur de causes précises. Il y eut deux versions de *L'otage*, en 1967 et en 1970. On joua la première version lors de la deuxième édition du Festival du nouveau théâtre de Valladolid, qui remporta le prix de la mise en scène et du meilleur acteur.

Rappelons ici les dates : la première, antérieure à la mort du militant d'ETA Francisco Javier Txabi Etxebarrieta, le 7 juin 1968. Etxebarrieta tomba lors d'une opération destinée à arrêter les auteurs du meurtre du garde civil galicien Ángel Pardines. Dans la version de *L'otage* de 1967 on chassait le folklorisme ou la banalité des comportements assignés au nationalisme, le thème du terrorisme était encore étranger, irlandais. Cependant, l'attentat contre le chef de la brigade politico-sociale du Guipuscoa, peu de temps après, en réponse au premier attentat, replacerait le sujet dans un autre contexte. Dans la version de 1970, l'expérience du terrorisme existait déjà. On n'y faisait pas d'apologie, bien sûr, car l'œuvre ne l'exigeait pas, mais on faisait bien un parallèle : Irlande / IRA = Pays basque / ETA.

Il existe une troisième version de *L'otage* écrite par Ángel Facio en 1999, mais qui n'a pas été mise en scène. Le texte circule sous le titre *Rehenes*. Il s'agit d'une œuvre caustique, qui met le doigt sur la plaie : sans alibi, les personnages ne sont plus les autres. Dans la pièce, le bordel est bien basque et les personnages ont des noms basques, à l'exception de Pérez qui est le nom étranger du soldat remplaçant, pris en otage, et devenu héros malgré lui.

Une autre pièce d'emprunt – *ayant une fonction qui crée du sens* ou qui légitime – est *Agur, Eire, agur* (1988), jouée par deux troupes de théâtre du Guipuscoa : Tanttaka et Topo, et mise en scène par le catalan Pere Planella, créée en Galice. L'action se déroule dans une école privée du quartier Baile Beag, ou Ballybeg, dans une communauté rurale de langue gaélique du comté de Donegal, en Irlande, à la fin du mois d'août 1833. À l'école pauvre du village on apprend à écrire et à lire en gaélique, et on y étudie aussi le grec et le latin. Les cartographes militaires anglais arrivent au village afin d'établir de nouvelles cartes où les toponymes locaux seront rebaptisés. Le jeu de scène a un traitement linguistique réfléchi, les acteurs déclament en basque tout ce qui se rapporte à la langue autochtone, tandis que les soldats occupants parlent en espagnol. Le metteur en scène et auteur de



folklorismoa eta nazionalismoak itsatsiak dituen jarrerren hutsalkeria haztzen ziren *The hostage*-n, baina terrorismoaren gaia arrotza zen, atzerrikoa, Irlandakoa. Pixka bat geroago Brigada politiko-sozialeko buruaren kontrako atentatu-errekadak, ordea, beste testuinguru batera eramane zuten gaia. 1970eko bertsoa estreinatu zenerako, jada bagenuen terrorismoaren esperientzia. Ez zegoen apologiarik, noski, antzezlanak ez baitzuen halakorik agintzen, baina bai paralelismo bat: Irlanda/IRA = Euskal Herria/ETA.

*The hostage*-ren hirugarren bertso bat ere badago, Ángel Faciok 1999an idatzia baina sekula antzeztu gabea. Testua hortik zehar dabil: *Rehenes* («Bahituak»). Antzeztan kaustiko bat da, zaurian piko egiten duena: zuri-garririk gabe, pertsonaiak jada ez dira beste batzuk. Burdela bertakoa da, pertsonaien izen-deiturak euskaldunak dira; Pérez da salbuespena, soldadu ordezko *maketoa*, berak nahi gabe heroi bihurtua, bahitua.

Beste pieza *mailegatu* bat *-funtzio zentzu-sortzaile* edo legitimitzaile nabarmenekoak *- Agur, Eire, agur* (1988) da, Gipuzkoako Tanttaka eta Topo taldeek taularatua eta Pere Planella katalanak zuzendua, eta hura ere Galizian estreinatua. Istorioa Baile Beag edo Ballybeg barrutiko eskola partikular batean girotzen da, Donegal konderriko landa-herri gaeliko-hiztun batean, Irlandan, 1833ko abuztuaren amaieran. Herriko eskola pobrea, gaelikoz idazten eta leitzen irakasten diete haurrei, eta greziera eta latina estudiatzen dute. Herrira kartografo militar ingelesak iritsi dira, bertako toponimoak aldatu eta haiekin mapa berriak egitea helburu harturik. Ariketa eszenikoak izaera linguistiko guztiz neurtua dauka, aktoreek euskaraz deklamatzeko dute bertako hizkuntzarekin lotuta dagoen guztia, baina soldadu okupatzaileak gaztelaniaz mintzatzen dira elkarrekin. Planella zuzendari eta egokitzaileak honela laburbildu zuen asmoa: «Antzeztanean prozesu historiko baten berri ematen da, eta gaur egun bai Irlandan eta bai hemen gertatzen ari diren gauza asko eta asko esplikatzen dira bertan».

Ikuspegi zehar horretatik abiatuturik, mailegatutako memoria gehiago ere badaude. Esate baterako, arrazagatiko errebeldiaren, indarkeriaren eta intsumisioaren klixeko guztien jabe den Lope Agirre euskaldunaren inguruan, Geroa taldeak bi antzeztan taularatu zituen: *Kaixo, Agirre* (1979), Ramiro Pinilla eleberrigilearen gidoi labur batean oinarritua, eta *Doña Elvira, imagine Euskadi* («Doña Elvira, imagine Euskadi», 1986), Ignacio Amestoyk sortua.

Testuinguruak oso bestelakoak izanagatik, memoria mailegatuaren parte dira, orobat, *Nacidos culpables* («Errudun jaioak», 2001) eta *Paradero desconocido* («Leku ezezaguna», 2004), biak ere Tanttaka taldeak taularatuak. Peter Sichrovsky-ren *Nacidos culpables* antzeztanean, nazien seme-alaba eta biloben testigantzak jasotzen dira; berena izan ez zen erru baten oinordekoak dira denak ere *-jatorrizko bekatu halako bat ordaintzen ariko balira bezala-*, eta horrek beren bizitzak lanbrotu ditu. *Paradero desconocido*, Kathrine Kressmann Taylor idazlearen eleberrigutun-liburua, Fernando Bernuések zuzeneko musika eta guzti egokitu eta zuzendu zuen.

31. Geroa antzerki-taldea  
Ignacio Amestoyren  
*Doña Elvira, imagine Euskadi*  
antzeztana  
taularatzen, 1986an.

31. *Doña Elvira, imagine Euskadi*  
 («Doña Elvira, imagine Euskadi») d'Ignacio Amestoy, représentée par la compagnie Geroa en 1986.

l'adaptation Planella résume ainsi : « L'œuvre expose un processus historique qui explique beaucoup de choses qui se passent en Irlande et ici ».

À partir de cette perspective indirecte, il y a davantage de mémoires empruntées. Par exemple, autour de la figure du Basque Lope de Aguirre qui possède tous les clichés de la rébellion, de la violence, de l'insubordination raciale, il y a deux œuvres de la compagnie Geroa : *Kaixo, Agirre* (1979) d'après un scénario court du romancier Ramiro Pinilla, et *Doña Elvira, imagine Euskadi* («Doña Elvira, imagine Euskadi», 1986) d'Ignacio Amestoy.

Dans des contextes très différents, les pièces *Nacidos culpables* («Nés coupables», 2001) et *Paradero desconocido* («Inconnu à cette adresse», 2004), toutes deux jouées par Tanttaka, font également partie de la mémoire empruntée. *Nacidos culpables* de Peter Sichrovsky recueille les témoignages d'enfants et petits-enfants de nazis ; ils sont les héritiers d'une faute qui n'était pas la leur – comme s'ils étaient en train de payer pour un péché originel – mais qui entache leur vie. *Paradero desconocido* est le roman épistolaire de Kathrine Kressmann Taylor, dont l'adaptation a été réalisée par Fernando Bernuések avec de la musique jouée en direct.



## MEMORIA BERREGINA

Ignacio Amestoy, Salvador Távora eta Gasteiz taldearen *Pasionaria, no pasarán* («Pasionaria, ez dira pasako!», 1993) antzezlanak *memoria berregin* moduko bat da, eta, bertan, pertsonaia erreala, onomastika, erreferentzia historiko eta tenporalak, den-denak uztartzen dira aura poetiko berri-tzaileen dokumentuak balira bezala. Távora berak eman zuen horren berri, honela: «Pasionaria izena entzun orduko, euskal irrintziek Trianako martineten leku bera hartzen zuten nire gogoan, larridura horixe bera transmititzen zidaten, eta nire belarriek gurutziltzatuaren prozesioak balira bezala entzuten zituzten Araiako danborradak». Antzezlanak mitoan du sorburua, haren erraiak elezahar batekoak bezalakoak dira, eta hauxe da haren abiapuntuko hipotesia: zer gertatuko litzateke baldin eta...? Emakume batek lau urte daramatza hilik, eta berpiztu eta hortxe doa Stalingradera, 1942ko gerran hil zaion semearen gorpuaren bila. Zer gerta liteke? Antzezlanak sekulako polemika piztu zuen kritikarien artean, bertan ez baitzegoen pertsonaia unibokorik. Bere ederrean, antzezlanak harri eta zur utzi zituen denak, txunditurik.

Beste bi: Maskaradak *Gernika 16:30 H.S.O.* taularatu zuen 1987an. Talde bizkaitarrak askotan landu du gaia; azkeneko aldiz, 2011. urtean. Antzezlanak kanpoan kokatzen da –plaza, frontoia–, euskaraz, aktoreak eta musikariak, Edorta Jimenez eta Mikel Martinezen gidioa, Carlos Paneraren zuzendari-lana. Hiru denbora-plano: bonbardaketaren aurreko giroa; egunerokotasuna neska txiki baten begietatik kontatua, eta, azkenik, gaur egun bitarteko aldi luzea. Ikus-entzunezko antzezlan erraldoi bat da, Picassoren lanean oinarritua eta gerrak Euskal Herrian utzitako arrastoaren irudiz josia. Gorago aipaturiko Amestoyren lanean bezala, Maskaradaren honetan ere poesia eta epika eskutik helduta doaz.

Beste *Gernika* bat ere egon zen garaitu hartan, Kukubiltxo Larrabetzuko taldeak, Ramón Barea zuzendari zela, Mikel Laboaren musika eta guzti taularatu zuena hiria bonbardatu zuteneko berrogeita hamargarren



32. Maskarada taldearen *Gernika 16:30 H.S.O.* (1987).

## LA MÉMOIRE RECOMPOSÉE

*Pasionaria, no pasarán* (1993) d'Ignacio Amestoy, de la troupe Gasteiz et de Salvador Távora, est une sorte de mémoire recomposée avec des personnages réels, une onomastique, des références historiques et temporelles, comme s'il s'agissait de documents avec une nouvelle aura poétique. Távora en parlait ainsi : « Lorsque j'ai entendu le nom de Pasionaria, j'ai entendu l'*irrintzina* dans le même espace angoissé que celui du *martinete* de Triana, et les tambours d'Araia tonnaient à mes oreilles comme s'il s'agissait des processions qui accompagnent nos crucifiés ». La pièce de théâtre naît du mythe, ses entrailles sont comme celles d'une fable, et voici son hypothèse de départ : que se passerait-il si?... C'est une femme qui est morte depuis quatre ans, qui ressuscite et se rend à Stalingrad en 1942, pour récupérer le corps de son fils mort à la guerre. Que se passerait-il ? Cette œuvre a suscité une polémique publique et critique, car les personnages n'ont pas de lectures univoques. La beauté de la pièce a surpris tout le monde, mais les a aussi déconcertés.

Deux autres œuvres : Maskarada a mis en scène *Gernika 16.30 H.S.O* en 1987. La troupe biscayenne a souvent traité ce sujet ; en dernier, en 2011. La pièce se joue en extérieur – dans une place ou un fronton –, en basque, avec des acteurs et des musiciens, un scénario d'Edorta Jimenez et Mikel Martinez, et unemise en scène de Carlos Panera. La pièce se déroule en trois temps : il y a le temps d'avant le bombardement, le quotidien à partir du point de vue d'une petite fille et, enfin, l'entrée des fascistes et la longue période jusqu'à aujourd'hui. C'est une mise en scène audiovisuelle géante inspirée du travail de Picasso, avec des images de la guerre au Pays basque. À l'instar de l'œuvre d'Amestoy évoquée plus haut, dans celle de Maskarada aussi la poésie et l'épique sont liées.

Il y eut un autre *Gernika* à la même époque, celui de la compagnie Kuku-biltxo de Larrabetzu (Biscaye), mis en scène par Ramón Barea, sur la musique de Mikel Laboa, à l'occasion du cinquantième anniversaire du bombardement (1937-1987). Ce fut une autre mise en scène de grand format avec des échassiers, des effets de lumière et de feu, rythmée par une mélodie qui donnait des frissons. C'était la représentation de *Gernika profané*, l'assaut contre l'enceinte sacrée. Chants de résurrection, lumière, colombe de la paix et images de la reconstruction.

La pastorale *Agirre presidenta* (« Le Président Agirre ») écrite par Jean-Louis Davant (la pastorale est une des expressions scéniques traditionnelles du Pays basque) avec une partition de Jean Bordachar et des arrangements musicaux de José Mari Iparragirre et Víctor Zubizarreta et d'autres pièces populaires, a été jouée en 1995 dans le village souletin d'Arrokiaga. La pastorale rendait hommage au président du Gouvernement basque de l'époque de la République, José Antonio Agirre. Cette pastorale au caractère novateur, rassemble les attributs théâtraux de la mémoire créée. La nature générale des personnages, l'innocence combative, le manichéisme ou la tendance à inventer des faits sont repris dans cette pièce aux racines populaires enracinées dans ce que la pastorale avait de célébration et de fête. Le préambule de cette pastorale est également très singulier :

« Certaines parties de cette pastorale nous rappelleront des événements douloureux. La faute en revient à l'histoire et non aux acteurs. (...) (...) Merci de différencier, par exemple, Hitler et l'acteur ».

urteurrenean (1937/1987). Antzezlan formatu handikoa zen: zangaluzek, argi- eta su-efektuak, eta edozeini hotzikarak eragiteko moduko musika. Gernika profanatuaren errepresentazioa zen, tenplu sakratuaren kontrako erasoarena. Pizkunde-kantuak, argia, bakearen usoa eta berreraikuntzaren irudiak.

Jean-Louis Davantek idatzitako *Agirre presidenta* pastoralak (pastorala Euskal Herriko herri-antzerkiaren adierazpenetako bat da) Jean Bordaxarrena zuen partitura, eta Jose Mari Iparragirre eta Víctor Zubizarretarenak, berriz, abestietako asko, eta 1995ean estreinatu zuten Zuberoako Arrokiaga herrian, José Antonio Aguirre Errepublikaren garaiko Eusko Jaurlaritzako lehendakaria omentzea helburu harturik. Pastoralak kutsu berritzailea eta ezaugarriak *memoria sortuaren* antzerkiarenak zituen. Pertsonaien izaera orokorra, laxotasun oldarkorra, manikeismoa, gertakariak asmatzeko joera... Hori eta gehiago aurkitu daiteke, han-hemenka errepikaturik, sustraiak pastoralen betiko ospakizun- eta jai-giro horretan botiek dituen pieza herriko horretan. Pastoralaren hitzaurrea ere oso bitxia da:

«Pastoralaren zati batzuek gertaera mingarriak ekarriko dizkigute gogora. Errua Historiarena da, ez aktoreena. (...) Eskerrik asko Hitler, adibide bat jartzearren, eta aktorea bereizteagatik».

Egituraz, pastoraleko eszena-sortak *katean* eraikiriko errelato batean artikulatzen dira. (Neo)pastoral honetan, tradizio erromanikoan ohikoa denez, Ongia eta Gaizkia elkarren aurrez aurre daude (Onak -kristauak, euskaldunak...-; Gaiztoak -espainiarrak, mairuak...-), eta, amaieran, Ongia gailentzen zaio Gaizkiari, tartean dantzak, kantuak eta koroak ere badituen koreografia kodetu baten bidez.

Beste multimedia-pieza bat ere aipatu behar da, pastorala bezala musikala hau ere, errituzko dantzaz eta testu ugariz betea: 1937. *Gogoaren bidezidorretatik / Por las sendas del recuerdo*. Elementu errealak ere tartekatzen dituen antzezlan landu eta estilizatu hau bete-betean sartzen da memoria berreginaren kategorian. Benetan gertatutako pasadizo batetik abiatzen da: 1937ko maiatzaren 7an, gerra zibiletik ihesi, erbestera joan behar izan zuten haurren esperientziatik, alegia. Mireia Gabilondok zuzendu zuen antzezlan, eta Jon Maya eta Kukai-Tanttaka (dantza eta antzerkia) arduratu ziren koreografiak. 2003. urtean, 1937. *Gogoaren bidezidorretatik* Tárregako (Lleida) Fira de Teatro al Carrer jaialdira eraman zuten.


## MEMORIA SORTUA

*Memoria sortua* memoria faltsua da, inoiz existitu ez den errealitate baten berri ematen digulako eta sortzen dituen materialekin eraikitako imajinarioak egilearen beraren nahi eta desira besterik ez duelako adierazten. *Tradizioen asmazioa* ere deitu ahal zekiokkeen. Ildo horren erakusgarri da, beste antzezlan askoren artean, Luis Iturri antzerkigilearen trilogia.

Akelarre taldeak honela definitu zuen bere burua: «Gure taldea 1966az geroztik ari da lanean antzerki independente eta kritikiko baten alde. Erresistentzia bat izan da. Zeri egin behar izan diogun aurre -eta gaur egun ere horretan jarraitzen dugu-, zuek ere erraz imajinatuko duzue. (...) Gure lanak, errealitatea islatzeaz gainera, abangoardian egotea du xede: gure

33. Luis Iturri zuzendari zuen Akelarre taldeak taularatutako *Irrintzi!* (1977) antzezlan.

33. La compagnie Akelarre dirigée par Luis Iturri, jouant la pièce *Irrintzi!* (1977).



Structurellement, les scènes de la pastorale sont articulées dans un récit construit en chaîne. Cette (néo)pastorale, où le Bien affronte le Mal, comme il est de mise dans la tradition romane (les Bons – les chrétiens, les Basques... – et les Mauvais – les Espagnols, les Maures...), se termine par la victoire du Bien sur le Mal, dans une chorégraphie codifiée qui comprend des danses, des chants et des chœurs.

Une autre pièce de théâtre multimédia, aussi musicale que l'est la pastorale, avec des danses rituelles et de nombreux textes, date de 1937 : *Gogoaren bidezidorretatik*. C'est une œuvre élaborée et stylisée, qui incorpore des éléments réels et qui s'inscrit dans la catégorie de la mémoire recomposée. Elle repose sur un fait réel : l'exil des enfants fuyant la guerre civile d'Espagne le 7 mai 1937. La mise en scène est de Mireia Gabilondo et la chorégraphie de Jon Maya et Kukai-Tanttaka (danse et théâtre). En 2003, la pièce *Gogoaren bidezidorretatik* (« Le Long des sentiers de l'âme ») a été jouée à la Fira de Teatro à Carrer de Tárrega (Lleida).

## LA MÉMOIRE CRÉÉE

Par *mémoire créée*, nous entendons la fausse mémoire qui propage une réalité inexistante et trame des matériaux qui construisent un imaginaire qui exprime la volonté de l'auteur, son envie et son désir. On l'a également nommé *l'invention des traditions*. Plusieurs pièces illustrent cette voie, dont la trilogie de Luis Iturri (1945-1998).

La compagnie Akelarre se définissait comme « une troupe qui œuvre depuis 1966, pour un théâtre indépendant et critique. Cela a été une résistance. Ce à quoi nous avons dû résister – et nous résistons toujours – vous pouvez facilement l'imaginer. (...) Le but de notre travail n'est pas seulement d'être le reflet d'une réalité, mais d'être également à l'avant-garde de la dynamique culturelle, sociologique et politique de notre peuple. (...) Nous participons activement au mouvement de promotion et de dynamisation de la récupération de notre langue. (...) Le théâtre que nous voulons faire est une contribution à la lutte pour la libération de l'homme. Nous pouvons tous collaborer à la création d'un théâtre populaire national basque ».

Le sous-titre du *Ritual del pueblo vasco* (« Le Rituel du peuple basque ») était *Irrintzi!*, et a été créé le 20 avril 1977 au théâtre Ayala de Bilbao. La pièce a vu le jour à l'atelier de théâtre de l'Université du Pays basque (UPV / EHU) qui était dirigé par Luis Iturri, dramaturge et responsable de la compagnie Akelarre. Des artistes extérieurs à l'UPV y ont collaboré, tels qu'Ignacio Fernández de Aguirre, le plasticien Agustín Ibarrola et son fils José (qui a reçu le prix Ercilla en 2012 pour sa carrière en tant que scénographe), le peintre Dionisio Blanco, la compositrice Marisa Ozaita,

herriko dinamika kultural, soziologiko eta politikoaren abangoardian. (...) Aktiboki parte hartzen dugu gure hizkuntzaren berreskurapena sustatzeko eta dinamizatzeko mugimenduan. (...) Egin nahi dugun antzerkiak bere ale-txoa ekarri nahi dio gizakia liberatzearen aldeko borrokari. Denok kolabora dezakegu euskal herri-antzerki nazional bat sortzeko lanean».

*Irrintzi!* azpituulua zeraman *Ritual del pueblo vasco* («Euskal herriaren errituala») antzezlanak, Bilboko Ayala antzokian estreinatu zutena 1977ko apirilaren 20an. Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) bazegoen antzerki-tailer bat, Luis Iturri antzerkigile eta Akelarre taldearen liderrak zuzentzen zuena, eta hantxe sortu zuten antzezlanak. Tartearen zeuden EHUz kanpoko zenbait artista ere, hala nola Ignacio Fernández de Agirre, Agustín Ibarrola artista plastikoa eta haren seme José Ibarrola (2012an Ertzilla saria eman zioten eszenografo gisa egindako lan-ibilbideagatik), Dionisio Blanco pintorea, María Ozaita konpositorea, Vidal de Nicolás poeta, Angel Zelaieta, Alberto Musons, Luis Haranburu Altuna idazlea, José María Garmendia historialaria eta Akelarre Haur Antzerki Taldea. Eta zein zen, ba, pertsona haien guztien akuilu nagusia? Denak zetozen ezkerren tradizioetik, eta denak ziren unibertsitarioak. Hantxe ibili zen César Sarachu ere, gaur egun nazioartean aski ezaguna den aktorea.

*¡Guerra ez!* (gaztelania, *guerra*, eta euskara, *ez*, bi-biak uztartuz) Gallartan estreinatu zuten, herriko frontoian, 1978ko azaroaren 1ean, Eusko Jaurilaritzak antolatutako antzerki-jaialdi ibiltari baten barruan. Gorago aipatu dugun antzerki-tailer unibertsitarioak sortu zuen arren, geroago, 1979an, Akelarre taldeak beretu zuen. Antzezlanak hiru maila estetiko ditu: gerra bera; alderdi humano eta pertsonala, eta herriaren sakrifiziozko kantua. Amaieran, hauxe galdetzen da: zergatik gerra?

Tradizio asmatuaren ildo horixe segituz, Iturrik bere trilogiako azken antzezlanak sortu zuen, eta Akelarre taldeak Bilbon taularatu: *Hator!*, Espainian sozialistek 1982an hauteskundeak lehen aldiz irabazi baino lehentxoago. Antzezlanaren mezua berradiskidetzearen eta etxera bueltan etortzearen aldekoa zen, Gabon-kanta ezaguna gogoan: «Hator, hator, mutil, etxera!».

*Memoria sortu* gisa ere balio dezake Elías Amezaga bilbotarraren antzerki-lanen bilduman argitaratutako *Sin Sabin* («Sabin gabe») antzezlanak, *hizorian dagoen gizon entzutetsu bati buruzko gogoeta* denak. Erne, zeren eta 1936az geroztik, eta XIX. mendearen amaieratik XX.eko hasierara bitartean ez bezala, ez baitzen baieztapen nazionalen antzerkirik batere egin gurean. *Sin Sabin* jolas bat da, euskal nazionalismoaren sortzailearen kontrako epaiketa alegiazko bat planteatzen duena, baina XXI. mendeko gizon-emakumeen ikuspegitik betiere, hura bizi izan zenetik ehun urte igaro direla kontuan hartuta. Diskurtsoa heroia erlatibizatzean ardatzen da –landa-giroa, erlijiosotasuna, etnizitatea, erlijio-usteko bat–, politikaren alorrean laikotasuna zabaldu den garaiotan horixe delakoan joera nagusia. Antzerkia antzerkiaren barruan: horixe da *Sin Sabin* antzezlanaren eskema. Epaiketa bat garatzen da bertan, hau da, hitzezko kontakizun bat –proiektzio eta dokumentu eta guzti–, eta egitura, nabarmen-nabarmen, dramatiko du, Aranatarren eta Sotatarren arteko borroka baita hari nagusia.

Nafarroan, trantsizio demokratikoa amaitu berritan, Francisco Larrainzarrek bi antzezlan taularatu zituen: *Carlismo y música celestial* («Karlismoa eta musika zerutarra») eta *Navarra ¿sola o con leche?* («Nafarroa, hutsa ala esne pixka batekin?»); azken 1980ko hamarkadako ikuskizun-enblema polemikoaren paradigmatzat har daiteke. Antzezlanak El Lebril Blanco taldeak estreinatu zuen Iruñean, Valentín Redín zuzendari zela. Izenburuak dena esaten du, inondik ere.

le poète Vidal de Nicolás, Angel Zelaieta, Alberto Musons, l'écrivain Luis Haranburu Altuna, l'historien José María Garmendia et la compagnie de théâtre pour enfants Akelarre. Et qu'est-ce qui animait donc toutes ces personnes ? Ils étaient tous de gauche et universitaires ; comme César Sarachu, aujourd'hui acteur internationalement connu.

La pièce *Guerra ez!* (qui associe le mot *guerra* en espagnol et le mot *ez* en basque) a été créée au fronton de Gallarta (Biscaye) le 1er novembre 1978, lors d'un festival de théâtre itinérant organisé par le Gouvernement basque. Il s'agissait d'une création de l'atelier de théâtre universitaire cité plus haut, reprise plus tard par la compagnie Akelarre. Dans cette pièce de théâtre trois niveaux esthétiques coexistent : la guerre, l'aspect humain et personnel, et le chant du sacrifice du peuple. La question qui se pose à la fin est : pourquoi la guerre ?

Cette tradition inventée se poursuit avec *Hator!* (1980), la dernière pièce de la trilogie d'Iturri jouée par la troupe Akelarre de Bilbao : la pièce *Hator!* a été créée peu avant la première victoire électorale des socialistes en Espagne (1982). Le message de cette pièce était celui de la réconciliation, du retour à la maison, qui provient d'une chanson populaire de Noël et qui signifie « Reviens, reviens à la maison ! ».

La pièce dramatique *Sin Sabin* (« Sans Sabin ») publiée dans l'anthologie théâtrale d'Elías Amezaga (1921-2008) de Bilbao, peut s'inscrire dans la mémoire créée. Cette pièce est une réflexion sur une personne célèbre qui est mourante. Attention, car il n'y avait guère de théâtre d'affirmation nationale depuis 1936, comme il pouvait y en avoir à la fin du XIX<sup>e</sup> siècle et au début du XX<sup>e</sup> siècle. *Sin Sabin* est un jeu dont la trame est le prétendu procès du fondateur du nationalisme basque du point de vue de la société du XXI<sup>e</sup> siècle, donc cent ans plus tard. Le discours est axé sur la relativité du héros – ruralisme, religiosité, ethnicité, pseudo-religion – dans un siècle qui tend vers la laïcité politique. *Sin Sabin* est une pièce de théâtre dans une pièce de théâtre. Il s'agit d'un procès, d'un récit verbal – contenant des projections, des documents – à la structure dramatique, qui montre la lutte entre les Arana et les Sota.

En Navarre, juste après la transition démocratique, Francisco Larrainzar a mis en scène deux pièces de théâtre : *Carlismo y música celestial* (« Le Carlisme et la musique céleste ») et *Navarra ¿sola o con leche?* (« La Navarre, avec ou sans lait ? »). Cette dernière est considérée comme un spectacle-emblème controversé des années 1980. La pièce a été jouée à Pamplune par la compagnie El Lebril Blanco, et mise en scène par Valentín Redín. Tout est dans le titre.

## LA CATHARSIS, LA MÉMOIRE DUE

La mémoire due – en suspens – rend un hommage inéluctable aux événements proches, en partant du réalisme, de la satire ou de la distance réfléchie. Et en abordant le présent et l'avenir.

La pièce de théâtre *Sueños de identidad* (« Rêves d'identité ») obtint le prix Serantes en 2000 à Santurtzi (Biscaye). Cette œuvre satirique de Francisco Javier Gil Díez-Conde est tout à fait paradigmatique, car elle montre ce que signifie le fait d'écrire du théâtre loin des circuits de production les plus actifs. L'œuvre se situe au Pays basque et les personnages habitent



## KATARSIA, ELKARRI ZOR DIOGUN MEMORIA

*Elkarri zor diogun memoriak* –iristear dagoen memoriak– gertuko gertaerak omentzen ditu halaberrez, eta hori errealismotik, satiratik edota distantzia hausnartzaitetik abiatuta egiten du, oraina nahiz geroa hizpide harturik.

*Sueños de identidad* («Identitate-ametsak») antzezlanak Serantes saria jaso zuen 2000. urtean, Santurtzin. Francisco Javier Gil Díez-Conderen antzezlan satiriko hori guztiz paradigmaticoa da, primeran erakusten baitu zer den zirkuitu aktiboenetatik urruti samar antzerkia idaztea. Antzezlan Euskal Herrian giroturik dago, eta esperpentoaren lurraldean bertan goxo egin duten pertsonaiak ditu protagonista. Antzezlanean, *konurbazio*-prozesutik denboraren lerroranzko jauzia dago, eta handik *identitate-exijentzien* errei-bindikazioranzkoa. Antzerki espainoltzara da, herrikoia, urratzailea. *La tierra movida bajo los pies* («Oinpean mugituz lurra»), bestalde, haren antzezlan patetiko, garratz eta ilunena da: klandestinitatea nostalgia edo malenkonia estetiko gisa eta beldurra abentura biografiko modura, giro lausoa, antzezpenaren joanean baizik izendatzen ez diren ahots eta siluetak, eta betidaniko ezagunak diren pertsonaia misterioz beteak. Gertaerak larriak dira, eta «lurra oinpean mugitzen da».

*Primer Acto* aldizkariaren zenbaki monografiko batean, Alfonso Sastrek saiakera ezagun batean formulatu zuen galderari heltzen dio atzera ere Mikel Azpiatzuk: *Ba ote dago euskal antzerkirik?* Sastrek galdera hori egin eta bost urtera, Azpiatzuk haxe dio: «Euskal Herriko konpainiek ez dute euskal idazleen lanik estreinatzen, ez euskarazkorik eta ez gaztelaniazkorik, nahiz urtero ateratzen diren, sarien sistema dela medio, egile eta testu berriak. Baina, egia esan behar bada, euskal antzerkigileek ere ez diote gaur egungo euskal gatazkari heltzen, ez euskaraz eta ez gaztelaniaz. Iragan onirikoaz idazten dute, kontsumitzaileak erraz irensteko moduko kritikak egiten dituzte, teknologiaren abusuei buruzko kontuak aipatzen dituzte... dena ere oso modu orokorrean, eguneroko bizipenekin konprometitu gabe». Azpiatzuk orduantxe estreinatu berri zituzten bi antzezlan aipatzen ditu: Enkarni Genuarena bata, Euskal Herriko eguneroko liskarrei buruzkoa, eta Borja Ortiz de Gondrarena bestea, zelula terrorista baten zirkunstantzia sozial eta politikoei buruzkoa.



34. Bederen 1 antzerki-taldeko kideek Alfonso Sastrearen *Gillermo Tellek triste ditu begiak* obra aurkeztu zuten 1989an. Argazkian aktoreak Sastrekin.

34. La compagnie Bederen 1 a joué la pièce d'Alfonso Sastre *Gillermo Tellek triste ditu begiak* (« Guillaume Telle a les yeux tristes ») en 1989. Sur la photo, les acteurs avec Sastre.

magnifiquement le grotesque. Dans la pièce, on passe d'un processus d'agglomération au fil du temps, à la revendication d'exigences identitaires. C'est une pièce nationaliste, populaire et révolutionnaire. *La tierra movida bajo los pies* (« La Terre qui bougeait sous les pieds »), est la plus pathétique, la plus amère et la plus sombre de ses œuvres ; la clandestinité comme nostalgie ou regret esthétique, la peur comme aventure biographique, une ambiance diffuse, des voix et des silhouettes qui ne sont nommées qu'au cours de la représentation, et des personnages qui se connaissent depuis toujours, mais qui sont empreints de mystère. Les événements sont graves, et « la terre bouge sous les pieds ».

Dans un numéro monographique de la revue *Primer Acto*, Mikel Azpiatzu reprend la question posée par le dramaturge Alfonso Sastre dans un essai bien connu : *Y a-t-il un théâtre basque ?* Cinq ans après que Sastre a posé cette question, Azpiatzu affirme que « les compagnies du Pays basque ne jouent pas d'œuvres d'écrivains basques, ni en basque ni en espagnol, bien que de nouvelles pièces et de nouveaux auteurs voient le jour chaque année grâce au système des récompenses. Mais il est vrai que les dramaturges basques n'abordent pas non plus la question basque actuelle, que ce soit en langue basque ou espagnole. Ils écrivent sur des temps passés et oniriques, ils écrivent des critiques facilement assimilable par le consommateur, évoquent les abus technologiques... Tout cela d'une manière très générale, sans s'engager dans l'expérience du quotidien ». Azpiatzu évoque deux textes dramatiques dont on venait de jouer la première : celui d'Enkarni Genua et celui de Borja Ortiz de Gondra. Le premier sur la tension quotidienne au Pays basque, en famille. Le second sur une cellule terroriste dans le contexte social et politique.

À partir de l'évocation poétique, Roberto Herrero est l'un des membres du groupe qui a élaboré la mémoire due avec ses œuvres *Los abrazos perdidos* (« Les Embrassades perdues », 1995) et *Como todos los martes* (« Comme tous les mardis », 2001). Avec la deuxième pièce, il a reçu le Prix Euskadi de littérature dramatique. La pièce présente le face à face entre une victime du terrorisme et son bourreau ; les terribles raisons de la victime devant un meurtrier qui ne pense pas l'être.

« Si nous analysons les pièces de théâtre mises en scène aujourd'hui au Pays basque », a déclaré Enkarni Genua (*Primer Acto*, 2001/289) dans une interview, « absolument rien ne se passe ici ». Lors d'une rencontre de la dramaturge et écrivaine Itziar Pascual avec quelques auteurs, publiée dans le même numéro de la revue, elle évoque « les chaînes puissantes des évocations » qui, chez Gondra, sont des actions banales, comme danser, fumer du tabac ou du hachis pour fuir la réalité, et chez Genua c'est la télévision et les ragots. Tout est fuite. Puis le silence, le silence convenu, une sorte de contrat qui parvient à résister par consensus pour éviter l'interdit. « La présence et l'utilisation des photographies » comme moyen de fixer le passé et de le figer ou comme témoignage d'absence qui active ce même passé. Ce sont « les référents de l'évasion et de l'évitement qui viennent de l'expérience réelle elle-même ». De son côté, Borja Ortiz de Gondra, de Bilbao, a déclaré : « je suis fatigué des allusions indirectes, des chemins elliptiques, des sous-textes, des parallèles... Pourquoi ne pouvons-nous pas nommer les choses par leurs noms ? Quelle étrange dictature nous en empêche ? (...) Pourquoi avoir peur de nommer les choses par leur nom ? ».

L'œuvre *El florido pensil* (1996) de la compagnie Tanttaka dépeint de manière acerbe les tourments de certains jeunes garçons soumis à la brutalité absurde et illogique du système éducatif de l'Espagne d'après-guerre.

Ebokazio poetikoaren ildotik, elkarri zor diogun memoria hori landu duen taldeko kideetako bat da Roberto Herrero, bere *Los abrazos perdidos* («Besarkada galduak», 1995) eta *Como todos los martes* («Asteartero bezala», 2001) antzezlanekin. Bigarren horrek literatura dramatikoaren alorreko Euskadi saria jaso zuen. Antzezlanean, terrorismoaren biktima bat aurrez aurre dago haren borroarekin: biktimak bere arrazoi lazarriak ematen ditu; borroeroak, aldiz, hiltzailea denik ere ez du uste.

«Gaur egun Euskal Herrian taularatzen diren antzezlanak aztertzen baditugu», esaten zuen elkarriketa batean Enkarni Genuak (*Primer Acto*, 2001/289), «hemen ez da ezertxo ere gertatzen». Itziar Pascualek zenbait egilerekiz izandako topaketa batean –*Primer Acto* aldizkariaren zenbaki berean ematen da horren berri–, antzerkigile eta idazleak «ihesbide-kate ahaltsuak» aipatzen ditu: Ortiz de Gondrarenenean, ekintza hutsalak dira, dantzatzea edota tabakoa eta haxixa erretzea errealitate konkretutik ihes egiteko bide gisa; Genuarenean, berriz, telebista eta txutxu-mutxuak. Dena da ihes egin beharra. Gero, isiltasuna, isiltasun adostua, debekuari iskintxo egin nahian aho batez adosten den erresistentzia-hitzarmena. «Argazkien presentzia eta erabilera» iragana finkatu eta izozteko modu gisa, edo iragan horixe bera aktibatzen duen absentziaren testigantza modura. Horiexek dira «erroak bizipen errealean dituzten ihesbide eta saihebidetako erreferenteak». Borja Ortiz de Gondra bilbotarrak, bestalde, hauxe zioen: «Nekatuta nago zeharkako aipamenez, bide eliptikoez, azpitestuez, paralelismoez... Zergatik ezin diegu gauzei beren izenez deitu? Zer diktadura-klasek eragozten digu? (...) Nondik dator gauzei beren izenez deitzeari diogun izu hori?».

Tanttaka taldearen *El florido pensil* («Baratze loretsua», 1996) antzezlanak garrazki ematen zuen gerraosteko Espainian bertako hezkuntza-sistemaren ankerkeria absurdo eta ilogikoa sufritu behar izan zuten mutiko batzuen atseka-been berri. Antzezlanean bi plano tartekatzen dira: batetik, eskola, faxismoaren propaganda-gunea; bestetik, oholtza bat, erregimenaren turutak hotsandiz entzunarazten dizkigun gunea. *El florido pensil* antzezlan bi aldiz taularatu zuten, 1996an eta 2006an, eta arrakasta handia izan zuen Espainia osoan: 1996an, euskal antzezlan onenaren Ertzilla saria eman zioten; hurrengo urtean, 1997an, antzezle-zerrenda onenaren saria jaso zuen Gasteizko Jaialdian, eta 2000. urtean, Max saria eskuratu zuen Madrilén. Antzezlanean, (des)hezkuntza nazional-katolikoaren hozkadak beren larruan pairatu zituzten helduak ageri dira.

*Soinujolearen semea* antzezlan Bernardo Atxagaren izen bereko eleberraren sintesi bat da. Patxo Telleriaren eskutik, antzezlan 2012an estreinatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetako antzoki nagusietan: Arriaga, Principal eta Victoria Eugenia antzokietan, alegia. Antzezlanak joan den mendearen lehen herenetik amaierara bitarteko Obabaren berri ematen du: haurtzarora, Espainiako gerraren infernua eta indarkeria, etxea utzi eta sekula gehiago itzultzen ez denaren oinazea, adiskidetasun hautsia, memoria... Tartean, hortxe daude, orobat, Euskal Herriko giro politikoa eta ETArekin amesgaiztoa, bizitza publikoaren haize-bolada kontrolgabea eta bizitza pertsonalaren abentura atzera-bueltarik gabea, dena ere oso Atxagarena den distantzia poetiko horretatik kontatua. Liburua bera ere anbizio handikoa da, jauzi temporalak eta ekintzen joan-etorriak uztartzen dituen pausaz eta hitzez josiriko trantze intimoagoekin.

Elkarri zor diogun memoria horrekin loturiko gaiak euskara urbano eta moderno baten bidez espresatzen dira, euskara batu estandarrak egindako bidearen lekuko. Gaiak ere guztiz gaur egungoak dira: euskal antzerkiak guztiz modu berrian dihardu etorkizunaz, gaztaroaz, globalizazioaz, feminismoaz eta matxismoaz, genero-indarkeriaz, gai sozialez, modernitateaz...

C'est une fresque dans laquelle se succèdent l'école – le centre des opérations et de la propagande fasciste – et la tribune d'où sonnaient les clairons du régime. L'œuvre *El florido pensil* a triomphé deux fois en Espagne, une fois en 1996 et une autre fois en 2006. En 1996 elle a reçu le prix Ercilla de la meilleure production basque et en 1997 celui de la meilleure distribution au Festival de Vitoria-Gasteiz. Elle a également reçu le prix Max à Madrid, en 2000. Dans la pièce apparaissent des adultes qui ont vécu dans leur chair les morsures de la (dés)éducation nationale-catholique.

La pièce *Soinujolearen semea* synthétise le roman du même nom de Bernardo Atxaga. La pièce a été créée en 2012 par Patxo Telleria, et a été jouée dans les trois principaux théâtres des capitales de la Communauté autonome basque – Arriaga, Principal et Victoria Eugenia. Elle couvre le premier tiers du siècle jusqu'à la fin du XX<sup>e</sup> siècle, et raconte l'enfance dans le village d'Obaba, l'enfer de la guerre civile d'Espagne et les violences, la douleur de ceux qui quittent leur terre pour ne jamais revenir, l'amitié brisée, la mémoire... Entre tout cela, la politique basque et le cauchemar d'ETA, la tempête incontrôlable de la vie publique et l'aventure sans retour de la vie personnelle, le tout raconté depuis cette distance poétique qui appartient à Atxaga. Le livre est également ambitieux, complexe, avec des sauts dans le temps et dans l'action, avec des passages plus intimes faites de pauses et de mots.

Les sujets en lien avec la mémoire due ou en suspens s'expriment dans un basque urbain et moderne, témoin du chemin parcouru par le basque standard ou *batua*. Les thèmes sont aussi très actuels : le théâtre basque parle de l'avenir, de la jeunesse, de la globalisation, du féminisme et du machisme, de la violence de genre, des thèmes sociaux, de la modernité...

35. Pièce *Soinujolearen semea* (« Le Fils de l'accordéoniste », 2012).



35. *Soinujolearen semea* (2012).

## Bultzada femeninoa euskal antzerkian

Asko izan dira euskal harrobitik ateratako emakumezko egile, zuzendari, lider, aktore eta antzerkigintzako ofizioetan ziharduten gainerako langileak. Batasun estrategikoa lortzea da *elkartze* ororen xedea, eta, hori dela eta, emakume saiatuenek talde (eta indibidualitate) femeninoak sortu izan dituzte.

Elkarrekin jardute horrek zeregin batera edo bestera moldatu beharra ere ekarri zuen halabeharrez, 1960 eta 1970eko hamarkadetako antzerki independentean guztiz ohikoa zenez. Feminizazioak *genero*-bloke bat sortu zuen, sasoi hartan guztiz berria, sekulako interesa erakarri zuena. Harrezkerotik, emakumezko antzerkigile eta egokitzaile ugari sortu dira gurean, originaltasun-nahi handikoak denak. Batzuetan, sortzaile horiek beste alor batzuetatik zetozen, hala nola Arantxa Urretabizkaia eleberrigilea, gidoilari-eta egokitzaile-lanetan jarduna, edo Garbiñe Losada eta Ana Miranda, edo Aizpea Goenaga aktore eta autorea, hainbat sormen-lanen egilea: besteak beste, 1995eko Donostia Hiria saria jaso zuen *Zu (t) Gabe - Sin Ti* (1994) antzezlana, 2005eko Serantes saria jaso zuen *Agur Betiko* antzezlana, eta 2004ko Breve Café Bilbao saria jaso zuen *Joetuta* antzezlana.

36. Txotxongilo Taldeko Enkarni Genua, Mariona, Topic Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroko maskotarekin.



36. Enkarni Genua de la compagnie Txotxongillo, avec Mariona, la mascotte de Topic centre internationale de la marionnette de Tolosa (Guipuscoa).

## L'impulsion féminine dans le théâtre basque

De nombreuses autrices, metteuses en scène, dirigeantes, interprètes et autres travailleuses des métiers du théâtre sont sorties du vivier basque. L'objectif de tous les groupes est de parvenir à une unité stratégique, les plus persévérantes ont donc créé des formations (et des individualités) féminines.

Cette interaction partagée a engendré une adaptabilité, très largement issue du théâtre indépendant des années 1960 et 1970. Cette féminisation a produit un bloc de genre, encore tout à fait inédit, qui a généré un intérêt particulier. Depuis, de nombreuses autrices et adaptatrices ont émergé au Pays basque, et toutes tendent vers l'originalité. Parfois, elles viennent d'autres domaines comme la romancière Arantxa Urretabizkaia, qui écrit des adaptations et des scénarios originaux, ou Garbiñe Losada et Ana Miranda, ou encore Aizpea Goenaga, actrice et autrice, entre autres, de *Zu (t) Gabe - Sin Ti* (« Sans toi », 1994), qui obtint le prix de la ville de Donostia en 1995, elle reçut également le prix Serantes en 2003 avec *Agur Betiko*, et le prix Breve Café Bilbao en 2004 avec la pièce *Joetuta*.

Yolanda Martínez a créé les troupes Mari Urrike (1977), La Rebuelta (1988) et Creación Colectiva (1982). Elle a également adapté de nombreuses œuvres, Comme *La mujer que se convirtió en perro* (« La femme qui se transforma en chien ») à partir du texte *El hombre que...* (« L'Homme qui... ») d'Enrique Buenaventura, ainsi que *La mujer rota* (« La Femme brisée »), et *La mujer que osó quitarse el otro guante* (« La Femme qui osa enlever l'autre gant »). Toujours dans cette optique de travailler en équipe, Martínez a élaboré deux autres pièces avec Nerea Calonge : *Encarceladas, pasión entre rejas* (« Emprisonnées, passion derrière les barreaux », 1992) et *La funcionaria asesina* (« La Fonctionnaire meurtrière », 1994). Martínez a reçu le prix Emakunde en 1992 pour son important travail.

Irene Bau a créé, seule, la pièce *Ecografías* (« Échographies »), « un voyage en solitaire dans les entrailles de la maternité, une mise à nue féminine. » Cecilia Solaguren apparaît dans les distributions de compagnies comme Animalario, CDN ou La Fura dels Baus.

La présence féminine est remarquable dans le théâtre du Pays basque. Preuve en est l'appel à projets du Gouvernement basque en 2000 pour l'aide à la création d'œuvres théâtrales, où trois propositions, soit presque la moitié, étaient signées par des autrices : Rosa Ángela Sardón a présenté *Juguetes y objetos* (« Jouets et objets »), Eva Vidal *No sabes cuánto esperamos de ti* (« Tu ne sais pas tout ce que nous attendons de toi »), et *Ai, ama* (« Mon Dieu ! »). *Aitarekin bidaian* (« Le Voyage de mon père ») prix Max et Garnacha en 2011) et *Hitzak* (« Les Mots », prix Garnacha en 2013) sont d'Agurtzane Intxaurreaga et Arantxa Iturbe, ainsi que, en collaboration avec le groupe de danse Oinkari, le spectacle *Itsasoaren emazteak* sur les femmes de marins.

La vague suivante arriva dans les années 1980, avec Yolanda Martínez (directrice de la compagnie Mari Urrike), Elena Armengod (de la compagnie



Yolanda Martínezek hiru talde sortu zituen: Mari Urrike (1977), Creación Colectiva (1982) eta La Rebuelta (1988), eta hainbat lan egokitu, hala nola *La mujer que se convirtió en perro* («Txakur bihurtu zen emakumea»), Enrique Buenaventuraren *El hombre que... testuan oinarritua*, *La mujer rota* («Emakume hautsia») eta *La mujer que osó quitarse el otro guante* («Beste eskularrua kentzera ausartu zen emakumea»). Taldean lan egin behar horren arrastoari segituz, Martínezek beste bi antzezlan ere paratu zituen Nerea Calongerekin batera: *Encarceladas, pasión entre rejas* («Espetxean preso, pasioa giltzapean», 1992) eta *La funcionaria asesina* («Emakume-funtzionario asasinoa», 1994). 1992an, Martínezi Emakunde saria eman zioten bere ibilbide oparoagatik. Irene Bauk bakarka sortu zuen *Ecografías* («Ekografiak») antzezlan, «amatasunaren erraietara bakarrik egindako bidaia bat: biluzi femenino bat». Cecilia Solaguren, berriz, talde askotako aktore-zerrenden parte izan da, eta, besteak beste, Animalario, CDN eta La Fura dels Baus taldeetan jardun du.

Emakumeek presentzia nabarmena dute gure antzerki-sisteman, datu honek ederki erakusten duenez: Eusko Jaurlaritzak 2000. urtean antolatutako antzezlanen sorrerarako laguntzen deialdian, proposamenetako hiru, ia erdiak, emakumezko autoreenak ziren: Rosa Angela Sardónek *Juguetes y objetos* («Jostailuak eta objektuak») antzezlan aurkeztu zuen; Eva Vidalek, *No sabes cuánto esperamos de ti* («Ez dakizu zenbat espero genuen zugandik»), eta Agurtzane Intxaurrek, *Ai, ama*. Azken horrenak eta Arantxa Iturberenak dira, halaber, *Aitarekin bidaian* (2011ko Max eta Garnacha sariak) eta *Hitzak* (2013ko Garnacha saria) dramak, eta, Oinkari taldearekin elkarlanean, *Itsa-soaren emazteak* makroikuskizuna, marinelen emazteei buruzkoa.

Antzerki alternatiboaren garai heroikoei dagokienez, zenbait emakumeren gidaritzak eta lidergoa guztiz nabarmentzekoak dira; hortxe daude, esate baterako, Ofelia Rivero (Ateneo, Akelarre) eta Maribel Belastegi (Orain), bai eta Enkarni Genua (Txotxongilo) txotxongilolari historikoa, Carmen Ruiz Corral (Denok eta Gasteizko Eskola) eta Maite Agirre (Agerre Teatro) ere, denak ere 1960 eta 1970eko hamarkadetako belaunaldi abangoardistetako kideak. 1980an iritsi zen hurrengo oldea, bikain-bikaina hura ere, eta tartean zeuden, besteak beste, Yolanda Martínez (Mari Urrike taldeko burua), Elena Armengod (Bekereke taldekoa; *Cuando el hielo arde* [«Izotza sutan»] lanaren egilea da), Elena Bezanilla, Andaluzian irakasle dabilena, Helena Pimenta (UR, Kataluniako Antzerki Konpainia Nazionala, Galiziako Antzerki Zentroa eta Zentro Dramatiko Nazionala), Ana Pérez (Legaleon), Olatz Beobide zuzendari eta aktorea, Mireia Gabilondo (Antzerti, Tanttaka), eta Agurtzane Intxaurrek (Hika).

Antzezlan nabarmen batzuk ere aipatu behar dira; adibidez: *Cómeme el punto* («Jan iezadazu puntua», Legaleon); *Madre Coraje* («Ama kuraia»), Ana Pimentarekin (Vaivén); *Frida Kahlo* eta *La noche de Molly Bloom* («Molly Bloom-en gaua»), Maite Agirrerekin (Agerre Teatro); Ana Rita Fiaschetti-ren zenbait proposamen (Pikor Teatro taldearen sorrera; Jokin Oregiren *XL Town* antzezlan); Garbiñe Losadaren *Lamiak* (Maite Agirrek ere parte hartu zuen antzezlan horretan); edota Martine Tartour-en *Todas culpables* («Denak errudun»), Teresa Calo eta Mireia Gabilondorekin.

Gaiak, dena den, ez dira beti feministak izan. Garbi Losadak, adibidez, *Lamiak*eko *factotum* eta geroago Ados Teatra taldearen sortzaile izan zenak, *El amigo de John Wayne* («John Wayne-ren laguna») sinatu zuen, desgaitu baten bakardadeari buruzko antzezlan, eta, horretaz gainera, Elvira Lindo-ren *Manolito Gafotas* («Manolito laubegi») *best-seller*-a eta gaztetxoentzako *Robinson Crusoe* (1994) eta *Sin vergüenzas* («Lotsagabeak», 2001) lanak ere egokitu zituen. Antzerki komertzialagoaren arloan, berriz, Sharpe-ren *Wilt*,

37. *Ai, ama* (2002), Hika Teatra.

37. Pièce *Ai, ama* (« Mon Dieu ! », 2002) par Hika Teatra.

Bekereke et autrice de *Cuando el hielo arde*), Elena Bezanilla (profesore en Andalousie), Helena Pimenta (UR, Compagnie National de Catalogne, Centre dramatique de Galice et Centre dramatique national), Ana Pérez (Legaleon), Olatz Beobide, metteuse en scène et actrice, Mireia Gabilondo (Antzerti, Tanttaka), et Agurtzane Intxaurrek, entre autres.

A noter également les œuvres *Cómeme el punto* (Legaleon), *Madre Coraje* (« Mère courage ») avec Ana Pimenta (Vaivén), *Frida Kahlo* et *La noche de Molly Bloom* (« La Nuit de Molly Bloom ») de Maite Agirre (Agerre Teatra), quelques propositions d'Ana Rita Fiaschetti (création de la compagnie Pikor Teatro ; la pièce *XL Town* de Jokin Oregi), ainsi que *Lamiak* de Garbiñe Losada (avec également Maite Agirre), ou *Todos culpables* (« Tous coupables »), de Martine Tartour avec Teresa Calo et Mireia Gabilondo.

Mais les sujets abordés n'ont pas toujours été féministes. Garbi Losada, touche-à-tout de *Lamiak*, et plus tard fondatrice d'Ados Teatra, par exemple, a signé *El amigo de John Wayne* (« L'Ami de John Wayne ») sur la solitude d'une personne handicapée, et elle a aussi adapté pour la jeunesse le best-seller d'Elvira Lindo, *Manolito Gafotas* et *Robinson Crusoe* (1994) et *Sin vergüenzas* (« Les Insolents » 2001). Dans le domaine du théâtre plus commercial, elle a mis en scène *Wilt, el crimen de la muñeca hinchable* (« Wilt, le crime de la poupée gonflable ») de Sharp en 2012 à Madrid, et par la suite, a présenté deux autres pièces qui lui ont permis de s'affirmer : *Le nom de la rose* à partir du roman d'Umberto Eco en 2013, et *El amor después del amor* (« L'Amour après l'amour ») à partir d'images de la sculptrice Dora Salazar.

Pour le traitement de certains thèmes, ce n'est pas chose paradoxale que les femmes prédominent et que sur scène, elles interprètent et les hommes et les femmes. Fernando Bernués a mis en scène *No me hagas daño* (« Ne me fais pas mal ») en 2011, sur la violence machiste. Maiken





*el crimen de la muñeca hinchable* («Wilt, panpina puzgarriaren krimena») muntatu zuen Madrilen, 2012an; eta beste bi lan ere taularatu zituen geroago, bere ibilbidea bermatzeko balio izan ziotenak: 2013an bata, Umberto Eco-ren *El nombre de la rosa* («Arrosaren izena») eleberrian oinarritua, eta 2014an bestea, *El amor después del amor* («Maitasunaren ostean maitasuna»), Dora Salazar eskultore nafarraren irudiak abiapuntutzat hartuta.

Zenbait gai lantzean, ez da paradoxikoa emakumezkoak nagusitzea eta haiek izatea agertokian gizonezkoak eta emakumezkoak ordezkatzeko dituztenak. Fernando Bernúesek *No me hagas daño* («Ez iezadazu minik egin») indarkeria matxistari buruzko antzezlan taularatu zuen 2011. urtean. Maiken Beitia eta Kike Díaz de Rada eskarmentu handiko aktoreak dira, eta pieza ezinago krudela ontzea lortu zuten biek, eta batere oihurik egin gabe, gainera. Antzezlanak oso serio eztabaidatzera animatzen gaitu. Eta baita matxinatzera ere.

Generoari dagokionez, hiru gai-ildo izan dira nagusi: batetik, kultura matxista bateko ekintza politikoaren nolakoa (Rame eta Fo, esate baterako); bestetik, askapen sexualaren aldeko borrokan dabiltzan emakumeen ikuspegia; eta, azkenik, askoz unibertsalagoa den indibidualismo eta errealizazio pertsonalaren gaia, gizonezkoek ere partekatzen dutena, baina emakume gisa lortzen zailagoa dena. Askatasun berri horren eredu ditugu, esate baterako, Werner Schwab-en *Las presidentas* («Emakumezko presidenteak») eta Yolanda Martínez zuzendari duen Las Txirenitas taldea, Loli Astoreka, Sol Maguna, Vito Rogado, Gemma eta Yolanda Martínez, eta Maribel Salas aktoreek osatua. 2013an itzuli eta *Volando voy* («Ziztuan noa») kabareta taularatu zuten.

## Euskal artisten diaspora

1979an, Helena Pimentak Atelier taldea sortu eta lau obra egokitu zituen: 1979an bertan, Molière-ren *El avaro* («Zekena»); 1981ean, Ionesco-ren *La cantante calva* («Emakume abeslari burusoila») eta *La lección* («Lezioa»); eta, 1982an, Beckett-en *Esperando a Godot* («Godoten esperoan»). 1987an, UR Teatro taldea sortu eta, hurrengo urteetan, Shakespeareren hiru antzezlan taularatu zituen (eta, horrenbestez, Pimenta, nolabait, Shakespeareren lanetan aditu bihurtu zen): 1992an, *El sueño de una noche de verano* («Uda-gau bateko ametsa»); 1995ean, *Romeo y Julieta* («Romeo eta Julieta»); 1998an, *Trabajos de amor perdidos* («Maitasun-lan galduak»); eta, 2011n, *Macbeth*. 1993an Antzerki Sari Nazionala eman zioten; urte horretan bertan, Kairoko Nazioarteko Jaialdian, epaimahaiaren eta kritikaren saria eskuratu zuen *El sueño de una noche de verano* antzezlanagatik; 1996an, Eszena Zuzendarien Elkartearen (ADE) zuzendari onenaren saria jaso zuen *Romeo y Julieta* antzezlanagatik, eta 1998an, berriz, *Trabajos de amor perdidos* antzezlanagatik. 1994az geroztik, ADEko zuzendaritzako kide da, eta 2007an elkarte horre-

38. *Uda gau bateko ametsa*, Tanttaka antzerki-taldea aurkeztu zuen Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburua egitarauaren barruan.

38. *Le Songe d'une nuit d'été* créé par la compagnie Tanttaka en basque et en espagnol à l'occasion de Donostia 2016 Capitale européenne de la culture.

Beitia et Kike Díaz de Rada sont deux acteurs expérimentés qui ont réalisé une pièce violente mais sans cris. Cette pièce pousse au débat. Et à la rébellion.

Les questions de genre s'articulent autour de trois axes principaux : l'action politique dans une culture machiste (Rame et Fo) ; le point de vue des femmes qui militent en faveur de la libération sexuelle, et, enfin, un sujet beaucoup plus universel qu'est l'individualisme et l'épanouissement personnel ; thème également abordé par les hommes, mais qui est plus difficile pour les femmes. *Les présidentes* de Werner Schwab sont un exemple de cette nouvelle liberté, tout comme la compagnie Las Txirenitas composée par les actrices Loli Astoreka, Sol Maguna, Vito Rogado, Gemma et Yolanda Martínez et Maribel Salas, et dirigée par Yolanda Martínez. Elles sont remontées sur les planches en 2013 avec le cabaret *Volando voy*.



tako presidente izendatu zuten. 2011. urtean, Madrileko Zentro Dramatiko Nazionalako lehen emakumezko zuzendaria izan zen.

Fernando Bernuésék indarkeria matxistari buruzko *No me hagas daño* («Ez iezadazu minik egin») antzezlan estreinatua 2010ean, eta sari asko jaso zituen. *El florido pensil* antzezlanaren bertsio galegoa ere prestatu zuen, eta *Contra el viento del Norte* («Ipar haizearen kontra») aurkeztu. «Ikuskizunaren eta sormenaren arteko konplizitatea» sorburu duen produkzio-molde baten alde egiten dute Bernuésék eta Tanttaka taldeak, bai eta konpainien eta antzokien arteko koprodukzioen alde ere: «Antzoki publikoek bertako sormen-lanen alde konprometitu behar dute». Jordi Sierra i Fabra idazlearen *Kafka y la muñeca viajera* («Kafka eta panpina bidaiaria», 2007ko Haur Literaturako Sari Nazionala) ere egokitu zuen 2007an, eta 2012an, berriz, Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea*, Patxo Telleriarekin batera. 2014an, Mireia Gabilondo eta Kike Díaz de Rada zuzendariek Atxagaren beraren beste lan bat taularatu zuten: *Zazpi aldiz elur* antzezlan intimista. Euskaraz eta gaztelaniaz, bi hizkuntzetan egokitu zuten Daniel Glattauer idazlearen *Contra el viento del norte / Ipar haizearen kontra* hiri-giroko antzezlan, teknikaren giza gorabehereri eta ziber-maitasun kosmopolita bati buruzkoa, mundu global batean euskaraz hitz egiten duen publikoa gogoan hartuta. José eta Naiel Ibarrola arduratu ziren eszenografiak, eta Itziar Atienza, Joseba Apalaoza eta Kike Díaz de Rada aritu ziren aktore-lanetan.

Haien antzera, joan-etorri etengabe dabilta, orobat, Ramón Barea, Ramón Ibarra, Klara Badiola, Saturnino García, Jone Irazabal, Adolfo Fernández, Luis García, Cecilia Solaguren, Marta Etura eta Asier Etxeandia, besteak beste. Joan zirenen artean, berriz, ezin aipatu gabe utzi Marivi Bilbao (1930-2013), Álex Angulo (1953-2014) eta Aitor Mazo (1961-2015).

Joan-etorrian dabilta, halaber, José Luis Raymond eta Ana Garay eszenografoak, eta Jesús Cimarro eta Enrique Salaberria enpresariak.

## La diaspora des artistes basques

En 1979, Helena Pimenta fonde le groupe Atelier : elle adapte *L'Avare* de Molière, *La cantatrice chauve* et *La Leçon* d'Eugène Ionesco (1981) et *En attendant Godot* de Samuel Beckett (1982). En 1987, elle fonde la troupe UR Teatro et se met à mettre en scène trois pièces de Shakespeare, qui vont faire d'elle la spécialiste de l'auteur : *Le Songe d'une nuit d'été* (1992), *Roméo et Juliette* (1995) et *Peines d'amour perdues* (1998). Et elle met en scène *Macbeth* en 2011. En 1993 Pimenta reçoit le Prix national de Théâtre ; la même année, le Prix du jury et le prix de la critique au Festival international du Caire pour *Songe d'une nuit d'été* ; en 1996 le Prix de l'Association des metteurs en scène (ADE) de la meilleure mise en scène pour *Roméo et Juliette*, et en 1998 pour *Peines d'amour perdues*. Elle est membre de la direction de l'ADE depuis 1994, et a été nommée présidente en 2007 ; et en 2011 elle a été la première femme directrice du Centre national dramatique de Madrid.

En 2010, Fernando Bernués a mis en scène la pièce *No me hagas daño* qui traite de la violence machiste et a reçu de nombreux prix. Il a également mis en scène la version galicienne d'*El florido pensil* et a présenté *Contra el viento del Norte* (« Quand souffle le vent du nord »). Bernués et Tanttaka défendent une forme de production qui se base sur « la complicité entre le spectacle et la création », ainsi que la coproduction entre compagnies et salles de théâtre. *Kafka y la muñeca viajera* (« Kafka et la poupée voyageuse ») de l'écrivain Jordi Sierra i Fabra qui a remporté le Prix national de littérature jeunesse en 2007, et il a également adapté en 2012, avec Patxo Tellería, *Soinujolearen semea* de Bernardo Atxaga. En 2014, les metteurs en scène Mireia Gabilondo et Kike Díaz de Rada ont mis en scène une autre œuvre d'Atxaga : la pièce intimiste *Zazpi aldiz elur* (« Il a neigé sept fois »). Ils ont adapté le roman *Quand souffle le vent du nord* de l'écrivain Daniel Glattauer en basque et en espagnol : il s'agit d'une pièce de théâtre urbaine, sur les vicissitudes humaines de la technique et le cyber-amour cosmopolite, pour un public bascophone dans un monde globalisé. La scénographie est de Joseba et Naiel Ibarrola, les acteurs sont Itziar Atienza, Joseba Apalaoza et Kike Díaz de Rada.

Comme eux, Ramón Barea, Ramón Ibarra, Klara Badiola, Saturnino García, Jone Irazabal, Adolfo Fernández, Luis García, Cecilia Solaguren, Marta Etura et Asier Etxeandia, entre autres, font des allers-retours incessants.

Et on ne peut oublier ceux qui s'en sont allés : Marivi Bilbao (1930-2013), Álex Angulo (1953-2014) et Aitor Mazo (1961-2015).

Les scénographes comme José Luis Raymond et Ana Garay, les producteurs Jesús Cimarro et Enrique Salaberria vont et viennent également.

# Euskal antzerkiaren azpiegiturak

Aizpea Goenaga

# Les infrastructures du théâtre basque

Aizpea Goenaga

2004an ARTEKALE elkarte sortu zen kale-antzerkiaren alde lan egiteko. Elkartea sustatzen hasi zen kale-antzerkia egiten zuten taldeen, banatzailleen eta jaialdi-antolatzaileen arteko elkarlana. Horrelako ekimenei esker, euskal kale-antzerkiak nazioartean duen ospe eta garrantziari eutsi dio.

Iparraldean, Frantziako kultura-politika zela eta, lau talde profesional ari ziren lanean, ia beti frantsesez, eta hainbat herritan talde amateurak euskaraz antzezten zuten; oraindik ere hala jokatzeko dute. EKE Euskal Kultur Erakundeak, Ibilki programari esker, Iparraldean euskarazko antzerkiaren hedapena bermatzen du, eta Baiona, Angelu, Bastida, Bidarte, Donibane Lohizune, Hendaia, Maule, Biarritz eta Senperen euskaraz egindako antzerkia programatzeko aukera ematen du. 2019ko denboraldian hamar antzezlan, hogeita bat emanaldi eta 2.625 ikusle izan zituzten.

Nafarroan, 2018an, hamabi antzerki talderi eman zieten dirulaguntza Nafarroako Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundeak, bertan ekoiztu eta estreinatu ziren lanentzat. Nafarroako Antzerki Sareak ere antzerki-programazioa sustatzen du eta, bestalde, Nafarroako Antzerki Eskolak, interpretazio-ikasketak antolatzeaz gain, mugimendu eszenikoari bultzada ematen jarraitzen du eta euskarazko ekoizpenak hauspotzen, batik bat, umeei zuzendutakoak. Nafarroako Antzerki Eskolak, gainera, Haur Antzerki Testuen Lehiaketaren sariak antolatzen ditu eta saritutako lanak argitaratzen dituzte.

2010. urtean EHAZE Euskal Herriko Antzerkizale Elkartea sortu zuten, euskaraz egiten den antzerkia bultzatzeaz gain, antzerkiari duintasuna ematen ahalegintzeko. Hainbat ekimen eta hausnarketa bultzatu dituzte, eta Susa argitaletzeko Ganbila Antzerki Edizio Saila martxan jarri dute, non euskarazko antzerki-testuak edota antzerkiari buruzko ikerketak argitaratzen dituzten; urtero, Durangoko Liburu Azokan aurkezten dira lan horiek. Halaber, EHAZEk, Mintzolarekin elkarlanean, euskarazko

39. Arriaga antzokia, Bilbo.



39

39. Le théâtre Arriaga, Bilbao (Biscaye).

En 2004 l'association Artekale a été créée pour promouvoir le théâtre de rue, dans laquelle participaient, outre les compagnies de théâtre de rue, des distributeurs et des promoteurs de festivals. Le théâtre de rue avait, et a toujours, une grande renommée et une grande importance dans le monde entier.

Au Pays basque du Nord, en raison des caractéristiques de la politique culturelle française, quatre compagnies se sont consacrées au théâtre de manière professionnelle, presque toutes en français, tandis que les groupes d'amateurs des petites localités se sont principalement produits en basque. Aujourd'hui, l'Institut culturel basque (EKE-ICB) assure toujours, à travers le programme Ibilki, la diffusion du théâtre en basque dans tout le Pays basque du Nord avec des partenaires tels que les municipalités de Bayonne, Angelu, Bidarte, Donibane Lohizune, Hendaia, Biarritz et Senpere (Labourd), Bastida (Basse Navarre), ou Mauleón (Soule). En 2019 ils ont organisé dix spectacles, il y a eu vingt-et-une représentations et 2 625 spectateurs.

En 2018, la Direction générale de la culture du Gouvernement de Navarre, par l'intermédiaire de l'Institut Prince de Viane, a accordé une subvention à douze compagnies de théâtre pour la diffusion d'œuvres produites dans la Communauté forale. En outre, le théâtre de Navarre dispose de divers outils de diffusion et de programmation, tels que le Réseau de théâtre de Navarre et l'École de théâtre de Navarre, et organise différents cours de théâtre, et encourage divers courants scéniques et les productions en langue basque, notamment celles destinées à la jeunesse. De plus, l'École de théâtre de Navarre organise un concours de pièces de théâtre pour enfants, dont la récompense est la publication du texte gagnant.

En 2010, EHAZE, l'association des amateurs de théâtre du Pays basque, a vu le jour afin de promouvoir et valoriser le théâtre en langue basque. L'association a encouragé plusieurs initiatives et réflexions, et sous son égide a été créée la collection Ganbila de la maison d'édition Susa, spécialisée dans la publication de textes dramatiques et d'ouvrages de recherche sur le théâtre, dont les nouveautés sont présentées chaque année au Salon de Durango. De plus, EHAZE a lancé en collaboration avec l'espace Mintzola différents projets de recherche autour de la diffusion et de la transmission du théâtre basque, tout en réclamant la création d'un centre de documentation.

Emakunde a publié en 2012 le travail de recherche d'Arantxa lurre, *Emakumeak arte eszenikoetan*<sup>10</sup>, dans lequel elle étudie la présence des metteuses en scène, écrivaines, actrices et autrices dans le théâtre basque.

## LES NOUVEAUX MODÈLES DE PRODUCTION THÉÂTRALE

Le théâtre Arriaga a été la première salle de théâtre au Pays basque Sud à produire des œuvres, et ainsi à établir un modèle que d'autres ont suivi plus tard. En 2012, l'adaptation de Patxo Telleria du roman *Soinujolearen semea* de Bernardo Atxaga est devenue la première œuvre coproduite par les trois théâtres publics de la Communauté autonome basque : le théâtre Arriaga à Bilbao, le Principal à Vitoria-Gasteiz et le Victoria Eugenia à Donostia, qui allaient combler le manque d'un Centre dramatique national. Depuis,



antzerkiari buruzko ikerketa-proiektuak hauspotu ditu eta dokumentazio-gune baten beharra aldarrikatu du.

2012an Emakundek Arantza lurreren *Emakumeak arte eszenikoetan*<sup>10</sup> ikerketa kaleratu zuen, non euskal teatroan emakumeen presentziaren garapena aztertzen duen zuzendari, idazle, aktore eta egile gisa.

## EKOIZPEN-EREDU BERRIAK

Hegoaldean, Arriaga antzokiak antzezlanak ekoizten hasteko bidea zabaldu zuen, eta beste zenbait antzokik ere eredu horri jarraituko zioten. *Soinujo-learen semea* Bernardo Atxagaren nobelan oinarritutako antzezlanak Patxo Telleriak egokitu zuen 2012an, eta Euskal Autonomi Erkidegoko hiru antzoki publikoen laguntzarekin egin zen lehenengo muntaia izan zen. Bilboko Arriaga antzokiak, Gasteizko Principal antzokiak eta Donostiako Victoria Eugenia antzokiak Euskal Zentro Dramatiko ezaren hutsunea beteko zuen ekoizpen-modu berri bat abiarazi zuten. Lan-ildo hori bultzatzen jarraitzen dute, eta urtero estreinatzen dituzte muntaiak. 2017an Arriaga antzokiak ekoiztutako Atxagaren *Obabakoak* nobelaren egokitzapena estreinatu zuen, Calixto Bieitoren zuzendaritzapean, modu poetiko, fisiko eta bisualean bi hizkuntzatan eskaini zen lan hau.

Zenbait herritan, bestalde, antzokien eta antzerki-taldeen arteko loturak sortu dira. Hala, taldeek haien bidez lortzen duten egonkortasunari esker, muntaiak eta ikastaroak antola ditzakete.

Donostia 2016 Europan Kultura Hiriburua egitasmoaren barruan antzerkiak bere lekua izan zuen. Tanttaka taldearen eskutik, Shakespearearen *Uda-gau bateko ametsa* antzezlanak zuzendu zuen Fernando Bernués, Patxo Telleriaren egokitzapenarekin. Lan eder hau uztailean eta abuztuan Donostiako Cristina-Enea parkean antzeztu zuten, euskaraz eta gaztelaniaz. Ikusleek ezkontza-festa bateko gonbidatuen rola jokatu zuten eta afari batekin ekin zioten hemezortzi aktoreek parte hartzen zuten proposamen bereziari: Isidoro Fernández, Ane Gabarain, Gorka Otxoa, Aitziber Garmendia, Sara Cozar, Vito Rogado, Miren Gaztañaga, Josean Bengoetxea, Jose Ramon Soroiz, Mikel Laskurain, Ramon Agirre, Naiara Arnedo, Aitor Beltrán, Amancay Gaztañaga, Itziar Urretabizkaia, Ainara Ortega, Itziar Atienza eta Joseba Apaolaza. Donostia 2016 egitasmoak antzerkiaren alde egindako apustuak eta, bereziki proposamen gogoangarri honek, oso erantzun ona jaso zuen ikusleen eta kritikaren aldetik.

Donostia 2016 eta Ados Teatroak Bernardo Atxagaren testu batean oinarritutako antzezlanak taularatu zuten. Hain zuzen, Xabier Leteren eta Lourdes Iriondoren munduari zuzendutako begirada berezia *Lu eta Le*, Garbi Losadak zuzendua.

Nafarroan, Gayarre antzokiak ekoizpen propioen edota koprodukzioen politika sustatu ohi du; adin desberdinetara zuzentzen ditu bere ekimenak tailerrak antolatuz eta Nafarroako Antzerki Eskolarekin elkarlanean hainbat proiektu burutzen ditu.

Alabaina, denborarekin programazio kopuruak nabarmen egin du beheara eta sortzaileek beste tankera bateko espazioak bultzatu dituzte antzoki ofizialen formalismotik aldenduz. Eredu berri horren adibide nabarmenetakoa Pabiloi 6 egitasmoa da; 2011n jarri zen martxan, sorkuntzarekiko begirada oso anitza zuten hamahiru kideren eskutik: Ander

40. Gure Zirkua, euskal zirku-konpainia.

40. Gure Zirkua, compagnie basque de cirque.



ils ont continué dans cette même direction et produisent ou coproduisent chaque année des pièces de théâtre. En 2017, le Théâtre Arriaga de Bilbao a produit et mis en scène l'adaptation théâtrale en basque et en espagnol d'*Obabakoak* livre très poétique, physique et visuel de Bernardo Atxaga, mis en scène par Calixto Bieito.

D'autre part, la collaboration entre les théâtres municipaux et les groupes locaux a fait que dans beaucoup de villages, de nombreuses pièces et des ateliers de théâtre sont programmés.

Le théâtre a occupé une place importante au sein du programme de Donostia 2016 (Saint-Sébastien 2016), Capitale européenne de la culture. La compagnie Tanttaka a présenté *Le Songe d'une nuit d'été* de William Shakespeare, mis en scène par Fernando Bernués, à partir d'une adaptation de Patxo Telleria. La pièce a été jouée en juillet et août dans les jardins du parc de Cristina-Enea, en basque et en espagnol. Les spectateurs jouaient le rôle des invités d'un repas de nocce qui ouvre la pièce, dont la distribution était composée de dix-huit acteurs : Isidoro Fernández, Ane Gabarain, Gorka Otxoa, Aitziber Garmendia, Sara Cozar, Vito Rogado, Miren Gaztañaga, Josean Bengoetxea, Jose Ramon Soroiz, Mikel Laskurain, Ramon Agirre, Naiara Arnedo, Aitor Beltrán, Amancay Gaztañaga, Itziar Urretabizkaia, Ainara Ortega, Itziar Atienza et Joseba Apaolaza. Cette mise en scène mémorable, et, en général, le pari de Donostia 2016 en faveur du théâtre, ont été très bien accueillis par le public et la critique.

Donostia 2016 et Ados Teatroa ont également proposé la représentation d'une œuvre de Bernardo Atxaga, *Lu eta Le*, mise en scène par Garbi Losada, qui offrirait un regard particulier sur le monde de Xabier Leter et Lourdes Iriondo.

En Navarre, le Théâtre Gayarre mène une politique de productions propres et de coproductions, avec des œuvres destinées à des publics d'âges différents, à travers différents ateliers et projets en collaboration avec l'École de théâtre de Navarre.

Cependant, le nombre d'œuvres programmées a considérablement diminué et les créateurs s'éloignent du formalisme des salles conventionnelles

Lipus, Blanca Arrieta, Borja Ruiz, Irene Bau, José Urrejola, José Ibarrola, José Montero, Matxalen Bilbao, Nagore Navarro, Nuria M. Cres, Pako Revueltas, Patxo Telleria et Ramón Barea. Ondoren, beste 200 bazkidek ere babestu zuten egitasmoa eta horri esker baztertua zegoen Bilboko Zorrotzaurreko pabiloi zahar hura sorkuntza-gune bilakatu zen. Tailerrak, ikastaroak, estreinaldiak, Gazte Konpainia martxan jarri dute eta beste zenbait egitasmo biltzen dituen gunea da gaur egun. Espazio bizia da eta egitasmo eredugarria inondik ere.

Azken urteetan, bestalde, aktoreek lanean jarraitzeko duten grinari eusteko, formatu txiki-txikiko antzezlanen ekoizpena areagotu da, mikro-antzerkia, alegia. Espazio desberdinetan egiten dira, gehienetan tabernatan edo areto berezietan. Gehienez 15-20 pertsona kabitzen diren gelatan, 10-15 minutuko antzezlanak jokatzeko dira eta aktoreek publikoa metro erdira izan ohi dute. Mikro-antzerki jaialdiak ere antolatzen dira eta beren zirkuitu propioa dute.

Gure Zirkua, Iker Galartza aktoreak eta zuzendariak bultzatutako proposamena da. Bere ametsa zirku karpa batean, modu ibiltarian, Euskal Herriko herrietan barrena zirkua erakustea zen, eta euskaraz egitea gainera. Ametsa bete du euskal ikusleen aldetik erantzun ezin hobe jaso du. Esperientzia berria da gure artean.

## DATUAK: EMANALDIK ETA IKUSLEAK

Urte hauetan euskara hutsean makina bat muntaia egin dira. Baina, zoritxarrez, kultura kontsumitzeko modu berriek eta kultura-eskaintza zabalek, beste arrazoi askoren artean, ikusle kopurua murriztu dute. XXI. mendearen hasieratik sumatu da ikusle kopuruaren beherakada. Paradoxikoki, talde gehiago daude, zuzendari, aktore, dramaturgo, jantzi- eta argi-diseinatzaile, eszenografo eta teknikari gehiago eta prestatuagoak daude. Halaber, antzerki-eskaintza zabalduta da generoari eta gaiari dagokionez: errealista, soziala, dibertigarria, estetikoak, poetikoak, abangoardiakoak edo teknologia nahasten duten obrak egiten dira, baina Euskadiko Antzoki Sareak<sup>11</sup> urtero egiten duen ikerketa estatistikoaren txostenean datu esanguratsuak biltzen dira, hona datu horietako batzuk:

- SAREaren eskaintza eszenikoak azken urteetako goranzko joerari eusten dio, eta urteko 2.000 emanaldietara hurbiltzen da, haurrei zuzendutako emanaldiak nabarmen handituz. Tamaina txikiagoko udalerrietan kokatutako antzokietan hazi da gehien eskaintza, baina hiriburuetako antzokiek jarraitzen dute programazioaren buru izaten.
- Publikoak SAREaren eskaintza eszenikoari emandako erantzuna milioi erdi parte-hartzaile ingurukoa izan da (...). Azken urtean emandako ikusleen gorakada bakarria udalerririk txikienetako antzokietan izan da, eta udalerririk horietako gehienetan formatu txikiko antzokiak kokatzen dira. (...)
- Gora egin du euskal konpainien presentziak SAREaren eskaintza eszenikoan, % 11 gehiago programatu baitira 2017arekin alderatuta; guztira, SAREAn parte hartu duten konpainien % 45 dira. (...)
- Euskarazko antzerkia etengabe hazi da azken urteotan, bai emanaldietan, bai ikusle kopuruan. Gaur egun, eskaintzaren % 46a osatzen du, eta ikusleen % 35 biltzen du, eta, batez ere, haurren antzerki-ekoizpenean kokatzen da. (...)

et cherchent des espaces alternatifs. Une bonne illustration de ce nouveau modèle est le projet Pabellón 6, créée en 2011 par treize créateurs au regard pluriel : Ander Lipus, Blanca Arrieta, Borja Ruiz, Irene Bau, José Urrejola, José Ibarrola, José Montero, Matxalen Bilbao, Nagore Navarro, Nuria M. Cres, Pako Revueltas, Patxo Telleria et Ramón Barea. Puis, 200 autres personnes ont soutenu cette initiative, ce qui a permis de réhabiliter un ancien pavillon du quartier Zorrozaurre de Bilbao qui est devenu un espace de création. On y organise des ateliers, des cours et d'autres activités, ainsi que des représentations et des spectacles de tout type. De plus, le pavillon est devenu le siège de la Gazte Konpainia (Compagnie des jeunes). C'est donc un espace vivant et, en un certain sens, exemplaire.

En outre, ces dernières années, le nombre de productions d'œuvres de petit format ou de micro-théâtre a sensiblement augmenté en raison de la volonté des acteurs de continuer à travailler. Ces œuvres sont réalisées dans différents espaces, notamment dans des bars ou des salles polyvalentes, d'une capacité d'environ 15 à 20 spectateurs placés à un demi-mètre de la scène, et durent entre 10 et 15 minutes. Il existe également des festivals de micro-théâtre, qui ont leur propre circuit.

Gure Zirkua (Notre cirque) est une initiative lancée par l'acteur et metteur en scène Iker Galartza, qui a réussi à réaliser son rêve de parcourir les villages du Pays basque avec son spectacle de cirque, et de le faire en basque. Son projet a été chaleureusement accueilli par le public. Gure Zirkua a été une expérience nouvelle au Pays basque.

## QUELQUES DONNÉES : LES REPRÉSENTATIONS ET LES SPECTATEURS

